

ENERGIA SORTZEKO BIDE BERRIEN BILA

KLIMA NEUTRALITASUNAREN BIDEAN,
TRANSIZIO ENERGETIKOA EGITEKO HIRU PARKE EOLIKO
AURREIKUSI DITUZTE DEBAGOIENEAN;
HERRI PLATAFORMAK SORTU DIRA PROIEKTUEN AURKA / 2




2030ERA KO,
ENERGIAREN %32,
GUTXIENEZ, ITURRI
BERRIZTAGARRIETATIK
JASO BEHARKO DA

INDUSTRIA ETA
GARRAIOA
DIRA ISURPEN
HANDIENeko SEKTOREAK:
%80TIK GORA

DEBAGOIENA,
CO₂ ISURKETEI
DAGOKIENEZ, BESTE
LURRALDE BATZUEN
GAINETIK DAGO

PMK / LUO LEI

SINADURAK

 URTZI AMIANO SALTERAIN / 8	 KARMELE URIBESALGO / 21
 RAMON UGALDE / 11	 PILAR ETXANIZ / 25
 OIER ZUMARRAGA ARANBURU / 16	 IZAR ODRIZOLA / 40

+



Sei proiektu,
karbono emisioak
murrizteko lanean

Jessica Rodriguez
elkarrizketa, droga-
mendekotasunaz



**BULEGOAK
ALOKAGAI**

**GARAIA PARKE
TEKNOLOGIKOAN**

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak
60 eta 1.000 m² artean

Informazioa:
ptgaraia@ptgaraia.eus
943-03 88 46



VW ID7

*Disfrutatu
teknologiaz!*

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70

Udalaitz

Miren Arregi Amasorain ARRASATE

Gipuzkoa, Araba eta Bizkairako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea onartu dute otsail hasieran Eusko Legebiltzarrean, EAJ-PNVren, PSE-EEren eta EH-Bilduren aldeko botoekin. Helburua da 2050erako klima neutraltasuna lortzea –helburu hori 2045ean lortuta egoteko esfortzua egingo dela jaso du txostenak–; hau da, isurtzen den CO2 kopurua lurrak xurgatu dezakeenaren parekoa izatea. Horretarako, modu progresiboan energia fosilak baztertuz joateko neurriak proposatzen ditu legeak, eta hainbat jarduera, neurri eta plan jasotzen ditu. Hori ahalbidetzeko, aurrekontuen %2,5, gutxienez, ekintza klimatikora bideratzea ere adostu dute.

Hiru alderdiren adostasuna

Plana onartuta, PSE-EEko legebiltzarkide oñatiar Alberto Alonso "harro" dago, hori sustatzeko taldeko kide izan delako. "Niretzat, Legebiltzarreko lau urte hauetako esperientziarik pozgarrienetako bat izan da", dio. Halere, Alonsoren ustez: "Argi dago berandu goazela, baina esango nuke lege honek gutxieneko komun batzuk markatzen dituela eta euskal gizartearen konpromisoaren eta sentsibilitatearen isla ere badela". Ados da Alonsorekin EAJ-PNVko legebiltzarkide Aitor Urrutia: "Gutxiengo komun bat izatea aukera paregabea da bide horretan aurrera egiteko". Gainera, "plana

Helburua, klima neutraltasuna

EAErako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarako Legea onartu dute otsail hasieran Legebiltzarrean, 2050erako karbono neutraltasuna lortzea helburu duena. Hori onartuta, datozen hamabost hilabeteetan ibilbide-orria onetsi beharko dute

anbizio handikoa dela uste du, "helburua bera ere erronka erraldoia delako. Horretarako, sistema oso bati eman behar zaio buelta. Energia berriztagarriak zabalduz eta erabiliz, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoak sustatuz eta lortuz". EH Bilduko Rebeka Uberaren iritziz, aldiz, "anbizio gehiago behar" luke legeak: "Bai CO2 isurien beherakadan, kontsumoaren murrizketan eta abar. Energia aurrezpenean eta banandutako berriztagarrien hedapenean konkrezio gehiago ere falta da. Halere, Europako eta Estatuak helburuekin bat dator", gehitu du Uberak.

Neurri zehatzak

Legeak deskarbonizazioaren bidean hainbat neurri zehazten ditu; horien artean, Eusko Jaurlaritzak, Energiaren Euskal Erakundearen bitartez 2030erako amaitu beharko duela erregai fosilen desinbertsioa. Gainera, energia berriztagarrien inplementazioarekin lotutako helburu zehatzak ere jasotzen ditu, hala nola 2030erako energiaren %32, gutxienez, iturri berriztagarrietatik jaso beharko direla. Alde horretatik, energia komunitateen zein energia berriztagarrien komunitateen sustapena bultzatuko da, instalazio berriztagarriak sustatzeko finantzaketa-mekanismoak ezarriko dira edo deskarbonizazio prozesuan aurrera egiteko jatorri berriztagarriko erregai alternatiboak sortzea bultzatuko da.

Trantsizio energetikoa Debagoiengan: diagnostikoa


OHARRA: 2019KO DATUAK.

KONTSUMO MAILA ALTUKOA


Euskal Herria eta Debagoiena kontsumo maila handiko lurraldeak dira. Sarri entzun dugu munduko herrialde guztiek Euskal Herriko biztanleek sortzen duten CO2 isurketa kopurua sortuko balute, lau planeta beharko genituzkeela. Euskal Herria hiru milioi biztanleko herria da, fosilekiko dependentzia itzela duena. Gure energia kontsumoa ere oso handia da, munduak kontsumitzen duen batez bestekoaren bikoitza, eta kontsumitzen dugun energiaren %86 kanpotik dator.

Adierazleei begiratuta ikusiko dugu isurpen eta kontsumo handiko eskualdea dela Debagoiena. Industria askoko eskualdean, industria eta garraioa dira isurpenetan kontsumo gehien duten sektoreak, %80tik gora. Etxebizitzak dira hirugarrena, baina lehenengo biekiko alde nabarmenarekin, CO2 isurietan %8 eragiten baitute etxebizitzek. Zerbitzuak datoz ondoren (%7), eta abeltzaintza (%3), nekazaritza (%1) eta hondakinak (%1), azkenik. Kontsumitutako energiari dagokionez, industria da nabarmen kontsumo maila handiena duena (%50). Gero datoz garraioa (%33), etxebizitza (%9) eta zerbitzuak (%8).

CO₂ ISURKETAK DEBAGOIENAN



KONTSUMITUTAKO ENERGIA DEBAGOIENAN



Instalazioei kanonak

Bestalde, EAEn energia berriztagarrien instalazioak –eguzki parkeak zein eolikoak– jartzen dituzten enpresek kanon bat ordainduko dutela ere zehazten du legeak, inguruan egindako kaltea konpentsatzeko. Kanonetik salbuesita egongo dira autokontsumo elektriko instalazioak eta 5 MW-etik beherako potentzia sortzen dutenak. "Kanonarena dator, instalazioen bitartez sor daitezkeen kalteak udalerriei konpentsatzeko", azaldu du Urrutiak. Efizientzia energetikoarekin lotutako neurriak ere badira: hain zuzen ere, 2030erako energiaren azken kontsumoa, gutxienez, %12 aurrezteko bide helburutzat, eta %37 2050erako. Horretarako, neurri zehatzak txertatuko dira, gertuko produktuen kontsumoa eta ekonomia zirkularra bultzatzeko, mugikortasun jasangarria bultzatzeko, argiteria publikoa egokitzeko, energiaren erabilera efizienteaz hezteko eta abar.

Udalei etxeko lanak

Lurralde historikoei eta udalei jartzen zaizkien betebeharrak etorrita, aipatzekoa da 5.000 biztanle baino gehiago dituzten EAeko herri guztiek egin behar dituztela klima eta energia planak datozen urteetan. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek, aldiz, bakarka edo eskualdeko egin ahalko dituzte horiek. Eta txostenean jasotzen diren helburuak betetzen direla ziur-

tatzeko, klima eta energiaren gobernantzararen bideratutako organoak ere sortuko dira. Hiru, zehazki: lehena, trantsizio energetikoaren eta klima aldatetaren batzordea; bigarrena, bulego teknikoa; eta hirugarrena, batzorde zientifiko bat.

Eztabaida gizartean

Legeak eztabaida eragin du gizartean, batez ere, instalazio berriztagarri handien kontra dauden taldeetan. Esaterako, Euskal Herria Bizirik sareak "fartsa" bezala izendatu du legea, eta "energia berriztagarrien industriaren hedapen ahalik eta masiboena gertatzea" eta "hazkuntza ekonomikoari bultzada

handia ematea helburu" duela salatu. Hain justu ere, energia trantsizioan tirabirarik bada, hori tamaina handiko azpiegituren ingurukoa da eta Debagoienean badu horrek bere isla. "Instalazio guztiak beharko dira, tamaina guztietakoak, handiak, ertainak eta txikiak, hori aurrera eramateko", dio EAJ-PNVtik Aitor Urrutiak. Puntu horretan, EH Bildutik Rebeka Uberak uste du lau aukera daudela: "Edo fosilak kontsumitzen jarraitu, edo berriztagarriak Euskal Herritik kanpo ipini haien inpaktua besteen bizkar jarrita, edo gurean eskala guztietako berriztagarriak ipini, edo kontsumoak gure ongizate sistema ezinezko izaterai-

no jaitzi. Seguruena, denetik beharko da, baina eztabaida zintzoa izatea eskatzen dugu, zenbakiak eskuetan". Alberto Alonsok gehiago dio: "Debagoiena oso lurralde industrial da; zein da talde horiek proposatzen duten alternatiba? Zein da industriaren mende dauden milaka enplegurendako alternatiba?".

Industria deskarbonizatzea

2050ean karbono neutraltasuna lortuko bada, bide luzea dago egiteko eta deskarbonizazioa eta eraldaketa sektore guztietan gertatu beharko dira. Bidean, "ekonomia eredu eta kontsumo ereduak goitik behera aldatu beharko dira", Eusko Jaurlari-

tzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu Arantxa Tapiaren esanetan, eta, alde horretatik, industriaren deskarbonizazioak sekulako pisua izango du. Horretarako, efizientzia energetikoa, ekonomia zirkularra, elektrifikazioa eta hidrogeno berdea sustatuko dituzte. "Industria egiten ari da trantsizio hori, serio hartu ditu elektrifikazioa eta deskarbonizazioa; hala ere, sarri, gehien kutsatzen duten teknologia berriak beharko dituzte bide hori aldatzeko", azaldu du EAJko Aitor Urrutiak.

Legea martxan jartzea

Legea bada, eta garatzea eta martxan jartzea falta da orain. "Fiskalitatea egokitzetik, erakuntzan, lurralde plangintzan, garraioan edo beste hainbat ataletan esaten diren politikak garatu behar dira. Horregatik, oso garrantzitsua izango da legearen garapena nork eta nola egiten duen", dio EH Bildutik Rebeka Uberak. Orain aurrerabidea "ahalik eta adostasun maila handienarekin" egitea tokatzen dela dio EAJtik Aitor Urrutiak, eta PSE-EEko Alberto Alonsoren ustez, lan egitea tokatzen da orain. "Jaurlaritzari tokatuko zaio dekretu eta erregelamendu guztia garatzea; eta alderdion, legea herritarrei azaltzea. Gure erantzukizuna da herritarrei lege on baten aurrean gaudela erakustea".

"EZTABAIDA ZINTZOA IZATEA ESKATZEN DUGU INSTALAZIO BERRIZTAGARRI HANDIEN INGURUAN"**"ANBIZIO HANDIAGOA BEHAR LUKE, BAINA BAT DATOR EUROPAKO ETA ESTATUKO HELBURUEKIN"**

REBEKA UBERA
EH BILDUKO
LEGE BILTZARKIDEA

"PLANA ANBIZIO HANDIKOA DA, HELBURUA BERA ERE ERRONKA ERRALDOIA DELAKO"**"TAMAINA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK BEHARKO DIRA HAU GARATZEKO"**

AITOR URRUTIA
EAJ-KO
LEGE BILTZARKIDEA


"ARGI DAGO BERANDU GOAZELA, BAINA EUSKAL GIZARTEAREN KONPROMISOAREN ISLA DA"**"ALDERDION ERANTZUKIZUNA DA LEGE ON BATEN AURREAN GAUDELA AZALTZEA"**

ALBERTO ALONSO
PSE-EE-KO
LEGE BILTZARKIDEA

DEBAGOIENA, CO2 ISURKETETAN GAINETIK

Debagoiena CO2 isurketei dagokien beste lurralde batzuekin alderatzen badugu, gainera dago. Pertsonako 8,53 tona CO2 isurtzen ditu urtean; EAeko batez bestekoa 8,4koa eta Europar Batasuneko, berriz, 7,9koa. Izan ere, Debagoiena industria askoko lurraldea da, eta energia kontsumitzaile handia. Hein handi batean, industriak ahalbidetu du eskualdeko ongizate maila ona. Bestalde, garraioari dagokionez ere kontsumo maila handia duen eskualdea da. Biztanleko 0,52 auto dago eta Gipuzkoako eta EAeko datua biztanleko 0,46 automobil da.

DEBAGOIENDARREN ISURKETEN ALDERAKETA

**KONTSUMO OSOAREN %30 BAKARRIK DA ELEKTRIKOA**

2019ko datuen arabera, garraioaren kontsumo elektrikoa %0 zen Debagoienean; Etxebizitzan, urteko kontsumoaren %37 eragin zuen elektrikoak eta zerbitzuetan eta industrian %45 eta %46, hurrenez hurren. Guztira, kontsumoaren %30 zen elektrikoa. Imaginatuz etorkizun bat non eskualdeko kontsumo energetikoaren %50 elektrikoak izango den –deskarbonizazioaren helburuetako bat elektrifikazioa da–, 15 Elgea edo 74 ur-jauzi edo 905 Ekiola beharko genituzke behar hori asetzeko. Hori, pentsatuz, inolako murrizketarik bako eszenatoki batean.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK DEBAGOIENEAN

Debagoienean ari da zerbait mugitzen berriztagarrien instalazioari dagokionez. Hor dira sortu diren edo sortzen ari diren energia komunitateak, adibidez. Hala ere, gaur-gaurkoz, instalatutako energia berriztagarri kopuruak txikia izaten jarraitzen du. Hain zuzen ere, kontsumo elektriko osoaren %14 da berriztagarrietatik datorrena. Berriztagarrien sorkuntza handiena Elgeako parke eolikoak ematen du –eskualdeko kontsumo elektrikoaren %10–. Ur-jauziak eta biomasa dira gainontzeko energia berriztagarria ematen dutenak.

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE
Trantsizio Energetikoaren Legearen 64. artikulua jasotzen du energia berriztagarriak sustatzeko "lehentasunezko eta presazko" inbertsioak hartuko direla, besteak beste, parke eolikoak berrindartzea aurreikusten duten ekintzak. Trantsizio energetiko horren baitan, Debagoienara etorrira, hiru parke eoliko eraikitzeako proiektuak aurkeztu dituzte hiru enpresak: Aramaion eta Eskoriatzan, Itsaraz; Antzuolan eta Urretxun, Trekutz; eta Leintz Gatzagaren nahiz Arabako Arratzua-Ubarandia, Burgelu eta Barrundia udalerrien artean, Miritxa.

Aramaion eta Antzuolan, esaterako, herri plataformak euren herrietako proiektuen aurka agertu dira, energia berriztagarrien aldeko apustua egin arren, besteak beste, "onurak beste batzuek" direla iritzita; herritarrei, fauna eta florari "kalte egiten" dielako eta "autokontsumoa" gehiago bultzatu behar delako. Herritarrek gaian esku-hartzea izan beharko lukeela ere salatu dute. Udalek eta plataformek alegazioak aurkeztu dizkiete proiektuei, baina Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak dauka azken hitza.

Itsaraz: Aramaio eta Eskoriatza

2022ko irail erdialdean atera zen argitara energia berriztagarrien Europako ekoizle nagusia den Norvegiako Statkraft enpresak

Trantsizio energetikoaren bidean, ibarrean parke eolikoak eraikitzeotan

Hiru enpresak Debagoiengan parke eolikoak egiteko proiektuak aurkeztu dituzte: Itsaraz, Aramaion eta Eskoriatzan; Trekutz, Antzuolan; eta Miritxa, Leintz Gatzagan

Aramaion eta Eskoriatzan eraikitzeako asmoa duen haize-erroten proiektua. 200 metroko zortzi haize-sorgailuko parkea izango litzateke –zazpi haize-errotara Aramaion eta bat Eskoriatzan–, 60,4 megawatteko gaitasuna izango luke eta 44.250 etxe hornituko lituzke. Enpresak 60 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du, eta 2026-2027. urteen bitartean eraikitzea. Orain arte EAEen proiektatu den zentral eoliko handiena izango litzateke Itsarazkoa.

Bi hilabete geroago, 2022ko azaroran, egin zuten batzar irekia

UDALEK ALEGAZIOAK AURKEZTU DIZKIETE PROIEKTUEI, BAINA INGURUMEN SAILAK DAUKA AZKEN HITZA

Aramaion Statkrafteko hiru ordezkariarekin. Bertan, Norvegiako enpresak zituen asmoen berri eman zuen herritarren aurrean; besteak beste, argindarraren faktura murrizteko modelo dela azaldu zuten, eta interesatuak proiektuaren jabetzaren parte izan zitezkeela. Aramaio eta Eskoriatza artean eraikitzearen zergatia ere azaldu zuten: toki aproposa iruditzen zaie. "haizea dabilelako, Euskadin gaur egun ekoizten den energiaren erdia ekoiztuko lukeelako eta ezer ez egiteak ere kalteak izango lituzkeelako, hemendik urrun eta hemen ere".

Bertaratutako herritarrek ere izan zuten aukera galderak egiteko, eta haietako asko desados agertu ziren Norvegiako enpresaren asmoekin. Hori plazaratu zuten batzarrean bertan, baina baita hurrengo hilabeteetan ere

Aramaio Bizirik herri plataformak antolatutako elkarretaratze, hitzaldi eta bestelako ekintzetan ere. Aramaio aurreko agintaldiko nahiz oraingo udal gobernuek ere gauza bera egin dute, aramaioaren iritzia jasotzearekin batera.

Aramaio eta Eskoriatzako udalek alegazioak aurkeztu zituzten 2023ko uztailean, eta Aramaio Bizirik herri plataformak ere Trantsizio Ekologikorako Ministerioari zuzendutako 400 bat alegazio aurkeztu zituen Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztan.

ORAIN ARTE EAE-N PROIEKTATU DEN ZENTRAL EOLIKO HANDIENA IZANGO LITZATEKE ITSARAZKOA

2023ko urrian, Kreaan kooperatibak akordio bat sinatu zuen Statkraftekin, "Euskadin garatzen diren proiektu berriztagarri ingurumen- eta gizarte-zentzua emateko", eta hilabete geroago batzartu ziren bi enprekin Aramaio udalbatzako bi alderdiak eta Aramaio Bizirik taldeko ordezkariak. Han jakinarazi zuten Statkraftek eta Krea hurrengo pausoa izango dela proiektua sozializatzea.

Aramaio udalbatzak Itsaraz proiektuarekiko kezka eta desadostasuna jasotzen dituen *Ez gaude ados* adierazpena onartu zuen azaroko osoko bilkuran, eta 600 bat aramaioarrek babestu zuten adierazpena sinadurakin. Sinadura-bilketaren emaitzak joan den hilean aurkeztu zituzten oraingo eta aurreko udal gobernuek eta Aramaio Bizirik plataformak.

Aramaio Udalak GOIENARI jakinarazi dio egindako alegazioen ondorioz Statkraftetik "proiektu aldatua" bidali zutela: "San Kristobal ermita inguruko dorrea atzera mugituko dute, etxalde batetik gertu. Uste dugu ingurua eta animaliak kaltetuko dituela. Bigarren dorrea 100 metro mugituko dute Legutio aldera. Kruzetatik Legutioarako errepidean lanak egitea proposatu dute, garraioa errazteko. Sekulako txikizkia izango da. Alegazioak egiteko ingeniari teknikoa eta juridikoa kontratatu ditugu, eta 30 egun gehiago

Trantsizio energetikoa industria ikuspuntutik

Fagor Taldeko iraunkortasuneko arduradun Aritz Otxandianoren ustez, berandu dator Trantsizio Energetikoaren Legea, baina "ezinbestekoa" da klima larrialdiari aurre egin ahal izateko: "Iruditzen zait marko ona jartzen duela hurrengo hamarkadetan egin beharreko bidea egin ahal izateko". Legea hazkunde ekonomikoarekin lotuta dagoela dioenik bada, eta, Otxandianoren iritziz, baieztapenak ez du oinarririk Legeak energia kontsumoa murrizteko helburu zehatzak dituen bitartean: "Bizi dugun testuinguru konplexuaren inguruko irakurketa sinplifistegiak egiten dira, eta hortik ez da soluziorik etorriko".

Autokontsumoa vs azpiegitura handiak
Industriak hartu beharreko norabideaz galdetuta, industriak bere jarduerak

birmoldatu behar duela dio, gizarte iraunkor batek behar ez dituen produktuak ordezkatu eta ekonomia eredu lineal batetik zirkularrago batera igarotzeko. Gehitu du "beti" izango dela intentsiboa energia kontsumoa.

Herri plataformek edo ekologistek defendatzen duten puntu bat da autokontsumoarena, baina, Otxandianoren esanetan, industria deskarbonizatzeko eskala ertain eta handiko azpiegiturak behar dira, autokontsumoarekin nahikoa ez dela iritzita.

"Tokiak eta tokiak daude azpiegitura berriztagarriak jartzeko; batzuk egokiagoak dira beste batzuk baino. Zeintzuk diren toki egoki horiek dagokion administrazio publikoak ebatzi beharko du, dagokion prozedura administratiboa zorrotz eta garrantia guztiekin betez", dio Otxandianok.



Aritz Otxandiano. GOIENA

"BERANDU DATORREN LEGEA DA, BAINA EZINBESTEKOA KLIMA LARRIALDIARI AURRE EGITEKO"

Herri plataformak sortu dira euren herrietan egiteko aurkeztu dituzten parke eolikoaren proiektuen kontra. Horren harira, Otxandianok gogorazi du industriatik bizi den eskualdea dela Debagoiena eta debagoiendarraren gehiengoa. Horregatik, kontraesankorra iruditzen zaio industria horrek sortzen duen aberastasunaz herritarrek baliatzea, baina inpaktuen kargu egin nahi ez izatea.

Klima larrialdiak ez dauka soluziorik, Otxandianoren iritziz, lurralde eskala bakoitzak bere energia kontsumoaren eta CO2 isurien inguruko ardurarik hartzen ez badu, eta datuak eman ditu: "Debagoienak ere bere ardurak hartu behar ditu, egun kontsumitzen duen energiaren %90 fosila delako eta kanpotik datorrelako". Horregatik, hori aintzat hartuta, egin beharreko bidea elkarrekin irudikatu eta adostasun zabalak eraikitze ahalegina egin beharra dagoela iritzien dio, "elkarren aurka aritu beharrean".

eskatu. Onartu egin digute, eta 60 eguneko marjina daukagu".

Trekutz, Antzuolan

Hiru proiektuetatik oihartzuna izan zuen lehena Trekutzeko parke eolikoarena izan zen. 2021eko azaroaren amaieran Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-ren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak jakinarazi zuen Trekutz parke eolikia gauzatzeko hasierako administrazio-baimena eskatu zuela Cilda Energyk. 5 megawatteko potentzia unitarioa duten bi aerosorgailu izango lirake: bat Antzuolako lurretan, Meaka inguruan, eta bestea Urretxuko lurretan jartzea, Irimo gainean. Aerosorgailuek 200 metrotik gorako altuera, 22 metroko diametroa eta 4 metroko sakonera izango lukete. Gainera, bi puntuen artean masta bat jarriko lukete, haizearen eta haize-erroten norabidea kontrolatzeko. Parke eolikia egiteko 10.275.900,24 euroko aurrekontua zehaztu dute, eta ebakuazio linearako, berriz, 624.061,40 eurokoa. Proposamenari ezezkoa eman zioten aurreko agintaldian Antzuolako EH Bilduk eta EAJK.

Trekutz parke eolikoaren berri emateko, batzar irekia egin zuen 2023ko urrian Antzuolako Udalak, Cilda Energy enpresarekin batzartu baitzen zenbait aste lehenago. Proiektua gauzatzeko herrian eta ingurunean eragingo lituzkeen kalteak aur-

Eolikoen proiektuak Debagoiengan

ITSARAZ

- Zortzi errota.
- 60,4 MW.
- Statkraft enpresaren kudeaketa.



TREKUTZ

- Bi errota.
- 10 MW.
- Cilda Energy enpresaren kudeaketa.

MIRITXA

- Lau errota.
- 27 MW.
- Grupo Capital Energy enpresaren kudeaketa.

keztu zituen. Han bertan aurreratu zuen Olatz Lezeta alkateak alegazioak jarriko zizkietela proiektuari eta helburua zela Urretxuko Udalarekin elkarlanean lan egitea, aurreko agintaldian moztio bidez onartu ze-

ANTZUOLAN 3.000 SINADURA BILDU DITUZTE TREKUTZEN KONTRA; ARAMAION, 600 ITSARAZEN AURKA

lako alegazioak jarri behar izatekotan bi udalek batera jarriko zituztela. Batzar irekiaren ostean, 2023ko azaro hasieran sortu zen Meaka-Irimo herri plataformak, eta, orduetik, hainbat hitzaldi, batzar ireki eta beste-lako ekintza antolatu dituzte; baita alegazioak aurkeztu ere.

Duela zenbait hilabete, proiektua gauzatzeko ingurumen inpaktu-baimena eskatu zuen Cilda Energy enpresak, eta eskabide hori argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak EAeko Al-

dizkari Ofizialean abenduaren 15ean. Hilabete geroago, Trekutz parke eolikoari egindako alegazio teknikoak aurkeztu zituen Antzuolako Udalak. Horrekin batera, Meaka-Irimo plataformak alegazioen txosten bat ondu zuen,

GATZAGAKO UDALAK EZ DAUKA MIRITXARI BURUZKO "INFORMAZIO BERRIRIK"

herritarrek sina zezaten, eta 3.000 sinadura bildu zituzten Trekutz parke eolikoaren kontra. Olatz Lezetak *Harira* saioan adierazi zuen "akats mordoa" dituela proiektuak, eta ez daukela eolikoaren kontra, baizik eta proiektuaren aurka. Beste aukera batzuen alde egin zuen: "Herrian eolikoak bideragarriak diren ikusi beharko da, eta, hala bada, non ipini behar diren. Energia sortu behar badugu, herriarendako izan dadila; ez beste edonora eramateko".

Miritxa, Gatzagan

2022ko martxoan, Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian Miritxa izeneko parke eoliko berri baterako administrazio-baimena eskatu zuten. Parke eolikia Marietaren gainean kokatuko litzateke, Arabako Arratzua-Ubarrundia, Burgelu eta Barrundia udalerrien eta Gatzaga artean. Sei aerosorgailu jartzeko asmoa zuten -27 megawatteko potentzia izango lukete-. Hala ere, asmo berria lau jartzea dela adierazi zuten Grupo Capital Energykoek.

2023ko urtarrilean izapidetzen ari ziren proiektu berriztagarrien gaineko zerrenda aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta bertan agertzen zen Miritxako proiektua. Gatzagako Udalak GOIENARI jakinarazi dio orduetik ez direla jarri eurekin harremanetan eta ez dutela proiektuari buruzko "informazio berririk".

Herri plataformak, beste bide batzuk lehenesten trantsizio energetikorako

Antzuolako Meaka-Irimo eta Aramaio Aramaixo Bizirik herri plataformak euren herrietan egiteko aurkeztu dituzten Trekutz eta Itsaraz proiektuen aurka agertu dira. Antzuolarendako gai "oso garrantzitsua" da trantsizio energetikoarena, eta helburu nagusizat dute herri eta herriarendako egiteko herritarren behar energetikoak betez nahiz natura errespetatuz: "Uste dugu kontsumoa asko jaitsi beharko genukeela, politika publikoak horretara bideratuz. Autokontsumoa askoz gehiago bultzatu behar da, lehendik urbanizatuta ditugun guneak aprobetxatuz. Gero eta garbiago dago geratzen zaizkigun landa lurrik bereziki babestu beharko ditugula; ezin dugu jarraitu janaria milaka

kilometrotatik ekartzen". Uste dute proiektu handietan sartu beharko luketela, aurreko bi bideak "ondo landu" eta energia gehiagoren beharra badute; betiere, modu planifikatuan, parte-hartzearekin eta natura errespetatuta: "Industria eta garraioa energia kontsumitzaile handienak dira, eta aipatu ditugun irizpideetan oinarritu beharko du konponbideak. Krisi klimatiko eta energetikoarekin, gizarte bezala, sekulako erronkak ditugu aurrean, eta hobe dugu berandu baino lehen modu serioan hartzen baditugu".

ARAMAION ETA ANTZUOLAN ERAIKI NAHI DITUZTEN PROIEKTUEN KONTRAKO PLATAFORMAK SORTU DIRA



Aramaioko aurreko eta oraingo udal gobernua eta Aramaixo Bizirik plataformako kideak. GOIENA

Beste bide bat aurkitzearen alde

Aramaio Bizirik plataformakoen hitzetan, klima aldaketa eragozteko da egin beharrekoa trantsizio energetikoa baino gehiago: "Trantsizio energetikoa kapitalistek era oso okerrean martxan jarri duten negozioa da; klima aldaketa

eragozteko bide bakarra dela adierazi dute". Gehitu dute inguruko mendiak hondatu, natura eta hegaztiak arriskuan jarri, mendiak industrializatu eta "trantsizio energetikoan inongo eraginik izango ez duen" instalazio bat dela Itsaraz: "Horrek ez du klima aldaketa eragozten".



Asmoz-eko Nora Alvarez de Eulate eta Goenaga Esnekiak-eko Arantxa Goenaga, Bergarako Irizar jauregiko aurkezpenean. H.L.

Jogurten eragina menopausian aztergai

A2A2 proteinadun jogurtek 45 eta 55 urte arteko emakumeen osasun eta digestioan ze onura ekar dezaketen jakiteko asmoz, proba pilotu bat abiatzear dira Gipuzkoan esnekietara, nutriziora eta jakintzaren transmisiora dedikatzen diren hainbat eragile

Hasier Larrea Herrero DEBAGOIENA

Orain arte gutxi ikertu den gai bati heldu diote, elkarlanean, Gaztaren Institutuak, Glucovives *start-app*-ak, Asmoz fundazioak eta Goenaga Esnekiak enpresak, Aldundiaren *Etorbizuna eraikiz* inizatibaren baitan. Zehazki, perimenopausia eta menopausia aldien inguruan elikadurak duen eragina aztertuko dute, abiapuntu edo oinarri bat ezarri guran. Proiektuari YoGOE4Life izena ipini diote, ekainera arte iraungo du eta eskualdez eskualde aurkezten dabilta orain.

Asteartean izan ziren Debagoien mailakoa egiten, Bergaran, Irizar jauregian. Bailarako hainbat nutrizionistaren aurrean egin zuten berba Asmozeko Nora Alvarez de Eulatek eta Goenaga Esnekietako Arantxa Goenagak. Honela laburtu zuten zertan datzan egitasmoa: "A2A2 proteina duen jogurta egunero kontsumitzeak perimenopausiari lotutako ondorioetan duen eragina ulertzea nahi dugu, hainbat

faktoreren jarraipena eginda. A1 proteinak ez bezala, A2k ez ditu hesteak puzten, eta jakinda menopausia fasean hormona-aldaketek ahultasuna sortzen dutela, oso beharrezkoa da proteinak kontsumitzea".

Hala, 45 eta 55 urte arteko 30 emakume ingururekin hasierako esperientzia bat eramango dute aurrera. Parte hartzeko interesa dutenek Asmoz fundazioa deitu dezakete. Hurrengo pausoa norbere datu medikuak modu konfidentzian ematea izango litzateke, "komeni delako osasun egoera onean daudenak eta kontsumo ohitura osasuntsuak dituztenak aukeratzea".

Hautatuekin zalantzak argitzeko jardunaldi bat egingo dute,

HAUXE DIO GOENAGAK: "ASKOK ESAN DIGUTE A2A2 DUTEN JOGURTEK ON EGITEN DIETELA"

eta apirilean, bi aste epean, jogurt bana jango dute egunero, aurretik eta ondoren bina orduko baraualdia eginda. Era berean, Glucovivesen bio-sentsore bat jarriko dute besoan, diabetikoek erabiltzen dutenaren antzekoa, "gluzemiaren bilakaera zein den jakiteko asmoz". Emaitzekin txosten bananduak egingo dituzte eta bakoitzari berea banatu, nutrizio-irizpideekin. Anonimotasuna babestuta, Aldundira ere bidaliko dituzte txostenak, eragileen esku jarri eta difusioa egiteko.

Produktu osasuntsuen alde

Proiektuak "hormona aldaketek pisu-igoera eragin dezaketela gizarteratzea" bilatzen du, eta beste asmo bat ere bada Gipuzkoan kalitatezko lehen sektorea bultzatzea. "Askok esan digute A2A2 duten gure jogurtek on egiten dietela; gero eta ekoizle gehiago dago bide hori hartu guran, baina inbertsioa behar da", dio Goenagak.

222,7 milioi euroko irabaziak lortu zituen iaz Laboral Kutxak

Igoera nabarmenak izan ditu negozio-eremu nagusietan Mondragoneko kreditu-kooperatibak 2023an zehar

H.L.H. DEBAGOIENA

Laboral Kutxak 2023ko ekitaldiaren balorazio ekonomikoa egin du asteon. Testuinguruan kokatuz, 2022ko uztailetik inflazio-tasak hamar aldiz igo dira, Europako Banku Zentralak %4,5ean kokatu du finantzaketa-eragiketa nagusien interes-tasa, eta horrela jarraitzen du joan den irailetik, inflazio-mailak %2 ingurura noiz itzuliko zain. Finantzaketa politika horri eta 2023ko bultzada komertzialari egotzen diote Laboral Kutxako arduradunek "igoera nabarmenak" lortu izana euren negozio-eremu nagusietan: bai familiei eta enpresei emandako kredituen atalean, bai aurreziaren atalean.

Kaudimena, gora

Bankuaren zerga aurreko emaitza bateratuak 257,27 milioi eurokoak izan dira. Zergetan ordaindutako 34,53 milioiak kontabilizatu ondoren, 2023ko irabazi garbi bateratua %47,99 handitu da, 222,73 milioi euro-raino, kooperatibaren gizar-te-ekintzaren funtsetara zuzkidura egin aurretik.

Horrekin batera, hobetu egin du likidezia-egoera ere; hain zuzen ere, %66,28koa da, LTD (Loans to Deposits) ratioaren arabera. Bestalde, entitateak kreditu-kalitate "bikainari" eusten dio; izan ere, zalantzagarritasun-tasa egonkorra du, %2,70ekoa, "eta ez da inolako narriadura-zantzurik nabaritzen".

Laboral Kutxak kudeatutako bezeroen baliabideak 29.205 milioi eurokoak izan dira urtearen amaieran, eta 769 milioi euro handitu dira 2023ko ekitaldian: %2,71. Geroago eta bezero gehiagok erabakitzen dute aurrezki zati bat inbertsio-funtsetara bideratzea; izan ere, %35,73ra iritsi da ondarearen hazkundera. Erretirorako aurrezteko produktuek ERE %9,10eko hazkundera izan dute.

Gainera, gizar-te-ekonomiaren, ekintzaileen eta mikro ETE-en garapena bultzatzeko, Europako Inbertsio Funtzarekin elkarlanean 145 milioi euro bideratu zituen.

Aseguruak eta digitalizazioa

Aseguruen negozioak 39,4 milioi euroko emaitza arrunt orokorrak lortu ditu 2023an, 2022an baino %11 gehiago. Bizitzakoak ez diren aseguruaren ataleko primak 134,8 milioi eurokoak izan dira, bizitza-aseguruen ataleko primak 59,2 milioiokoak, eta arrisku indibidualko bizitza-asegurukoak 38,8 milioiokoak. Auto eta etxe-aseguruetan, aipatzekoa da 2023an gertaera klimatologiko kaltegarriengatik -kazkabarra, eta abar- 6.000 pertsonari baino gehiagori ondasunak konpondu edo kalte-ordainak ordaindu zaizkiela.

Laboral Kutxako bezeroen %60k baino gehiagok profil digitala dute, eta ia %40k nahiago dute bulegoko kudeatzailearekin harreman digitala izan.

Grebara deitu dituzte sindikatuek Aspaceko langileak

Aspace Gipuzkoako eguneko zentroetako eta hezkuntza zerbizuko langileak greba eta protestekin hasiko dira datorren astean. ELAk eta CCOOk deitu dute greba, eta, sindikatuetatik adierazi dutenez, 169 langileri eragiten die. Besteak beste, lan baldintzak hobetzea eta KPIa bermatzea eskatzen diote zuzendaritzari. Otsailaren 29, martxoaren

ren 14, apirilaren 11 eta maiatzaren 8rako iragarri dituzte grebak. Erosahalmena mantentzetik haratago, "lana eta bizitza kontziliatzea ahalbidetuko dituzten neurriak, hobekuntza sozialak eta enpresa beraren antolaketa eta funtzionamendua hobetzea" eskatzen dute.

Debagoiengan, Arrasaten, Bergaran eta Eskoriatzan ditu zentroak Aspacek. Hain zuzen, garun paralisia eta antzeko asaldurak dituzten pertsonen gizarteratzea du helburu.

"Egoera zailen irtenbide" dira harrera-familiak

344 haur eta nerabe daude Gipuzkoako Foru Aldundiaren harrera-familiaren programan; horietatik 23, Debagoiengan. 60 daude oraindik familia baten beharrean. Jose Mari Lezana Familia Harrera eta Adopzioko atalburuak eman ditu azalpenak

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Hiru hamarkadatik gora ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren harrera-familiaren programak, eta Gipuzkoan finkatuta dagoen babes-figura bilakatu da denbora horretan. Lurrean babes-gabetasun egoeran dauden haurrei laguntza emateko sortutako programa da eta urtetik urtera geroz eta familia gehiagok erakusten dute interesa; dena dela, oraindik familien beharra izaten jarraitzen du.

Datuei erreparatu, lurrean 344 haur eta gazte daude harrera-familiatan banatuta. Horietatik guztietatik 23 daude Debagoiengan: zazpi Oñatin, sei Arrasaten, bost Bergaran, lau Aretxabaletan eta bat Antzuolan; hogeitau bat familietan daude banatuta haurrak eta gazteak.

Familia asko dira programan parte hartzen ari direnak, baina gaur egun, oraindik, 60 haur eta nerabe daude harrera-familia baten beharrean; 40 edo 45 familia behar dituzte haienentzat. Jose Mari Lezana Foru Aldundiko Familia Harrera eta Adopzioko atalburua da, eta familia asko dauden arren premia beti dagoela dio: "Beti gaude beharrean. Egoera zailen dauden haur eta gazteak heltzen zaizkigu ia egunero, eta horri irtenbidea eman behar diogu. Iristen direnean kasu bakoitza aztertzen dugu, eta adinean gazteenak direnei, lehenik eta behin, beste familia batera joateko aukera ematen diegu, zuzenean zentro batean sartu aurretik". Lezanak gaineratu du urte osoan zehar daudela "kanpainan".

Mitoak apurtzeko beharra

Harrera-familiaren beharra izateko arrazoietakoa bat izaten da horren inguruan jendeak izan ditzakeen uste okerrak, eta, hain zuzen, Lezanak dio "mito" horiek apurtzeko beharra dagoela: "Jendeak ez daki haur eta gazte ho-

riei zer gertatu zaien edo zein egoeratan dauden; ezjakintasun handia dago gaiaren inguruan. Gainera, uste okerren artean, ohikoak dira haur hori gero kendu egingo dizutela; haur horiek arazo asko ematen dituztela; edo jatorrizko familiek arazoak emango dituztela. Hori ez da horrela".

Mito horiek apurtu eta ezjakintasun hori amaitzeko, hileroko saio informatiboak egiten dituzte, egun harrera-familiaren egoera zein den azaltzeko, betebeharrak zeintzuk diren azaltzeko eta aurrera eraman beharreko prozesua zein den adierazteko. Esaterako, atzo, Arrasateko Kulturaren egun zuten gaiaren inguruko hitzaldi bat, eta harrera-familiak erakartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak zineforum bat antolatu, du harrera-familiak ikusarazteko eta familia berriak erakartzeko, 24 siete film laburraren proiektioarekin. Emanaldiak Donostian eta Arrasaten egingo dira.

Bete beharreko baldintzak

Harrera-familia izateko pausoa ematen dutenei ez zaie baldintza berezirik eskatzen; hau da, berdin dio bikotean, familian edo bakarka egiten den eskaera. Badira, ordea, bete beharreko batzuk: "Baldintza berezirik ez dugu eskatzen. Saio informatiboak egin ostean edo zuzenean gurekin kontaktuan jartzen diren eta interesa duten familiek formakuntza bat egin beharra dute, lehenik. Ondoren, inprimakiak bete eta elkarrizketa bat egiten zaie. Aurrera jarraitzea erabakiz gero, azterketa

psikotekniko bat pasatu behar dute. Datu horiek bildutakoan erabakitzen dugu ze haur egokitzen den hobeto familia bakoitzera. Dena dela, baldintzak aldatu egin daitezke egiten den eskariaren arabera. Funtsezkoa da, berriz, familia osoa ados egotea eskaera egiteko orduan: hau da, haurrei jakinarazi, eta ados egon behar dute, eta erabakian parte hartu beharra dute", dio Lezanak.

Harrera-familia izatera pasatzen direnean, haur edo gaztearen beharrei erantzuteko laguntza "ekonomikoa" ematen dutela azpimarratu du Foru Aldundiko Familia Harrera eta Adopzioko



Jose Mari Lezana da harrera-familiaren programaren atalburua. IÑIGO BARRENA

atalburuak. Interesa duenak bide ditu kontaktuan jartzeko: 943-11 25 22 telefono-zenbakira deituta edo familiaharrera@gipuzkoa.eus helbidera idatzita.

Datuak mantendu egiten dira

Urtetik urtera familien beharra izaten dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren harrera-familiaren programan, baina Lezanak aitortu du "zorionez edo zoritxa-

rrez" datuak "mantendu" egiten direla Gipuzkoan eta Debagoiengan. Dena dela, izan dituzte salbuespen uneak. "Ukrainako gerra hasi zenean, familia askok izan zuten interesa gerratik iristen ziren haurrak hartzeko. Orduan goia jo genuen, baina salbuespeneko egoera izan zen. Bestela, datuak antzekoak izaten dira urtetik urtera", dio Jose Mari Lezanak.



DEBAGOIENEN PROFESIONAL LIBERALAK



<h3 style="margin: 0;">ABOKATUAK</h3> <p>BERNARDINO MAIZTEGI BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>BEGOÑA LASAGABASTER ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A Tel.: 943 79 98 86 blasaga@icagi.net</p> <p>RAFAEL ARANBURU BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <h3 style="margin: 0;">ARKITEKTOAK</h3> <p>BIARK ARKITEKTOAK ARRASATE Usaetxe plaza 1, behea Tel.: 943 79 80 33 www.biark.net</p>	<h3 style="margin: 0;">AHOLKULARITZAK</h3> <p>ANDRA MARI AHOLKULARITZA ARETXABALETA Araba ibilbidea 20, behea Tel./Faxa: 943 79 29 26 andrama@arrakis.es</p> <h3 style="margin: 0;">ETXE ADMINISTRAZIOAK</h3> <p>URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK ARRASATE Pablo Uranga 3, behea Tel.: 943 79 51 25 uribesalgo@uribesalgo.es</p>
--	--

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



ZABALIK

URTZI AMIANO SALTERAIN

Atezaina

Mugikorrek *txio* batek piztu zidan berriz ere nire barnean atezain sena. Hara! Gure eskulturagile famatuena edo onena ere bere gaztaroan atezaina izan zen; Realeko atezaina, hain zuzen. Espazioa –beste askok ez bezala– ikusteko, mugatzeko eta besarkatzeko gaitasuna ere bazeukan Txillida handiak. Goian bego.

Azken batean, atezaina espazio baten zaindaria da; kasu honetan, ate batena. Sinpleki esanda, erraza dirudi. Baina ez:

Ezberdin janzten zaren bakarra zara, eta eskularruak ere behar dituzu; hori horrela, beste jokalariek baino gastu handiagoak dituzu.

Ikusle guztiek nahi duten golaren frustratzailea zara.

Lurrean arrastaka ibiliko zara, ukondokadak jasoko dituzu, kolpeak non-nahi.

Helburu nagusia baloia ate barrura ez sartzea da; horretarako, baloiek gorputzeko edozein ataletan talka egingo du. Askotan, bortizki.

Akats bat egitean, zure atzean ez da inor egongo laguntzeko. Guztia patatekin jan beharra izango duzu.

Denen ahotan egongo zara; gehienetan, okerrerrako. Hau da, kritikak entzuteko prest egon.

Askotan, atezain guztiek ero puntua dutela ere entzun beharko duzu.

Zure gurasoek beste gurasoak baino gehiago sufrutuko dute: futbol-zelaian kritikak entzun beharko dituzte; etxean garbigailuarekin badaukate lana –eskerrik asko, ama–.

Atezain bat ulertuko duen pertsona bakarra dago: beste atezain bat. Eta zinez diot atezain batek beste atezain bati eginiko laudorioa benetako ohorea dela.

Hori guztiori esanda, nork nahiko luke atezain izan? Bada, Antton Telleriak *Nekatutak* bakarriketan zioen: "Egin zaitez ertezain!". Nik: "Egin zaitez atezain!".

Atezain izan garen, zareten edo izango zareten guztioi zorionak!

Errepikaezinak, bereziak

eta bakarrak baikara.

Beti izango gara atezain.

A... eta gogoratu San Pedro ere atezaina dela edo izan litekeela. Ai, ama... Julio Iglesias ere atezain izanikoa da.

BALOIAK GORPUTZKO EDOZEIN ATALETAN TALKA EGINGO DU; ASKOTAN, BORTIZKI

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Hil ere bai

NEREA LOIOLA 'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/FZLQK](https://labur.eus/fzLQK)

Hiru Eroski eta bi BM geneuzkan orain arte herrian, Carrefour Express txiki bat ere bai. Lidl eta Mercadona eraikiko dizkigute laster. Produktu eskaintza zabalagoa izango dugula aditu diet batzuei, supermerkatuen arteko lehiak prezioetan egingo digula mesede.

Telepizza bat badaukagu eta, zenbait herri sarreratan bezala, bi solairuko Burger Kinginik zabaldu ez badigute ere –momentuz–, Glovok ekartzen digu hanburgesa etxera. Klik bakar batera

burrito, pizza, sushi eta pasta platerak. Mugikorrek erosteko PhoneHouse, bidaiatzeko Falcon eta El Corte Ingles –lehenengo bidai agentzia txikiak irentsi dituztenak–; eta bestela, lasai, Bookingek jarriko dizkizu lo lekuak aukeran. Igual laster saldu beharko dute herriko paper denda bakarria Donpisetik eta Copicopy jarriko da bertan. Liburu denda bakarria geratzen zaigu herrian: literaturaren etxe hau bihurtuko dute inoiz Casa Del Libro? Idealista atarian biltzen da gure idealismo hipotekario guztia. ZARAZ janzten gara denboraren erdian, inauteriak pasa berri dira, baina, Decathlonez

mozorrotuta jarraitzen dugu beste erdian. Nekatuta zaudela? Jarri Rituals... bat zure bizitzan: masajerako olio lasaigarri apur bat lurrin-ontzi batean, kozinatu bitartean azala lasaitu eta hidratatzeko. Spotifyk jarriko dizu musika Google Home bozgorailuetatik. Gauean ez galdu denborarik telebista kate batetik bestera aukeratzen, Netflixek esango dizu zer ikusi, Disneyk jarriko dizu plusa.

Mundu ia guztian berdin jaten amaitu dugu, berdin janzten, oporretan leku berak *deskubritzen*. Denok bizi gara berdin. Baita hil ere. Frankiziak hilkutzak ere jartzen hasi zaizkigunetik.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

Julen Murua Mesonero ARRASATE Iazko azaroan argitaratu zuen Kristina Berasain (Lizarra, 1973) kazetariak *Sahara, herri bat erresistentzian* liburua, eta, horren harira, martitzenean Kulturaten liburuaren eta bertako egoeraren gaineko hitzaldia egin zuen. 2024ko prentsako Argia sariaren irabazlea ere izan da Berasain liburuari esker.

Oso urruti bizi dugu Euskal Herrian hango egoera?

Liburua Euskal Herriatik dago idatzita, hemengo ikuspegitik, eta oso agerian gelditzen da Euskal Herriak eta Saharak badituztela gauzak amankomunean. Agerikoa da Sahara, nahiz eta ahaztutako eta isilarazitako herri bat den, euskaldunok arretaz begiratzen dugun herria dela. Han gertatzen denari, behintzat, beste toki batzuetan baino arreta handiagoarekin begiratzen diogu.

Zenbaterainoko ezjakintasuna dago gai horren inguruan?

Ezjakintasuna oso handia da, eta bereziki deigarria da, jakinda Mendebaldeko Sahara Espainiako kolonia izan zela. Nik uste dut erantzukizun handia dugula, eta ezjakintasun horrek arreta ematen du. Azken batean, sahararren gaur egungo egoera Espainiak egin zuen traizioarekin lotuta dago. Mendebaldeko Saharako historia traizioz betetako historia da, eta gaur egungo egoera duela ia 50 urte Madril sinatu zen hiruko akordio haren emaitza da.

Mendebaldeak ahaztu egin du sahar herria?

Ez bakarrik sahar herria; tamalez, herri asko daude munduan ahaztuta. Beti esaten dut axolagabekeriara eta ahanzturara kondenatutako herriak eta gatazkak direla. Egun hauetan Kongon sekulako sarraskia gertatzen ari da, eta hemengo komunikabideetan ez da ezer aipatzen ari horri buruz. Tamalez, horrelako gatazka ahaztu asko daude, ez dira sahararrak bakarrik; baliteke sahararena gertuago bizi izatea, baina arreta jarri eta zerbait egin beharko genuke gatazka guztiak.

"Saharako historia traizioz betetako historia bat da"

KRISTINA BERASAIN KAZETARIA



Kristina Berasain, *Sahara, herri bat erresistentzian* liburuarekin. J.M.M.

Gatazka huts batetik harago doan kontua da.

Gatazka politiko bat da, eta irtenbideak ere politikoa izan beharko luke. Gatazka horretaz hitz egiten dugunean, baliabide naturalez ere hitz egin beharko

genuke. Mendebaldeko Sahara oso lurralde oparoa da, oso lurralde aberatsa; baditu, adibidez, munduko fosfatomina handienak, aire zabalean. Horrez gain, bestelako baliabideak ere badaude: urrea,

petrolio eta harribitxiak. Gatazka horren oinarrian hori dago; herrialde batek beste bat okupatzen duenean, bertako baliabideak bereganatu nahi ditu, eta politikariek hori baimentzen dute, interes ekonomikoak zintzotasun politikoaren eta giza eskubideen gainetik egoten direlako.

Palestinaren exodoak (Nakba) segitzen du?

Gervasio Sanchez kazetariak esaten zuen gerrak ez direla bukatzen Wikipedian jartzen duenean. Gerra guztiak dituzte ondorio luzeak eta urteetan arrastoak uzten dituzte pertsonengan. Ez dugu ahaztu behar Saharan gaur egun gerran daudela; 2020ko azarotik Maroko eta Fronte Polisarioa gerran daude. Intentsitate apaleko gerra bat dela esaten da, baina, gerra guztietan bezala, hildakoak daude. Nabarmendu nahiko nuke Maroko, Israeli erosten dizkion droneen bidez, lurralde liberatuetan bonbardaketak egiten ari dela, harresiaren hegoaldean. Lurralde liberatuetan bizi ziren sahararrak arrisku handian daude, hildako dezente egon dira eta, nolabait, bigarren Nakba bat gertatzen ari da.

Bertakoen testigantzak jasotzen dituzu liburuan; horiek dira lanaren indargune nagusiak?

Kazetaritzak, neurri handi batean, konpromisoa behar du, eta eskatzen du zintzotasuna eta entzuteko ariketa egitea. Saharar herriarekin 20 urte daramatzat kateatuta, nolabait esateko, eta 20 urte hauetan elkarrizketatu ditudan sahararrak daude jasota liburuan. Testigantza eta kontakizunaz betetako liburu bat da eta Saharako historia sahararren istorioen bidez

kontatu nahi izan dut. Garrantzitsua da eurei ahotsa ematea; inork baino hobeto dakite zein egoeratan bizi diren. Saharar batekin hitz egitea liburu bat irekitzea bezala da, eta horregatik nahi izan dut haien ahotsak jasotzea. **Nola bizi izan zenuen hango egoera?**

Nabarmendu nahiko nuke Mendebaldeko Saharan lurralde okupatu batzuetan sartzea kazetari batentzat ia ezinezkoa dela. Ni, lehenengo aldian, 2005ean, kanporatu egin ninduten, eta, ni bezala, beste dozenaka kazetari ere bai. Marokok ez du nahi errepresioaren lekukorik, eta Mendebaldeko Sahara, kazetariontzat, zulo beltz bat dela esan nahiko nuke. Ez dugu ahaztu behar lurralde okupatuetan bizi diren sahararrak errepresio jazarpen etengabe bizi direla eta Saharako kulturaren eta identitatearen sinbolo guztiak debekatuta daudela. Hala ere, giza eskubideen ekintzaileak eta han bizi diren sahararrak kalera ateratzen dira, nahiz eta kolpatu, torturatu edo kartzelatu egiten dituzten; jarraitzen dute euren borrokarekin, eta, horregatik, liburu horren izenburua da *Herri bat erresistentzian*.

2024ko Argia saria urte askoko lanaren saria izan da?

Urte askoan nazioarteko sailean aritu naiz lanean, eta ibilbide bat aitortu dutela esango nuke. Munduari begiratzeko modu bat aitortu dute. Joera izan dut gatazka ahaztuei begiratzeko, eta nik uste dut Argia sariak hori aitortu duela.

"SAHARAKO PERTSONA BATEKIN HITZ EGITEA LIBURU BAT IREKITZEA BEZALA DA"

"EUSKAL HERRIAK ETA SAHARAKO HERRIAK HAINBAT KONTU DITUZTE AMANKOMUNEAN"



Maidor Morras alkatea, azalpenak ematen, Kulturaren egindako aurkezpenean. TXOMIN MADINA

Agintaldiko bide-orria zehaztuta du Gobernuak

'2023-2027 Gobernu Plana' aurkeztu du Udal Gobernuak, 70 proiektu baino gehiago jasotzen dituen txostena; agintaldiko lau urteetan egin gura dituzten proiektuak dira, 'Guztion Arrasate' izenburupean, lau ildo estrategiko nagusitan oinarrituta daudenak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko Udal Gobernuak datozen lau urteetarako prestatu duen plana aurkeztu du asteon, bai erdigunean eta baita hainbat auzotan ere. Agintaldiko bide-orria izango den plana dela adierazi du Maidor Morras alkateak: "Programan jasotako proiektuez gain, herritarrengandik jasotako ekarpenak ere txer-

tatu ditugu txostenean. Funtsean, dokumentuak azaltzen duena da zer egin behar den, nola, zeinek eta noizko".

70 proiektutik gora jasotzen ditu planak, lau ildo estrategikotan banatuta: herritarrak, gertuko gobernantza, obrak eta zerbitzuak eta zaintza. Hala ere, badaude sail bati baino gehiagori eragiten dieten proiektuak:

"Adibide bat Emakume Txokoaren lekualdaketa da; izan ere, Feminismoa eta LGTBI+ Sailetik dator, baina obra bat behar du. Gauza bera gertatzen da kirol azpiegitura berriekin ere".

Herritarrengandik gertu Hurbileko gobernantza eredu lortzeko proiektuen artean kokatu ditu Morrarak auzoetan

martxan jarriko dituztenak: "Auzo-batzordeak eta auzo-alkatetzak aktibatuko ditugu, parte-hartzerako tresna bilakatzeko". Hala, auzoetako beharren mapa eta auzoetako topaguneak egiteko asmoa iragarri du, "auzo-alkatetzak, auzo-elkarte, jai batzorde eta askotariko eragileekin osatutako elkarlan mahaiak martxan jarritz".

Hirigintza "jasangarria"

Halaber, "jasangarria, irisgarria eta bizitzeko eroso" den hirigintza eredu defendatu du Kepa Urteagak, Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotziak. Horren baitan, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra goitik behera berrikusiko dutela azaldu du, eta berrikuspen horrekin lotu du Mugikortasun Plana berritzea ere. Epeei dagokionez, Mugikortasun Plana aurten egingo dute, eta, besteak beste, honako hauek jasoko ditu: herribusaren lineak berrikustea, autobus geltoki berriaren kokapena definitzea, bidegorri sarea osatzen joatea eta hirigintza taktikoaren erabilera sustatzea.

Era berean, hileta zibiletarako "leku duin bat" egokitzea aurreikusten dute, hainbat gune berriz urbanizatzeaz gain: Santa Teresa, Jose Luis Iñarra, Takolo-Goiru eta San Adresko Gudarien plaza.

"Oinarri komunitarioa" ardatz

Feminismoa eta LGTBI+ Sailak, orain arteko Berdintasun Saila barnebiltzeaz gain, LGTBI+ politikak batuko ditu. Berdintasun politikari dagokionez, esaterako, 2026rako, Emakume Txokotik Etxe Feminista berri pasatzea da Udal Gobernuaren asmoa, baita Berdintasun Kontseilu Herritarra sortzea

eta Udal barruko I. Berdintasun Plana egitea ere.

Hezkuntza arloan, Udal Eskola Kontseilua sortzea, Arrasateko Hezi proiektua berreskuratzea eta Monterron jauregi-parkea hezkuntzara bideratzea izango dira proiektuetako batzuk.

Lehenengo, Iturripe

Bestalde, Kirol Herriaren proiektua garatuko dute: "Kirol azpiegituez gain, naturguneak eta herriko mugikortasun eredu aktiboak sustatuko dituen proiektua". Kiroldegiei dagokionez, berrituko duten lehena Iturripekoa izango da. Dagoeneko proiektuan lanean dabiltza, eta 2027an amaitzea aurreikusten dute, obrak 2025ean hasita. Ostean etorriko da Musakolokoa: "Proiektua 2026an idatziko du Udalak, eta, bitartean, berritzea eta mantentze-lanak egingo ditugu inguruan, eraikinean eta atletismo pistan, esaterako".

Kultura arloan, herriko mapa

Kultura arloan, Arrasateko Kultur Azpiegituren Mapa osatuko duela iragarri du Gobernuak, eta, arlo horretan, 2025-2026 urteen artean Amaia antzokiaren eraberritzea aurreikusi du. Euskarari dagokionez, Euskararen Plan Integrala egin eta euskararen udal ordenantza onartzea aurreikusten dute 2025erako.

Udal webgunean ikusgai jarri dute dokumentua, eta herritarren ekarpenak jasotzeko prest azaldu du Gobernuak.

HERRITARRAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK, ZAINZA ETA GERTUKO GOBERNANTZA DIRA LAU ILDO NAGUSIAK

Gudarien plaza urbanizatzeko galdetegia martxan jarri dute

Jada 'arrasate.eus' webgunean dagoen galdetegia martxoaren 7ra arte bete ahal izango dute herritarrek

E.A.B. ARRASATE

San Andresko Gudarien plaza berri urbanizatzeko proiektua lantzen ari da Udal Gobernuak, eta, horretarako, galdetegi bat jarri dute herritarren eskura. "Hor, plazaren erabileraren in-

guruko nahi eta beharrak identifikatzea eskatuko zaie bizilagunei", azaldu du Garazi Etxebarriak, Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasun Saileko zinegotziak. "Bi bloke nagusitan banatuko dira galde-

rak: batetik, lehenesten diren erabilera xehetasunen ingurukoak; eta bestetik, hiru plaza ereduren artean aukeratzea".

Bizilagunek lehenetsi behar dute zein plaza eredu nahi duten: aparkalekuak dituen, plaza erakoa berdegune batzuekin edo parke itxura daukana. "Hiru aukerak infografia batekin lagunduta datoz, ereduaren gerturatzeko bat izateko. Infografia horiek simulazio bat besterik ez da, proiektua idazterakoan definituko baita plazaren izaera".

Galdetegia, esan moduan, *arrasate.eus* atarian erantzun daiteke. Halaber, Gudarien plazako bizilagunek galdetegi fisikoa ere jasoko dute etxeetako buzoietan, eskuz bete eta plazako farmazian jarritako postontzian entregatu ahal izateko (Araba etorbidea 14). Horretarako epea martxoaren 7ra egongo da irekita. Jasoko diren erantzunak aztertu ondoren, beste saio presentzial bat egitea aurreikusten du Gobernuak, galdetegiaren ondorioak bizilagunei azaltzeko.

'Harira' saioan izango da Maidor Morras alkatea hilaren 1ean

Maidor Morras alkatea Goiena telebistaren *Harira* saioan izango da martxoaren 1ean, egubakoitza (18:30, 20:30 eta 22:30). Herriko gaiei buruzko galderak erantzun dituzte. Herritarrek ere galderak egin ditzakete, martitzena baino lehen bidalita. Posta elektronikoz: *berriak@goiena.eus*; edo Whatsapp zein Telegram bidez: 688 69 00 07.

Beherapenak, denboraldi berriko primizia eta guzti

Ibai-arte merkatarien elkarrekin antolatuta, atzo abiatu zuten udazkeneko eta neguko denboraldiko produktuen Merkemerkaia, eta bihar arte iraungo du; modu berean, denboraldi berriko primiziak kalera aterako dituztela aurreratu dute hainbat saltokik

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Iritsi da Merkemerkaia, eta, atzo ezker, Ibai-arte 25 saltokik beherapenak dituzte euren produktuetan. "Parte hartzen dugun saltokiok kalera aterako ditugu gure jantziak, eta, aldi berean, udaberri honetarako datozen nobedadeak ikusteko aukera izango duzue, askok denboraldi berriko primiziak baitauzkagu barruan", nabarmendu dute merkatariak.

Honako saltoki hauek ari dira parte hartzen Merkemerkaian: BC (Maalako Errabala 13); Bea Lentzeria (Iturriotz kalea 4); Begia Optika (Garibai etorbidea 6); Beinke (Olarate kalea 29); Elkar (Erdiko kalea 14); Ennea (Erdiko kalea 42); Errekamendi (Olarate kalea 21); Garraxi (Zarugalde 10); Intersport Loramendi (Maiatzaren Bata plaza); Intersport Loramendi (Garibai etorbidea 6); Itxaso Mertzzeria (Olarate kalea 18); Josle (Otalora Lizentziaduna 22); Kapikua (Doctor Bañez kalea 4); Kili-kolo (Ferrerias kalea 21); Lizarralde Kirolak (Maiatzaren Bata plaza); Luko (Erdiko kalea 32); Maitia (Erdiko kalea 46); Markiegi (Olarate kalea 2); Portaloi Optika (Erdiko kale 10); Resusta Karrikiri (Erdiko kalea 38); Sikol (Olarate kalea 1); Tipi-Tapa (Ota-



Erosle bat, arropari begira, iazko Merkemerkaian. E.A.B.

lora Lizentziaduna 25); Txuri Beltz (Iturriotz kalea 33); Ume (Garibai etorbidea 6) eta Zubia (Biteri Plaza 1).

Azoka, musikaz girotuta

Azoka girotzeko asmoarekin, hiru musika talde ari dira bi egunetan: gaur, egubakoitza, Dirty Durum Brass Band kalez kale ariko da, 18.00etan Maiatzaren Bata plazan hasita. Ondoren, 19:00etan, kontzertua egingo dute plazan. Nabarmen-tzekoa da Mikel Markiegi dela taldeko tronboi-jolea, Arrasate-

ko Musika Bandaren zuzendaria, nahiz eta gaur ez den taldearekin izango. Bihar, bestalde, Elens River's Dixieland talde gipuzkoarra ariko da kalez kale, 12:00etan Maiatzaren Bata plazatik irtenda, eta 13:00etan emanaldia egingo dute plazan -Zigor Martinez bergararra klarinete-jotzailea da, Arrasateko Big Bandaren zuzendaria-. Azkenik, bihar, 19:00etan, Crazyjazzers banda Arbolapetatik abiatuko da eta batetik bestera ariko da. Hala, 19:45ean Portaloiian izango dira eta eta 20:30ean, plazan.

'Osasun mentala eta nerabeak' hitzaldia etzidamu Kulturaten

Arrasateko Udala Gipuzkoako Foru Aldundiko *TREBA Gurasoak* dinamikarekin elkarlanean egiten ari den zikloaren baitan, Estibaliz Ansotegik *Osasun mentala eta nerabeak* hitzaldia egingo du astelehenean Kulturateko areto nagusian, 18:00etan. Parte hartzeko, izena eman behar da, udal webgunean edo 943-25 20 00 zenbakira deituta.

Familian Jolasean Santa Marinako ludotekan domekan

Orain arteko saio guztiak Oken-doko ludotekan egin ostean, asteburu honetan Santa Marinan egingo dute. Hala, domekan, 17:30etik 19:30era, 0-8 urte arteko haurrak dituzten familiek elkar ezagutzeko eta elkarrekin jolasteko aukera izango dute. Txatxilipurdiko bi hezitzaileen laguntza egongo da, saioa dinamizatu eta informazioa emateko.

'Arnasa betean' dokumentala Amaian martitzenean

Emakume Txokoak eta Arrasateko Udaleko Kultura Sailak elkarlanean *Arnasa betean* dokumentalaren emanaldia egingo dute otsailaren 27an, martitzena, Amaia antzokian, 19:30ean. Emakume zinemagileen ahotsak jasotzen ditu ikus-entzunezkoak eta zuzendari lanetan ibili diren Bertha Gaztelumendi eta Rosa Zufia saioan izango dira.



NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

17 emakumeen ipuina

Duela gutxi, Udalak erabaki zuten kale bati Alfontso VIII izena kentzea eta Auzo Lagun enpresa sortu zuten 17 emakumeena jartzea, andrez bakarrik osaturiko zerbitzu enpresa bat sortu zutelako. Aldaketa hori oroimen historikoaren izenean egin dute. Hau da, Udalaren iritziz balioetsi behar duguna ei da emakume horien ahalegina, eta ez Castillako erregearena. Baina lehenago ere herrian izan ditugu andrez bakarrik osaturiko zerbitzu enpresak; esaterako, mojen ikastetxe, parbulario edota ospitaleak. Hamazazpien meritutzat ere aipatzen da ezkondu ondoren lanean jarraitu zutela, frankismoak inposatutako legeari kontra eginez. Oroimen historikoa hobeto landu behar da eta Wikipedian begiratzea nahikoa da jakiteko emazteak etxetik kanpora lan egiteko baimena 1889ko Espainiako Kode Zibileko arau bat zela, eta ez frankismoaren inposizioa. Baimen hori, gainera, Franco bizirik zegoela kendu zuten. Bestalde, andre horien ekimena goraiatzeko "historiaren norabidea" aldatu zutela esatera ere ausartu da Udala. Gauzak horrela kontatzea ez da historia. Funtsean, izena aldatzeko emandako azalpena ipuintxo bat baino ez da. Andre horiek ez zuten ezer berezirik egin, eta horietako batzuek, lanik ere ez Auzo Lagunen.



Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOALKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com



Agurne Juldain eta Ander Garay, EAJko ordezkariak. GOIENA

"Gorostizan igogailua jartzea" eskatu du EAJk

"Udal Gobernuak ez du igogailuen proiektua 2023-2027ko aldiko Gobernu Planean sartu", diote jeltzaleek: "Auzoko irisgarritasun bertikala hobetzeko borondaterik ez dute"; Beraz "elkarlanean" gauzatzeko ekintza plana proposatu dute.

Miren Arana Pagaldai ARRASATE
"Gorostiza auzoan igogailu-sistema bat jartzea" eskatu du Arrasateko EAJk. Izan ere, jeltzaleek diotenez, Udal Gobernuak ez du 2023-2027ko aldiko Gobernu Planean Gorostizako irisgarritasunaren eta mugikortasun bertikalaren proiektua sartu.

"Auzoan igogailu-sistema bat ezartzeak 330 etxebizitzatan banatutako 800 bizilagunen baino gehiagoren irisgarritasuna eta bizi-kalitatea nabarmen" hobetuko lukeela adierazi dute Arrasateko EAJko ordezkari diren Agurne Juldainek eta Ander Garayk; eta proiektua EH Bilduren eta Podemosen Gobernu Planean ez sartzeak "Gorostizaren irisgarritasuna eta mugikortasun bertikala hobetzeko Udal Gobernuaren borondaterik eza" argi uzten duela salatu dute.

Jeltzaleen arabera, 2018eko apirillean "aho batez" onartu zen Arrasateko Udalerriko Mugikortasun Iraunkorreko Plan Integrala, eta plan horren ba-

rruan bost ekintza zeuden: "Hiru EAJren eta PSE-EEren arteko Gobernuak burutu zituen, eta beste bi ekintza egiteko gelditu ziren". Horietako bat da Gorostiza auzokoa.

Ekintza-plana

"Gure ustez, mugikortasun bertikalaren aldeko apustu falta bat da eta uste dugu momentu honetan apustu handi bat egin beharko litzatekeela", dio Ander Garayk. Horregatik, "elkarlanean" burutzeko ekintza-plan bat proposatu dio Udal Gobernuari: "2024ko lehen sei hilabeteetan kontratazioa egin, eta arduradun izango den enpresari hiru proposamen eskatu. Behin proposamenak batuta,

"GURE USTEZ, MUGIKORTASUN BERTIKALAREN ALDEKO APUSTU FALTA BAT DA"

hiru hilabetez prozesu parte-hartzaile bati ekingo genioke, auzokideek nahi duten mugikortasun bertikala aukeratu dezaten". "2025. urtean zehar bizilagunek aukeratutako aukeran oinarritutako behin betiko proiektua egin, eta, azkenik, 2026an zehar programatutako obrak gauzatzeko da ideia".

"Inprobisazioa hutsa"

Arrasateko Udal Gobernuak astelehenean lehen aldiz partekatu zuen herritarrekin eta baita oposizioko alderdiekin *2023-2027 Gobernu Plana*. "Ekarpenak egiteko aukera ireki zitzaizen arren, EAJk ekarpenik egingo ez zuela adierazi zigun; 2024ko aurrekontuan aurkeztutako hogeit hamar proposamenen artean ez zen igogailurik agertzen, eta orain, aldiz, 2024rako gastu proposamena egin dute. Horrek adierazten du inprobisazio hutsean kokatzen dela euren proposamena", salatu du Gobernuak.



ARRASATE HERRI ESKOLAKO GURASO ELKARTEA

Kurtzetxikira irteera

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, mendi irteera egin zuten Kurtzetxikira domekan. Batu ziren gazteak eta nagusiak kontuan izanik, bi irteera antolatu zituzten: bat Biteritik eta bestea Bedoñatik. Giro "ederrean" igo ziren tontorrera, eta, behin gora iritsita, guztiak elkartu ziren eta talde-argazkia atera zuten.

GORA ETA BEHERA



Markesina falta da Uribeko geltokian



Bizilagun batek salatu duenez, "markesina falta du Uribe auzoko autobus geltokiak". Argazkiak erakusten duen moduan, geltokiak ez du markesinarik, ezta jartzeko tokirik ere.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Baliabide publikoak "arduraz" erabiltzea exijitu dute jeltzaleek

EAJk Udal Gobernuari eskatu dio baliabide publikoak "zuhurtziaz eta arduraz" erabiltzeko. Eskaera egin dute Udal Gobernuan konfiantzazko kargu bat sartu berri delako. "Izan ere, otsailaren 2an lanpostua ofizial egin zen arren, kargu hori abenduaren erdialdetik otsailaren 1era arte, Udalaren parte izan gabe, ofizialki udal baliabideak

kudeatzen" aritu dela adierazi dute jeltzaleek.

Alderdi abertzaleak Udal Gobernuaren erabakiak duen eragin ekonomikoa ere azpimarratu du: "Maider Morras alkatearen konfiantzazko aholkulariak urtero 58.388,48 euroko kostua izango luke. Gastu horrek EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen Udal Gobernuaren gutzitiko kostua 356.935 eurora igozten du, EAJren eta PSE-EEren aurreko Udal Gobernuaren 269.622 euroen aldean".

"Azkar hasteak sufrikario bihurtzen du proba"

IÑIGO ALZOLA SORONEA-AMMMA TALDEKO MENDI LASTERKARIA

Antzuolako 8 Milietako irabazleak harrিতuta utzi zituen denak lehen metroetan, zitzu bizian irten zen eta: "Estrategiaren parte zen, behera asko neukan-eta galtzeko"

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Iñigo Alzolak (Arrasate, 1990) badaki lehenagotik ere Antzuolako 8 Miliak irabaztea zer den. Are gehiago, hamaika ediziotatik lautan eraman du txapela, baina inoiz ez du hasiera horren indartsua egin: lehertera irten zen. Baina ez zen lehertu: helmugaraino abantailari eutsi zion.

Lasterketa hasi zenutenean, norbaitek pentsatuko zuen labea piztuta utzi zenuela etxean...

[Barre] Bai; han bertan ere entzuten nuen jendea ea abiadura horretan nora nindoan... Estrategiaren parte zen; lasterketa oso azkar hasi nahi nuen, eta bakarrik joan. Arrisku handiak hartzen dituzu horrela, baina banekien aldapa behera ez nintzela horren ondo moldatuko, eta abantaila hartu nahi nuen. Eta balio izaten du, baita ere, kontrarioa apur bat kikiltzeko. Bistatik galtzen zaituztenean, bigarren postuaren borrokan pentsatzen hasten dira, eta horrek mesede egiten dio lehenengo doanari. Kontrara, norbaitek zurekin joatea erabakitzen badu, hark ere lehertzeko arriskua dauka. Gogoan daukat Lareak eta biok inoiz egindako lasterketaren bat... Egurrean joan ginien.



Iñigo Alzola, joan den zapatuan Antzuolako helmugan. I.SORIANO

"DISTANTZIA APUR BAT LUZEAGOKO PROBAK EGIN NAHI DITUT AURTEN, ETA BERTIKALAK"

Eta lasterketara joateko zalantzak izan zenituen...

Bai, mendian apenas ibili naitzelako. Asfaltoan ibili naiz gehien, eta neguan gustura ibili naiz, gainera, baina mendian ez naiz sartu, eta zalantzak ni-

tuen. Hamabost egunean behin Durangora joaten naiz; han atleta talde polita dute eta izugarri gozaten dut eurekin entrenatzen. Pistan ibiltzen gara, eta egurra ematen diogu elkarri. Zapatuko hasiera horren indartsua eurei esker egin ahal izan nuen.

Laugarren txapela jantzi duzu...

Bai, Ibai Larreak huts egin du eta... Ondo baliatu dut hori [Barre]. Esan moduan, nahiz eta zalantzekin egon, Antzuolan etxean moduan sentitzen naiz, oso gustura joaten naiz hara.

eta horrexegatik erabaki nuen lasterketan parte hartzea.

Garaipena amorrus ospatu zenuen. Bai, baina ez dauka aparteko esangurarik. Aspaldian ez dut publikoaren aurrean lasterketarik irabazi. Kilometro bertikaletan nabarmendu nintzen iaz, eta mendi tontorrean apenas egoten da jenderik. Antzuolan, berriz, jendearen aurrean irabazte hori... Gainera, lasterketa horren azkar hasita, badakizu probak sufrikario hutsa izan behar duela, eta hala izan zen. Ordubeteko sufrikario hutsa. Eta helmugan amorrus ospatu nuen.

Ze helbururekin hasi duzu 2024a?

Iazko denboraldia pozik amaitu nuen, Anbotoko kilometro bertikala irabazita, Udaltzeko erronka eginda... Aurten asmoa da lasterketa apur bat luzeagoak egitea, bi ordu eta erdiren bueltako lasterketak egitea. Talaia Bidea lasterketa daukat begiz jota, Hondarribian. Eta Kanpezura ere joan nahi dut, Euskal Herriko Txapelketa jokatzera. Horrekin batera, Espainiako Kluben Arteko Txapelketa Malagan jokatu dute, eta, aurten ere Soronea-Amma taldean jarraituko dudanez, hara joateko ilusioa daukat. Eta, horrekin batera, Txindokiko eta Zegamako kilometro bertikalak ere egin nahiko nituzke; etxeko lasterketarekin ditut zalantzak, Arrasate-Udaltzekin.

laz, aita izan zinen; horrek egokitzapen-fase bat ere badakar.

Bai, eta umea izan eta segituan konturatu nintzen ez nenbילה lasterketara joateko motibatuta; tira, lehentasunak beste batzuk dira. Baina bikotekidea eta biok ondo ari gara moldatzen. Egia da atsedenean igartzen dela, baina motibatuta nabil aurtengo urterako, bai.

Eskolarteko Ibilaldi Neurruak Arrasaten

Martxoaren 3an izango da hitzordua; 6 eta 16 urte arteko haur eta nerabeei dago zuzenduta

X.U. ARRASATE

Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatzen duen Gipuzkoako Ibilaldi Neurruen 35. edizioa egingo dute martxoaren 3an. Aurten ibilaldi neurruak Oartzunen, Villabonan, Zarautzen, Zegaman eta Arrasaten egingo dituzte, eta Arrasateko antolatzaileak Bidea Besaide Mendi Elkarteko lagunek izango dute eskola kirolaren programaren barruan dago kokatuta, eta Gipuzkoako ikastetxeetako ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute -6 eta 16 urte bitartekoei zuzenduta dago-.

Arrasatekoa 09:00ak eta 09:30ak bitartean hasiko dute -hitzordua ordu erdiz atzeratzea erabaki dute-, Biteri plazan, eta izen-emaitea ere une horretan egin ahal izango da -aurrez egiten bada, hobeto-. Ibilbidea 3-5 ikasle osatutako taldetxoetan egingo dute -patruilak- eta talde bakoitzak heldu bat izango behar du arduradun. Ibilaldi luzea (11 kilometro) eta motza (8) lehen kontrol-puntu banatuko da, Asuelan, eta patruilek martxan doazela erabaki ahal izango dute bietako zein egin. Bedoña eta Kurtzetxiki inguruetan ibiliko dira; amaieran, txokolate beroa banatuko dute.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

MAIDER MORRAS

ARRASATEKO ALKATEA

'HARIRA' SAIOAN

MARTXOAREN 1EAN, EGUBAKOITZA,
18:30EAN, 20:30EAN ETA 22:30EAN

BIDALI ZUK ERE GALDERA:

berriak@goiena.eus ☎ 688 69 00 07
EPEMUGA: OTSAILAK 26, ASTELEHENA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



"Tatta naizen arren, Martin ere banaiz"

MARTIN ERRASTI 'TATTA' ABESLARIA

Abeslari arrasatearrak bere lehen diskoa argitaratu du: 'Martin'; bertan, askotariko gaiak eta estiloak jorratzen ditu, baina muina galdu gabe

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Martin Errasti *Tatta* (Arrasate, 1998) abeslariak ibilbide mamitsuua izan du Euskal Herriko rap eszenan. Urteak pasa dira lehenengo abestia grabatu zuenetik, eta, geroztik, oholtzaz oholtza ibili da. Orain, lehen lan luzea argitaratu du.

Bazeneraman denbora bat singleak ateratzen eta kontzertuak eskaintzen; hurrengo pauso naturala diskoa argitaratzea zen?

Bai, artista moduan gogoia nuen lan irmoago bat ateratzeko. Singleak bata bestearen atzetik ateratzen ibili naiz, horrenbeste ez diren arren, baina artista zein pertsona moduan lan luze bat atera nahi nuen. Singleak ondo daude, baina lan luzeak artista modura definitzeko balio dute. Modu horretan, jendeak zein naizen ikusteko aukera izango du. Azkenean, horrela izan da, eta pozik nago.

Martin izena darama diskoak; zuretzat oso pertsonala izan den seinalea da hori?

Beste izen batzuk ere izan nituen buruan, baina hainbat aldaketaren ostean *Martin* izenarekin gelditzea erabaki nuen. Nahiko pertsonala zela sentitzen nuen, eta lehen diskoa izanda egokia zela pentsatu. Tatta naizen arren, Martin ere banaiz; artista idealizatzeke joera izaten dugu, baina jende normala gara.

Disko hori inflexio puntu bezala nabari duzu?

Ez dakit maila orokor batean inflexio puntu bat izango den, hori ikusi egin behar da, baina niretzat, artista eta sortzaile moduan, bai izan da. Disko horrekin garbi gelditu zait musikari gogor eman nahi didala eta, ahal bada, horretatik bizitzea gustatuko litzaidakeela. Gainera, profesionaltasun puntu bat ere nabari da bertan.

Gai sakonak lantzen dituzu diskoan; nondik dator inspirazioa horrelako kantuak sortzeko?



Martin Errasti *Tatta* ezkerrean eta Hodei Vicario *Denso* eskuinean. MARIO MARCO

"NIRETZAT, ARTISTA ETA SORTZAILA MODURA, INFLEXIO PUNTU BAT IZAN DA DISKOA"

Egia da gai sakonak direla, baina guztiak ez dira niri gertatutako gauzak. Lagunekin batera idatzi ohi dut, eta letrak partekatzen ditugu. Kontatzen ditudan niri zein ingurukoei gertatutakoak dira; denetik dago. Gainera, kanta sakonak dira, baina norberak interpretazio ezberdin bat eman diezaieke, eta hori garrantzitsua da.

Diskoan estilo ezberdin asko nabari dira; zergatik hautu hori?

Rap kantaritzat dut neure burua, baina norbera nekatu egiten da beti berdina egiteaz. Beste musika eta erritmo mota batzuekin esperimentatzea beharrezkoa da. Diskoan, besteak beste, bachata, reggaetona, trapa, rapa zein akustikoa uztarturik agertzen dira. Esango nuke horrek jendearengan eragina izango duela estilo kontutik harago hori finean musika dela jabetzeko.

Hodei Vicario *Denso* izan da ekoizlea; zer moduz moldatu zarete?

Oso ondo. Densorekin lan egitea plazer hutsa da, beti oso gustura ibili naiz harekin. Ondo ulertzen dugu elkar. Beste ekoizle batzuekin ibili naizen arren, ondoen harekin moldatu naiz. Sormen aspektuan ere ikaragarria da, beti du zerbait esateko, zerbait hobetzeko. Batzuetan perfekzionistegia ere izan daiteke, baina hori nabaritu egiten da azken emaitzan.

Bira bat ere egitekoa zara; ze asmo duzu bira horrekin?

Oraindik data gutxi batzuk iragarri ditugu, baina esan dezaket lehen kontzertua Madrilera izango dela. Gainontzekoak laster iragarriko ditugu, baina iragarri aurretik jendea denbora pixka bat eman nahi genion, diskoa entzuteko denbora izan zezan. Martxo eta apiril artean izango da bira. Zuzenekoetan ere salto bat eman nahi dugu. Instrumentuak sartuko ditugu, gitarra bat eta pare bat teklatu. Horrez gain, argi-*show* bat ere prestatzen gabilta. Aldaketa asko igarriko delakoan nago. Gogotsu gaude, eta ondo joango den esperantzarekin.



Mr. Boh antzezlanaren eszena bat. MARIE DE JONGH

Antzerkiaren bidez botere harremanez hausnartzen

Bihar, 17:00etan, 'Mr. Boh' emanaldia egingo dute Marie de Jongh konpainiak Amaia antzokian

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Marie de Jongh konpainiak *Mr. Boh* bere lan berria eskainiko du bihar, otsailak 24, Amaia antzokian. 17:00etan hasiko da emanaldia, eta sarrera bost euro da.

Boterearen erabilera

Bo jaunaren eta haren hiru zerbitzarien inguruan dihardu antzezlanak. Hiru zerbitzariak ohituta daude Bok dioen gutzia egitera, baina zerbitzariak noiz behinka irudikatzen dute zer litzatekeen boterea haien eskutan izatea. Modu horretan, botere harremanez hitz egiten du antzezlanak. "Boterearen erabilera kaskarra da antzezlanaren gaia, eta zer egin botere maltzur horri aurre egiteko. Bestela, gero gaiztotu egiten da, eta zaila izaten da egoera horri buelta ematea", adierazi du Jokin Oregi zuzendariak.

Familia guztiarentzat

Txotxongilo eta maskaren erabilera ezaugarritzen du konpainia, eta *Mr. Boh* ez da salbuespena. Antzezlan mutuak egiten dituzte Marie de Jongheko kideek, baina konpainiak ez du hitzik behar mezua helarazteko. Hala ere, Oregik dioenez, antzezlan horrek baditu zenbait ezaugarri propio: "Besteekin alderatuta, badu berritasun bat: 4 urtetik gorako haur txikiei ere zuzenduta dagoela. Beste lanak, berriz, 6-7 urtetik gorakoentzat ziren".

Hala ere, ez da soilik haurrentzat sortutako lan bat; belaunaldi askotariko pertsonak gozatu ahal izateko pentsatuta dago. "Guk aintzat hartzen dugu haurrak ez direla bakarrik joaten antzerkietara. Helduekin batera joaten dira, eta biak gozaten ikustea asko gustatzen zait", adierazi du Oregik.

Haurrentzako ipuin kontaketa Ahoz Aho jaialdiaren baitan

Otsailaren 28an, 18:00etan hasita, euskarazko zein gaztelarazko ipuinak entzuteko aukera egongo da Santa Marinako liburutegian. Ane Gebara eta Nelson Caleron izango dira ipuin kontalariak. Ekimen hori Ahoz Aho ahozkotatzen nazioarteko jaialdiaren baitan antolatuta dute. Intujai konpainia arduratzen da jaialdia antolatzeaz.

Sexpeares taldea protagonista Kooltur Ostegunetan

Sexpeares hirkoteak joko du otsailaren 29an gaztetxean, Kooltur Ostegunetako otsaileko azken kontzertuan. Gainontzeko kontzertuen gisan, 22:00etan hasiko da eta sarrera zazpi eurotan eskuratu ahal izango da. Sustrai euskal-argentinarreko *power trio*-ak joan den urtean kaleratu zuen bederatzigarren lana, taldearen izen berekoa.



Agustin Oianguren patinaje-monitorea Aramaioko ikasleekin domekan kiroldegian. LARRAITZ ZEBERIO

Patinetan ibiltzeko ez dago adin mugarik

Urtero antolatzen dute Aramaion irristaketa ikastaroa, eta aurten ere ari dira haur, gazte eta heldu patinen gainean trebatzen, Burdinola irristaketa klubeko monitorean gidaritzapean; dagoeneko bi saio egin dituzte, eta hiru geratzen zaizkie

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO
Aramaio Guraso Elkarteak patinaje ikastaroa antolatu du haur, gazte eta helduendako. Burdinola irristaketa klubeko kide Agustin Oianguren eta Maiuri Lasagaren gidaritzapean dabilta adin askotariko ia 50 lagun -HH-3 eta LH-6 bitarteko ikasleak eta guraso taldea-. Dagoeneko bi saio egin dituzte eta domeka honetan egingo dute hirugarrena.

Oianguren ez du gogoan noiz hasi ziren ikastaro horiekin, baina nabarmendu egin du aurten izena eman dutenen kopurua: "Ez dakit noiz hasi ginen ikastaroekin, baina Aramaion galdetzen baduzu nork dakien patinatzen, ia denek dakite".

Jolasen bitartez lantzen dute irristaketa, eta Oianguren esan du jolasten hastean "askotan" ahaztu egiten zaiela patinen gainean dabilzala, eta, bestek beste, oreka eta abiadura lantzen dira. "Harra sartzeko" jolasak egitea garrantzitsua dela dio

Lasagak, "horrela, motibazioa handitzen delako".

Ikasteko adinik ez

Adin askotariko aramaioarrek hartzen dute parte ikastaroan eta bi monitoreek argi daukate ez dagoela patinetan egiteko adinik. "Nahi duzunean hasi zaitezke; gogo baldin badago, berdin du adinak", dio Lasagak. Haren adibidea jarri du Oianguren; izan ere, 45 urterekin hasi zen lau gurgilen gainean, eta hasi eta bi hilabetera lehenengo lasterketan hartu zuen parte.

Itsaso Aranzabal eta Sonia Etxenagusia dira parte-hartzaileetako bi heldu. Patinetan ibiliak dira eta dakitena trebatzen

DOMEKAN ETA MARTXOAREN 17AN ETA 24AN IZANGO DIRA HURRENGO PATINAJE SAIOAK

dabiltza ikastaroetan. Jolasekin ikastea atseginagoa dela diote.

Hala ere, umetan errazago ikasten da, Oianguren ustez: "Ume txiki bat etortzen bada, lehen aldiz ordu erdiz patinen gainean egoten da eta patinatu egiten du". Oier Errasti da gazteetako bat; 6 urterekin hasi zen Burdinola hockey taldean. Uste du oreka izatea beharrezkoa dela patinetan ibiltzeko, eta "gurpilek bueltak ondo ematea" beharrezkoa dela.

Nagusien kasuan, "apurtxo bat gehiago kostatzen zaie, Oianguren hitzetan, baina, "poliki-poliki", asmatzen dute: "Azkenerako, nagusiek altuera handiagoa daukate eta oreka mantentzea zailagoa da".

Hurrengo saioak otsailaren 25ean eta martxoaren 17an eta 24an izango dira, kiroldegian: HH-3 eta HH-5 artekoak, 10:30etik 11:30era; LH-1 eta LH-3 artekoak, 10:30etik 11:45era; LH-4 eta LH-6 artekoak, 11:15etik 12:30era; eta gurasoak, 11:30etik 12:30era.

"Denok gara ipuin bat; bizi dugun ipuina kontatzen dugu"

ALDO MENDEZ KONTALARIA

Aramaioko kultur etxean arituko da gaur, 19:00etan

I.A.A. ARAMAIO

Intujai konpainiaren Ahoz Aho ahozkotatzen nazioarteko jaialdiaren barruan, helduendako kontaketa-saioa egingo du Aldo Mendezek (Meneses, Kuba, 1966). **Saioak ez dauka izenbururik; zeri buruz hitz egingo duzu?**

Publikoaren interakzioarekin jokatzeko duen kontalaria naiz. Giroak eta publikoaren aldarreak zehazten dute kontakizuna zein izango den. Nire kontakizunak, batik bat, nire oroitzapenekin eta mapan galduta dagoen nire herriarekin lotutakoak dira. Badaude istorio batzuk umorea dutenak, poesia, erotismoa... dutenak. Publikoarekiko lotura afektiko eta poetikoa da bilatzen dudana, umorea galdu barik.

Zure publikoa helduak dira; ezberdina da helduak edo haurrak izatea?

Bai. Umeak horizontalak dira eta umea edozerk harritzen du. Helduak, bertikalak, aurreiritziak izaten ditu, eta haren esperientziatik begiratzen du. Batzuetan, helduak sorbaldaren gainetik begiratzen dizu; umeak, ordea, berdinetik berdineren begiratzen dizu beti. Horizontaltasun eta bertikalitasun hori gakoa da kontakizunak egiteko.



Aldo Mendez. A.M.

Ipuinak ez du adinik. Historikoki, komunitateak kontatzeko elkartu dira. Publiko gaztearen mireslea naiz, baina helduek beste xarma bat daukate. Denok gara ipuin bat; bizi dugun ipuina kontatzen dugu.

Ahoz Ahon izango zara, beste behin; zer iruditzen zaizu egitasmoa?

Zuen lurraldean bertako nahiz beste herrialde batzuetako aho-ahotsei tokia ematea sekulakoa da. Dibertsitatearen aldeko apustua egiten duten egitasmoak eta kultura arteko komunikazioak sekulakoa dira.

OHARRAK

Mus txapelketa gaur

Alaia Jubilatuen Elkarteak mus txapelketa eta afaria antolatu ditu. 16:30ean hasiko da eta izena 16:15erako eman beharko da. Izen-ematea: 20 euro bikoteko.

M8ko afaria

Aramaioko talde feministak Martxoaren 8rako afaria antolatu du Añai tabernan. Martxoaren 5erako eman behar da izena. Erreserbak: 658 70 80 87. Prezioa: 22 euro.

Batzar orokorra

Txirritola Euskara Elkarteak batzar orokorra egingo du hilaren 6an, kultur etxean, 18:30ean. Elkarte kideentzat eta herritarrentzat.

Nafarrate irabazle eta Jauregi hirugarren plater tiroketan

Otsailaren 18an Gallartan jokatutako Euskadiko Plater Tiroketa Txapelketako saioan, Juan Luis Nafarrate lehen postuan sailkatu zen, beterano mailan, 50 plateretatik 49 botata. Bigarrena izan zen Jabier Oruna arrasatearra, 48 plater jota. Aramaioarra finalerako sailkatu bada ere, sailkapen orokorrean lehen postuan berdindu zuen Andriu Sancharekin. Berdinke ta haustea jokatu behar izan zuten, eta bigarren sailkatu zen aramaioarra.

Halaber, Iker Jauregi aramaioarra ere hartu zuen parte domekako saioan, eta hirugarren kategorian hirugarren izan zen, 25 plateretatik 24 apurtuta.

"Emakumeek badute espazio baten beharra"

AINHOA SANCHEZ ETA MALENA GONZALEZ BERDINTASUN ZINEGOTZIA ETA TEKNIKARIA Emakumeen ahalduntzerako txoko feminista diseinatzeko prozesua jarriko dute abian zapatuan, Udalak deituta; lau fase izango ditu eta Elhuyarrek gidatuko du

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Txoko feminista sortzeko TRIL izeneko parte-hartze prozesua jarriko dute abian. Lau fase izango ditu, eta lehenengoari ekingo diote zapatuan, otsailaren 24an; talde sustatzailea sortu eta egitasmoa definitzen hasiko dira Elhuyarren laguntzarekin. Izena aldeztu aurretik eman behar da, berdintasuna@aretxabaleta.eus helbidera idatzita.

Aretxabaletak ere izango du txoko feminista?

Ainhoa Sanchez: Oraingoan, emakumeen ahalduntzea helburu izango duen txoko bat diseinatzeko prozesua jarriko da abian, eta horri ekiteko ilusio handiarekin eta gogotsu gaude.

Kontua, baina, ez da berria.

A.S.: Ez; 2015ean Mugimendu Feministak abiatutako prozesu bat da. Herrian bazegoela hutsune bat atzeman zuten orduan, eta herriak ere ikusi du emakumeek badutela halako espazio baten beharra. Hain zuzen ere, Mugimendu Feministaren indarrari esker halako prozesu bati ekiteko hauxe dela unea ikusi dugu.

Feministek orain badute elkartzeko gunerik?

A.S.: Ez; orain dela bi edo hiru urte espazio barik geratu ziren. Badakigu hori beste eragile ba-



Sanchez eta Gonzalez. M. ALTUBE

tzuekin ere gertatu dela, eta berreskuratu egin gura ditugu, bakoitzak bere lekua izan dezan. **Eta txoko feminista non koka daitkeen pentsatu duzue?**

A.S.: Prozesuan zehaztuko dugu, baina hasiera-hasieran izan zuen lokala, Zaindus gimnasioarena izandakoa, dugu buruan.

Zelakoa izango da diseinatze prozesu hori?

Malena Gonzalez: TRIL izena jarri diogu, eta lau fase izango ditu: T, R, I eta L faseak, hain zuzen ere, Elhuyarren gidaritzapean garatuko direnak. Lehe-

nengoan, talde eragile bat sortuko dugu eta lau lan-saio egingo ditugu: hilabeteko azken zapatuetan izango dira horiek, otsailaren 24an hasita, 09:00etatik 13:00etara, Arkupen. Izena aldeztu aurretik eman behar da. **Prozesuari jarri diozuen TRIL izenak esanahi berezia du, ezta?**

M.G.: Bai; Tril izan zen, guk dakigula, Aretxabaletako lehenengo emakume taldea, eta aitorza egin gura genion, izandako ibilbideari keinu eginda.

Prozesu horretan zeinek izango du lekua?

M.G.: Herriko emakumeek, antolatuta egon edo ez. Zenbat eta ahots gehiago jaso, espazioa orduan eta pluralagoa izango da. Mugimendu feministarendako espazio bat izan dadin gurako genuke, baina baita gainerakoendako babeslekua ere.

Eta hurrengo pausoak zehaztu dituzue?

M.G.: Fase bakoitzak sei hilabete inguru iraungo du; betiere, behar den denbora errespetatuta. Bigarren fasean udal barruko lanketan jarriko dugu arreta; eraikinaren prestaketan, esaterako. Eta hurrengo bi faseetan bermatu gura dugu haria ez dadila eten, eta, horretarako, beste ekintza batzuk ditugu pentsatuta; solasaldiak, adibidez.

Ixadebalde azoka gaur, postuak plaza barrenean jarrita

Ixadebalde merkealdien 26. azoka egingo dute gaur, egubakoitza, Aretxarteko hainbat merkatarik. Eguraldiaren ondorioz, saltokien aurrealdean jarriko dituzte postuak honako hauek: Asensio, Kilima, Hankabeltz, Kiloka, Belar Meta, Tak eta Almila Shop. Bezeroen artean 50 euroko zazpi bonu zozketatuko dituztela iragarri dute.

Lagunen arteko harremanen gaineko hitzaldia gurasoentzat

Gurasoak hezkuntza gaitasunetan trebatzea helburu duen *Treba* egitasmoaren baitan hiru lan-saio antolatu dituzte. Lehenengoa, otsailaren 29an izango da, Arkupen, 18:00etan, eta komunikazioan aditu Nerea Mendizabalek *Harreman osasuntsuak lagun artean* izenburupean jardungo du. Izena eman behar da aurretik: gazteria@aretxabaleta.eus.


OHARRAK

Ipuin kontaketa

Dorleta Kortazarrek *Ispiluak* saioa egingo du hilaren 29an (19:00), udaletxe zaharrear, helduendako, Loramendiren 30. urteurrenaren baitan.

Bertso afaria

Arana ahizpek eta Martin Berrizbeitiak girotutako afaria antolatu dute, Uratz Alde elkartearen, martxoaren lehen; txartelak, Urbaltz tabernan.



NIRE USTEZ

OIER ZUMARRAGA
ARANBURU

Itxurakeria

Gabonetako gehiegikerien ondoren gimnasia itzultzeko garaia omen da. Urte berria, asmo berriak, gezur berriak. Zaharrak berri. Arropa erosoak, egundoko aurikularrak eta tresneriarik txundigarriena erosten ditugu. Beharra eta nahia bereizten ez dakigun seinale. Zurrumbilo horretan harrapatu gaituzte gehienok. Ur zulora zuzenean, zerua eskaintzen dizuten bitartean.

Azkenaldian, jendetza dabil gimnasioan. Askori ez zaie aurpegian entrenatzeko gehiegizko gogorik ikusten. Euren habitatetik kanpo egongo balira bezala. Halako batean, mugikorretik bere aurikular txundigarrietan musika jartzen ari zela, hauxe galdetu nion: "Gustatzen zaizu egiten ari zarena?" Berak, ezezko biribila. Emandako erantzunaz hausnartu, eta "hainbeste jende etortzeko, ona izan beharko du" gehitu zuen. Hori bilakatu da egungo gizartea: artalde. Denak artzainari jarraiki, ezer zalantzan jarri gabe.

Eta abiapuntura itzuliz, irteera bakarra dago kontsumo inultsiboari aurka egiteko: uko egitea. Norberaren kontrolak dakar askatasuna, saretik irteteko modu bakarra da, nahiz eta horretarako korrante bortitzen aurka igeri egin behar den.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

GARI ITURBE

ARETXABALETAKO ALKATEA

'HARIRA' SAIOAN

OTSAILAREN 23AN, EGUBAKOITZA,
18:30EAN, 20:30EAN ETA 22:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



"Ibaiko pasabidearen proiektua ez dute onartu"

Abian diren proiektuen gainean –komentua eta igogailua, esaterako– eta datozen beste hainbati buruz –Markoleko zelaia eta pilotalekua, adibidez– jardun du Gari Iturbe alkateak 'Harira' saioan; gaur emango du Goiena telebistak, 18:30ean, 20:30ean eta 22:30ean

Mirari Altube ARETXABALETA

Alkate kargua hartu ondorengo lehen zortzi hilabeteak "intentsuak baina politak" izan direla adierazi du Gari Iturbe Etxebarria (Aretxabaleta, 1979) alkateak. Eta onartu du Udalean sartu ondoren konturatu dela zein motel doazen gauzak administrazioan. Era berean, eskerrak eman dizkie alboan duen lantaldeari eta "bidelagun izaten dabilzan udal langileei".

Komentuaren bueltako lanak

Udal aurrekontua onartu berri dute, eta, "aurreko agintalditik datozen proiektuek baldintzatuakoa" izan arren, euren ukitua eman diotela azaldu du: "Ez da EH Bilduren ukitua bakarrik, herritarrengandik jasotakoarekin osatutakoa baizik. Badute berdintasunetik, zaintzatik, irisgarritasunetik, gazteen ongizatezik... baita arazoan aurrean erantzun azkarra ematek ere".

Zaintza-ekosistema dute lehen-tasunen artean, eta horrek hiru lan-ildo dituela argitu du: "Bate-tik, bakardadean bizi direnekin landu nahi dugu. Gizarte langile bat txertatu dugu lantaldean, eta 70 uretik gorako herritarrekin harremanetan jartzen hasi da". Bigarren ildoak izango da



Gari Iturbe alkatea Goiena telebistan. MIRARI ALTUBE

eguneko arreta zerbitzua, komentua izandako eraikinean kokatuko dena. Eta hirugarren ildoak zaintza lanetan diharduen kolektiboarekin landuko dute.

Esan du komentuko lanek atzerapenak izan dituztela, hainbat arrazoiengatik, baina "apirilerako bukatuta" izango da: "Behin amaituta, lehenbailehen jarri gura dugu martxan, baina, horretarako, hornitu egin behar da aurretik". Horregatik, ez da ausartu data zehatz bat ematera.

Inguruan dagoen lorategiaren txukuntze-lanak, osterara, beste

proiektu baten barruan daude, Deba ibaiaren bi aldeak batuko dituen pasabidearekin batera: "Eta hor badugu arazo bat, Ur Agentziak atzera bota duelako lehenengo proiektua". Kontuak aurrera egin ahal izateko beste proiektu bat garatzen dabilzala aurreratu du: "Ea traba gainditzeko dugun; gainera, uste dut irisgarritasunean irabazi egingo dugula".

Zubi hori Txarapeako igogailuaren parean geratuko litzateke. Eta igogailu hori urte bukaera baino lehen ez dela egongo gertu

azaldu du: "Igogailuaren karkaxa da bukatzeaz dagoena, eta hori erosi egingo du orain Udalak. Gero, barruko mekanismoaren lanak esleitu beharko ditugu".

Osasun etxe berriaren lanei dagokienez, gaur, egubakoitza, bilera bat dute Osasun Sailekoekin: "Batetik lanak zelan doazen jakin eta horien denborak zehazteko; eta bestetik, proiektuaren bueltan hitz egiteko, bertan kokatuko direlako osasun zerbitzuez gain Udalaren Gizarte Zerbitzuak".

Berdegunea eta pilotalekua

Kiroldegi aurreko berdegunearen proiektuari aurrean heldu gura diote: "Lehenengo fasean sartuko dira ur-txorrotak eta aisialdirako gunea. Guk jaso genuen proiektua oso garestia iruditu zitzaigun, 800.000 euro ingurukoa zelako, eta, fintzen ibili ostean, ia erdira jaitsi dugu".

Pilotalekuari heltzeko asmoa ere badu alkateak, eta proiektu baterako partida bat gorde dute: "Pena da aurreko agintaldian ez heldu izana, dirulaguntza bat galdu dugulako". Goiena telebistak egindako inkestan herritarrek adierazitakoekin bat etorri da Iturbe; hau da, hainbat gabezia dituela instalazioak: "Aldagelarik ez, hezetan arazoak, itoginak... Inplikatuakin batera landuko dugu proiektua".

Era berean, gune estali baten beharra ere badagoela adierazi du: "Umeen aisialdirako eta hainbat eratako ekintzak egiteko, esaterako. Herritarrekin batera zehaztuko dugu zeri erantzun beharko liokeen eta non kokatu beharko litzatekeen". 200.000 euroko partida bat sortu dute horretarako.

Bestetik, igeltserotza zerbitzua jarri dute abian, konponketa

txikiei lehenbailehen heltzeko helburuarekin: "Azkartasuna gura dugu, eta mugikortasunean irabaziko dugu. Ildo horretatik, eskertzen ditugu herritarrek helarazitako mezuak".

Kuartela eta gaztetxea

Bestalde, institutua lekuz aldatzeko proiektuarekin aurrera egiteko asmoa ere badu, leku faltagatik: "Jaurilaritza eraikinarren lanak bere gain hartzeko gertu egonda, guk ere argi genuen hori bultzatuko genuela". Herriaren sarreran, Arbizelai inguruan kokatuko dute hori.

Kuartelari ere heldu gura diote: "Abandonatzen utzi den eraikin bat izan da, eta segurtasunari dagokionez hobekuntza asko behar ditu". Hain zuzen ere, instalazio elektrikoa aldatzeko lanei ekingo diete egunotan: "Gero, proiektu bat egingo da bertako erabiltzaileekin, zelan hobetu eta zer egin zehazteko". Gaineratu du herriko 100 sortzaile inguru elkartzen direla han, eta haien bidelagun zelan izan hausnartu beharko dutela aurrerago.

Gaztetxearen gaia ere mahaia-aren bueltan dute: "Gazte mugimenduak proiektu bat aurkeztu zigun orain dela hilabete batzuk, eta guk ere argi dugu Aretxabalek gune autogestio-natu bat behar duela. Leku bat eskatzen dute, eta aukerak aztertzen gabilta".

Agintaldiko plangintza, oposizioa ere eske dagoena, ekainerako agindu zuten.

KIROLDEGI AURREKO LEHEN FASEARI EHINGO DIOTE: UR-TXORROTAK ETA AISIALDI-GUNEA

Durana
Hartz Klinika

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Aranzadikoeek 'Axtroki' liburua aurkeztuko dute

Otsailaren 28an, 18:00etan, 'Axtroki' liburuaren aurkezpena egingo dute Aranzadi Zientzia Elkartekoek Ibarraundi museoan. Ondoren, Xabier Peñalver historiaurrean adituak 'La Edad del Hierro en Gipuzkoa y su entorno territorial' hitzaldia egingo du

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
2022an, alegia, Axtrokiko Ontzien aurkikuntzatik 50 urte bete ziren urtean, Eskoriatzako Udalak, Aranzadi Zientzia Elkartearen komisariotzarekin, urteurrena ospatzeko erakusketa txiki bat antolatu zuen Ibarraundi museoan. Orain, proiektu hori osatzeko, liburu bat idatzi dute, Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera baita ere. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Espainiako Arkeologia Museo Nazionalaren laguntza jaso du argitalpenak.

Aurkezpenaren ostean, hitzaldia
"Axtroki" liburua Aranzadi Elkartekoek idatzi dute, eta bertan, batez ere, 2022an egindako Axtroki, *urreearen magia* erakusketan adierazi zirenak jasotzen dira. Horrekin batera, urrezko ontziak aurkitu zituztenen ondorengoak, hau da, haien alabak, batu ditugu eta elkarrizketak egin dizkiegu; ontziak aurkitu zituzten garaian gai horrekin ibili ziren hainbatekin ere batu gara... Eguaztenekoa liburuaren aurkezpen labor bat izango da", adierazi du Saioa Altzuak, Eskoriatzako Udaleko Ingurumen Saileko teknikariak.

Liburuaren aurkezpenaren ostean, berriz, Xabier Peñalver arkeologoaren eta Aranzadi Zientzia Elkarteko langilearen hitzaldia izango da. Aranzadi Zientzia Elkartek antolatzen dituen 22. Arkeologia Jardunaldien baitan emango da saioa, eta berbaldia gazteleraz izango da. "2010ean urrezko ontziak aurkitu zituzten eremua babes-teko txosten bat egin behar zen, eta Xabier Peñalver eta Eloisa Uribarri arduratu ziren lan horretaz. Peñalver eminentzia da Burdin Aroan, eta, Eskoriatzako Axtrokietz gain, garai hartan gure inguruan zer zegoen azal-



2022an Axtroki, *urreearen magia* erakusketa inauguratu zutenekoa. I. BELOKI



Axtroki liburuaren azala. ARANZADI

duko du, besteak beste, modu orokorrean", azaldu du Altzuak.

Ontzien aurkikuntza

1972ko abuztuaren 17an aurkitu zituzten urrezko ontziak, ustekabean, Axtrokiko haitzaren magalean, Eskoriatzako Eraña auzotik eta Bolibar elizateetik gertu, luizi baten ondorioz hango baserritar batzuk errepidea garbitzeko auzolanean ari zirela. Egun hartan elkartu ziren baserritarrak Joxe Joakin Iñurrategi (Erañaldegoikoa), Teodoro Martinez (Erañazpikoa), Luis Mari Ulibarri (Erañagoiti) eta Bitoriano Zubia (Erañaldebekoa) izan ziren. Ontziak he-

rriko agintarien esku utzi ondoren, zaintza kateak bere bidea egin zuen. Izan ere, Tomas Rubio praktikanteari eta auzoko parrokoa zen Kruz Abarrategiri iritzia eskatu zitzaie, eta, haien guztien esku-hartzearekin, hemengo arkeologiaren altxor hau salbatu ahal izan zen. Inongo testuinguru arkeologikorik gabe aurkitu zirela eta, haien jatorria, dekorazioen esanahia eta funtzioa interpretazio eta hipotesi askoren abiapuntu izan dira. Dena dela, 1973a ezkerro, Madrilgo Museo Arkeologiko Nazionalaren eskumenean daude. Eskoriatzako Udalak kudeaketa ofizialak egin izan ditu Axtrokiko ontziak berreskuratzeko eta Euskal Herrian erakutsi ahal izateko.

Jatorri ezezagunekoak

Pieza horien jatorria ezjakina izanda, tradizionaliki, Axtrokiko ontziak luxuzko baxera baten parte liratekeen ontzi edo edukiontziak izan dira; hipotesi horretatik datorkie deitura. Ondorengo ikerketetan, erritu ezezagunen batean erabilitako kasko edo burukoak izango liratekeela proposatu izan dute.

Barrakak arautzeko ordenantza zirriborroa aztergai jarri dute

Martxoaren 4ra arte dute herritarrek ordenantza aztertzeko eta nahi dituzten proposamenak egiteko

I.B. ESKORIATZA

Udalaren eskumena da jaietako barrakak eta azokako atrakzioen instalazioa arautzea, eta interes orokortzat jo du Eskoriatzako Udalak arautze hori udal ordenantza bidez egitea.

Ordenantza egin baino lehen, kontsulta publikoa egin behar da, herritarrek eta eragindako erakunde adierazgarrienek zer iritzi duten jakiteko. Hori horrela, Udalak konpondu nahi dituen arazoak jasotzen dituen ordenantza onartu aurretik, zirriborroa egin eta jendaurrean

jarri dute, interesdunek aztertu eta ekarpenak egin ahal izateko. Proposatzen den ordenantza-zirriborroa udal webgunean azter daiteke [-eskoriatza.eus-](http://eskoriatza.eus), eta interesdunek 2024ko martxoaren 4ra arte izango dute zirriborroari ekarpenak egiteko.

Ekarpenak egiteko hainbat modu daude: alde batetik, H@ZIn, 08:00etatik 14:00etara bitartean astelehenean egubakoitzean, online -ziurtagiri digitala behar da-; webgunean; edo posta elektronikoz, udaltzaina@eskoriatza.eus-era idatzita.

Odola emateko autobusa martxoaren 7an eta 14an plazan

Euskadiko Odol Emaileen Elkartekoek odola emateko autobusa jarriko dute Fernando Eskoriatza plazan, kultura etxe-ko eraikinaren alboan, datozen bi egunetan, martxoaren 7an eta 14an -eguenak-. Bi egun horietan ohiko leku eta ordutegian egongo da autobusa; 16:30etik 20:15era bitartean, Fernando Eskoriatza plazan.

Odol beharra dagoela azpimarratu du Euskadiko Odol Emaileen Elkartek; gaineratu dute odol emateen kopurua handitzea premiazkoa dela, eta, horrenbestez, Eskoriatzan bi egunetan izango den unitate mugikorretara joateko eskaera egiten diete eskoriatzarrei. Odola eman ez euskal ospitaleen odol osagaien beharrei erantzuten laguntzeko, hain zuzen ere. Hala, herritarrak odola ematera gonbidatzen dituzte Eskoriatzan bi egun horietarako.

GORA ETA BEHERA



Euskara sustatzeko mezua ezabatu dute

Eskoriatzan ere euskaraz idatzita zegoen panelaren gainean grafitia egin dute. Horrekin batera, skate parkeko hainbat txokotan ere pintaketa berak agertu dira.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:68869007).

Mendi Tour Film Festival-eko lanak proiektatuko dituzte

Gaur eta domekan izango dira mendiko zinemaren onena batzen duten ikus-entzunezkoen proiektzioak

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Mendi Tourra mendiko abentura eta natura gaien inguruko zinema ziklo ibiltaria da. Urte osoko ibilbidea osatzen du BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia zinemaldiaren azken edizioako pelikula onenekin eta mendiko abentura eta natura gaien inguruko film erakargarrienekin. Hala, film labur esanguratsuenak bi egunetan eskainiko dituzte Zaldibar antzokian: gaur, egubakoitza, eta otsailaren 25ean, domeka. Sarrerak aldeztatik erosi daitezke, Manuel Muñoz kirol-

degian eta *bibe.me* webgunean. Prezioari dagokionez, egun biterako proiektzioak hiru euro ordaindu beharko dira eta bi egunetarako sarrera hartuz gero, bost euro.

Gaurko emanaldiak honako hauek izango dira, 19:00etan hasita: *The silent escape* (29 minutu), *Oinez* (18), *Light beams for Helena* (10), *Let it Bärn* (11), *Café americano* (14) eta *Zerbait aldatu da* (10). Etzi eskainiko direnak, berriz, hauek: *Rope* (29), *La gara* (15), *Elevated* (15) eta *212 Mountains* (40).



IMANOL BELOKI

Edukiontzia lekualdatu dituzte

Kimu ile-apaindegi aurreko edukiontzia urdina eta horia Olazar kalearen amaierara lekualdatu dituzte, bidegurutzean oinezkoen zein auto gidariaren ikusgarritasuna hobetzeko. Eremu berrian edukiontzia grisa eta marroia ere jarriko dituzte. Edozein argibide nahi duenak 943-50 47 21 telefono-zenbakira deitu dezake.

Javi Sound DJak errepikatu egingo du dantzaldien zikloa

Eskoriatzako Udalak hilean behin dantzaldi bat proposatzen du Zaldibar antzokian. Duo Imperialena izan zen egitasmoko lehenengo saioa, Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañagarena gero, eta Javi Sound DJa izan zen azkena. Hala, zapatu honetan, berriz izango da Javi Sound DJ oñatiarra aretoa musikaz girozen, 18:30ean hasita.

Zanbranako ehiza txikiko txapelketa martxoaren 10ean

Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkartekoen antolatutako ehiza txikiko txapelketa martxoaren 10ean izango da, Coto del Castillon, Zanbranako. Izen emateko azken eguna martxoaren 1a da, eta, horretarako, telefono-zenbaki hauetako batera deitu beharko da: 628 73 43 23 edo 671 24 84 85. Izen-ematea 30 euro da.

Eugenio Otsoa gogoan, urteurren-ekitaldia gaur

'Gure alkate zenaren omenez, lehenengo urteurrenean' izeneko ekitaldia antolatu dute gatzagarrek gaur arratsalderako. Eugenio Otsoa 'Gerra'-ren omenez ekitaldi "xumea" egin nahi dutela adierazi dute; bertakoek antolatuta, bertakoentzat

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Eugenio Otsoa hil zela urtebete pasa da, eta Gatzagako alkate izandakoa gogoratzeko ekitaldia prestatu dute gatzagarrek gaurko, egubakoitza. Herrigintzan nekazina, pertsona umoretsua eta gatzagarren artean zein bertatik kanpo pertsona maitatua zena gogoratzeko ekitaldia hitzaldi batekin hasiko dute; argazki erakusketa bat izango da; eta, mokadutxo baten ostean, triki-poteoarekin amaituko dute.

Gertukoek gogoratzeko

Ekitaldi xumea izango dela azaldu dute antolatzaileek. "Gertutik ezagutzen genuenok hura gogoratzeko ekintza izango dugu gaur. Norbanakoez gain, herriko elkarte eta eragileetako ordezkariak batu gara eguna prestatzeko eta, bide batez, haren pasadizo batzuk kontatzeko. Eugenio gogoratzea, hori da helburua", adierazi du Jon Sasiainek, Dorletako Ama Txirringulari Elkarteko kideak.

Hori horrela, lehenengo ekitaldia 18:30ean izango da, erabilera askotariko espazioan –eskola zegoen eraikinean–: Jose Mari Velez de Mendizabal historiazaleak *Leintz Gatzaga bere historian* izenburupean herriaren historia izango du berbagai.



Toki Eder elkartean omenaldia antolatzen. JON SASIAIN

Hark azaldu duenez, "ordubete-ko saioa izango da, arina eta modu ludikoan egindako kontakizuna. Herriaren gainean argitaratu gabeko kontu berriak adieraziko ditut, liburuetan jaso gabekoak, besteak beste", azaldu du Velez de Mendizabalek.

Argazki erakusketa plazan

Panel batzuetan Eugenio Otsoaren argazkiak jarriko dituzte, Leintz Gatzagako hainbat esparrutan agertzen dela. "Esaterako, Dorletako Ama Txirringulari elkarteko kideek zenbait

bizikleta jarriko ditugu Eugenio Otsoaren erretratu batekin. Mu-seoan agertzen den argazkia jarriko dugu, Sorginak Emakume Elkarteko kideek ere gogoan izango dute Otsoa, haren erretratu batekin... Plazan jartzea da asmoa, eta, eguraldi txarra bada, frontoian".

Joxerra Agirreurretaren gutuna

Ekitaldira begira antolatutakoek gain, Joxerra Agirreurretaren gatzagarren gutuna idatzi du Otsoa gogoratzeko. *Goiena.eus*-en irakurgai dago.

Energia berbagai

Nestor Arana eskoriatzarrak hitzaldia egin zuen astelehenean, Gatzagako erabilera askotariko gelan. Bertan, Eskoriatzan martxan jarri duten energia komunitatearen gainekoak izan zituen hizpide: zer den energia komunitatea, nortzuek osatzen duten, dituen onurak, eta martxan jarritako proiektuak ere izan zituen berbagai, besteak beste.



IMANOL BELOKI

"Lapikoa gutxi erabili ohi dugu, eta plantxa gehiegi"

JESUS KALBOETXEAGA SUKALDARIA

Martxoko lehen hiru astelehen eta eguazten arratsaldeetan sukaldaritza ikastaro praktikoa emango du San Joxepe elkarteko sukaldean; izena eman daiteke otsailaren 29ra arte

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Esperientzia luzea dauka Jesus Kalboetxeagak (Bergara, 1964) sukaldean lanean. Gaur egun itxita dagoen Zuhaitzi jatetxean aritu zen "hainbat urtez", eta azken hamahiru urteak Elgetako Maialde jatetxean egin ditu. Gogotsu hartu du Elikadura Mahaia martxora begira antolatutako sukaldaritza ikastaroa gidatzeko proposamena. Izena eman nahi duenak ehundu@ehundu.eus helbidera idatzi behar du otsailaren 29a baino lehen. Hamasei lagunendako lekua egongo da gehienez eta ikastaroa martxoko lehen hiru astelehen eta eguaztenetan izango da, San Joxepe elkarteko sukaldean, 17:30etik 20:00etara.

Sukaldean urte asko, baina baduzu esperientziarik ikastaroak gidatzeko orduan?

Egia esan, ez dut ikastaro askorik eman. Gogoan dut duela 15 bat urte saio batzuk eman nituela barazki-sukaldaritza oinarri hartuta, Mireia Alberdi dietistarekin batera. Honako hau beste ikastaro bat izango da.

Zein da ikastaroaren helburua?

Zero kilometroko produktua lehenetsita, betiere, Elikadura Mahaiko kideek galtzeko bidean dauden ohituretan eragin nahi dute, besteak beste. Nabaria da bereziki gazteengan kozinatze-ko ohitura galtzen ari dela; elkarte gastronomikoetan nire begiekin ikusi izan dut askotan: askoz ohikoagoa da kuadrilla gazteak egindako janaria berotzen ikustea kozinatzen ikustea baino. Etxeko oinarritzako sukaldearen garrantziaz ohartarazi nahi dugu, beste hainbat gomendiorekin batera.

Ze beste gomendio emango diezu izena ematen duten herritarrei?

Sukaldean egingo dugu lan, baina erosketak egiterakoan aintzat hartu beharreko aholku batzuk ere emango ditugu, kozinatze-ko askotariko teknikak, elikagaiak



Jesus Kalboetxeaga, Elgetako Maialde jatetxearen sukaldean, asteen. J.K.

"AZKARREGI BIZI IZATEAREN BESTE ONDORIO KALTEGARRI BAT DA BEHAR BESTE EZ KOZINATZEA"

kontserbatzeko gomendioak... Adibidez, bakarrik bizi direnei askotan gertatzen zaie janaria soberan geratzen zaiela; osagai batzuk berrerabiliz beste plater batzuk egin daitezkeela ikusiko dugu. Horrez gain, garrantzitsua da sukaldean edozer egiteko orduan ordena bat jarraitzea, eta hori beti izango dugu oso presente ikastaroan zehar; ondo jakin behar dugu noiz zer egin. Oso praktikoa izango da ikastaroa; izena ematen dutenek eroan ditzatela amantala, papeira eta boligrafoa.

Izena ematen dutenen arabera izango da ikastaroa, ala?

Erabat. Animatzen direnen beharren eta mailaren arabera izango da landuko duguna. Horregatik, ikastaroko lehen eskola klabea izango da; izena ematen dutenei inkesta labur bat pasatuko diegu, euren beharrak zeintzuk diren ahalik eta ondoen jakiteko. Elikadura Mahaikoek arrain-zopa, menestra eta askotariko gisatuak prestatzea dute buruan, hasiera batean.

Zergatik uste duzu ari dela galtzen kozinatze-ko ohitura?

Hainbat faktore egon daitezke, baina azkarregi bizi izatearen beste ondorio kaltegarri bat dela uste dut. Niri ere gertatzen zait; askotan eroaten dut etxera jatetxean kozinatzen dudana. Bestalde, ulertzekoa da gazteek garrantzi handirik ez ematea sukaldean aritzeari, eta urteekin

Elikadura Mahaitik sortutakoa

Kalboetxeagak gidatutako duen ikastaroa Elikadura Mahaitik sortutako ikastaroa da, eta honela azaldu dute nondik sortu zen ekimena: "Elikadura Mahaiko kideek eta taldeek kezka bat jarri zuten mahai gainean, etxeko erosketa eta jana prestatzeko orduan oinarria falta zela eta galtzen ari zela. Plater berritzaileak eta postreak jarraitzen ditugu sare sozialetan, baina edozein gauza prestatzeko oinarria oso garrantzitsua da. Elikagaien prezioa kezka-iturri orokorra den garai honetan, lapikoko janaria da, hain zuzen ere, berreskuratu behar zen zerbait. Eta hutsune hori betetzeko saiakera egitera dator ikastaro hau".

hazten joaten dela kezka, baina, oro har, ez diogu behar besteko denborarik eskaintzen sukaldari. Lapikoa gutxi erabili ohi dugu gaur egun, eta frijitzeko plantxa gehiegi.

Gainera, erosketa-saskia bereziki garesti dago azkenaldian...

Halaxe da. Oreka bilatzean dago gakoa, baina ukalezina da bertako produktu freskoaz gozatzeko ordaindu egin beharra dagoela. Janaria merkegia izatea ez da seinale ona izaten.

Duela 15 urte eman zenuen ikastarotik asko aldatu dira gauzak?

Askok aldatu dira gauzak, bai. Gogoratzen dut orduko ikastaroaren helburu nagusia zela ezohikoak ziren barazkiak erabiltzen irakastea. Orduan baziren osagaiak belar-dendetan erosi beharrekoak zirenak, baina gaur egun ia edozein janari-dendatan aurkitu daiteke ia denetarik.

Zergatik inbertitu beharko genuke denbora gehiago sukaldean?

Erosketaren eta kozinatze-ko prozesua norberak kontrolatzea aurrerapauso osasungarria da; beti saiatzen naiz nire bi alabei plater osasungarriak ematen. Beste kontu bat da etxetik kanpo jaten dutena...



Sanmartzialaldeko landaketa. GOIENA

Zuhaitz landaketa atzeratu egin dute, eguraldiagatik

Kukubasok eta Udalak biharko, hilak 24, antolatuta zuten Gorrilara bidean dagoen Itsasmendi lur eremuko zuhaitz landaketa atzeratu egin dute, eguraldi iragarpenengatik: "Eurria, hotza eta haizea aurreikusten denez eta izena eman dutenen artean ume asko zegoela ikusita, landaketa aurrerago egingo dugu. Datozen egunetan jakinaraziko dugu data berria".

PSE-EE: "Sanchezen zergei esker ia 140.000 euro jasoko ditugu"

Bergarako PSE-EEaren arabera, Bergarako Udalak ia 140.000 euro jasoko ditu Pedro Sanchezen Gobernuak energiaren sektoreari eta bankuei onartutako "aparteko zergei" esker: "Neurri horrek aparteko diru-sarrerak ekarri dizkio Gipuzkoari, zazpi milioi euro baino gehiago, eta horri esker udal zerbitzu publikoak indartu egingo dira".

Sozialistek prentsa ohar bidez aditzera eman dutenez, Sanchezen Gobernuaren zerga horiek "funtsezkoak" izan dira, Ukrainako gerraren ondorioek eragindako krisi garaian, administrazio publikoek gizarte-babesa indartu ahal izateko: "Pedro Sanchezen Gobernuak ulertu eta martxan jarri zuen neurri hori energiaren sektoreak eta bankuek, energiaren prezioaren igoerarekin eta interes-tasekin lortzen ari ziren etekinen zati batekin lagundu zezaten. Gehien irabazten duenak gehiago lagundu behar du. Eta, batez ere, fiskalitate handiagoa lortzen da".



Orixondo azokaren gaur egungo egoera; Elikaenea denda-topagunea udaberrian martxan izatea dago aurreikusita. J.B.L.

Saltzaileek "beste aukera bat" eskatu diote Udalari

Orixondoko hiru postu finkoetako saltzaileak ez daude ados azoka hilabete oso batez itxeko Udalaren proposamenarekin, eta euren jarduna ez eteteko alternatibak eskatu dituzte; Udal Gobernuak saltzaileekin berriro elkartuta konpondu nahi du auzia

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Oxirondo azokako postu finkoetako saltzaileak ez daude ados Udalak "azoka biziberritzeko proiektuaren" barruan azken lanak egiteko eraikina hilabetez erabat itxeko duen asmoarekin. "Udaletik jakinarazi digute nahitaez itxi egingo dela merkatu osoa, estetikoki egokitzeko. Horretarako, postu finkoak itxi egingo dira, eta diote hilabete bat izango dela, baina badakigu halako lanetan epeak luzatzeko arrisku handia egon ohi dela. Lan horiek ezin dira egin, adibidez, abuztuaz? Beste aukera bat ematea eskatzen dugu eraikina guztiz itxi baino lehen", adierazi diote GOIENARI.

Hiru postu finkoetako saltzaileak Gaur egun, hiru postu finko daude Oxirondon, eta, udaberrian zehar irekitzeko den Elikaenea denda-topagunerako lanak hasi zirenetik, postu ibiltariak eraikinaren atarian dagoen karpa erabiltzeko aukera dute. Bere-

ziki postu finkoetako saltzaileak dira Udalaren erabakiarekin ados ez daudenak. "Saltoki finkoetako merkatariekin, lehen sektoreko baserriarekin eta Udalarekin bilerak egin ondoren, merkatua hobetzeko proiektu bat gauzatu da, zero kilometroko produktuen denda bat barne. Esku-hartze honetan, merkatuaren zati bat urte erdi baino gehiago egon da itxita, eta itxi egin behar izan da arrandegia, baina ez erdialdeko gunea eta postu finkoak".

"Ez dugu ulertzen zergatik"

Udalari galdegin diote ea ez den beste aukerarik: "Gaur egun, jakinarazi digute nahitaez itxi egingo dela merkatu osoa, es-

ERAIKINA HILABETEZ ERABAT ITXI AURRETIK ALTERNATIBAREN BAT EMATEA ESKATU DUTE HIRU SALTZAILEEK

tetikoki egokitzeko. Horretarako, postu finko guztiak itxi egingo dira eta mahaiak dauden erdiko eremutik irten egingo dira. Nola ulertzen da erdiko eremua hustu behar dela postu finkoen parean lanak egiteko? Lanek ukitutako eremua mugatzeko aukera egon liteke, mahaien funtzionamendu zentralen eraginik izan gabe. Postu finkoak hustu egin behar al dira aurrealdean estalki bat bakarrik egiteko? Ezin al da postuz postu jardun, bakarka, postu finko bakoitza behar den denboran bakarrik itxiz? Ez dugu ulertzen zergatik itxi behar den merkatu osoa".

Udal Gobernuak, adierazpenik ez GOIENAK Udal Gobernuaren gana jo du azokako saltzaileen eskaeraren gainean galdetzeko, eta diote "oraingoz" ez dutela gaiaren gaineko adierazpenik egingo eta saltzaileekin berriz ere batzartuta saiatuko direla arazoari konponbidea ematen.



NIRE USTEZ

KARMELE URIBESALGO

Etxera buelta

Pare bat urtez Bilbon bizi izan ostean, herrira itzuli naiz: Bergarara. Erosoena zelako? Agian ez. Bilbon egiten dut lan, eta orain joan-etorria egin behar dut egunero. Kosta egiten zait erabakiak hartzea, eta aitortuko dut berotu didatela burua azken hilabeteetan entzundako "ziur zaude?", "ez al dizu neke handia eragingo?" eta "txiki geldituko zaizu herria" bezalako esaldiek. Baliteke guztiz ziur ez egotea, baliteke neke handia eragitea, eta baliteke herria txiki gelditzea, baina iruditu zitzaidan horretarako momentua zela, Bilbo utzi eta Bergarara etortzekoa.

Betidanik gustatu izan zaizkit hiriak, eta banuen hiri batean bizitzeko gogo. Dena den, noizean behin aitari botatako esaldi bat etortzen zait gogora. Erasmusera joan aurretik, aireportura bidean geundela, hauxe esan nion: "Nik uste dut ez naizela inon Bergaran baino hobeto biziko".

Zazpi urte pasatu dira ordutik, eta orain badakit beste leku batzuetan ere oso zoriontsu izan naitekeela, baina une honetan, behintzat, hau da nire lekua.

OHARRAK

Jabekuntza Eskolarako izen-ematea

Martxotik ekainera arteko egitarauko ikastaroetan izena emateko aukera egongo da otsailaren 28ra arte: 943-77 91 45 edo berdintasuna@bergara.eus. Zaintza zerbitzua egongo da.

Udalaren Euskara Planera begirako galdetegia

2024-2028ko epealdirako Euskara Plana egin nahi du Udalak, eta herritarren iritzia jasotzeko galdetegi labur bat prestatu du. Martxoaren 3ra arte bete ahalko da galdetegia: www.bergara.eus.

Helduendako ornitologia tailerren izena eman

Mendia Bizirik taldeak eta Seo Birdlife erakundeak hegaztiez ikasteko saioa antolatu dute martxoaren 9rako, Laboratoriumen. Izena eman behar da martxoaren 6a baino lehen: 943-76 90 03.

Erramu-zapatuko txorimaloen erakusketa

Urte luzez Erramu-zapatuko ohiko ekintzetako bat izan den txorimaloen erakusketa berriro antolatu nahian dabil Jardun. Ekimenak aurrera egiten badu, aurtengoa 27. edizioa izango da. Parte hartu nahi duenak martxoaren 11rako eman behar du izena, Jarduneko bulegoan, gaztejardun@topagunea.eus helbide elektronikoa edo 605 71 24 69 telefono-zenbakian.

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurrira
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Empresa Registrada Nº90/025

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Jardun euskara elkarteak, OIaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak hitzaldi berezia antolatu dute otsailaren 27rako, OIaso Dorrean (19:00). *Bergarako sinboloez jabetzen* izenburua jarri diote saioari, eta lau hizlarik hartuko dute parte: Bergara Dekolonizatu taldeko Luciana Alfarok eta Izar Odriozolak, Patxi Olabarriak eta Ibai Sanzek. Nabarralde 2023ko azaroan Hernanin antolatutako hitzaldi sorta batetik sortu zen saioa Bergaran antolatzeko ideia, Izar Odriozolaren arabera: "Gipuzkoako armariaren gaineko saioa izan zen Hernanikoa, batik bat. Solasaldi bat ere izan zen, hainbat herritako prozesuak kontatzeko, sinboloen aldaketekin lotutakoak. Formatua aldatuta Bergarara ekartzea interesgarria iruditu zitzaigun".

Bergarako banderatik hasita

Hala, hilaren 27ko hitzaldiaren helburua da Bergarako sinboloez jabetzea, *Antzuolako armariaren alardea* liburua idatzi zuen Patxi Olabarria antzuolarrak zehaztu duenez: "Jabe egiteak bi esanahi ditu, sinboloen esanahiaz konturatzeko eta sinbolo horiek geure egitea; bada garaia sinboloen eta haien jatorriari merezi duen garrantzia eman diezaiozun, eta, hala erabakitzen bada, eraldatu ditzagun". Olabarriak, besteak beste, Bergarako bandera izango du hizpide: "Antzuolako eta Bergarako historia oso lotuta daude, eta iaz idatzi nuen libururako lanketan hainbat gauza deskubritu nituen Bergarako sinboloen buruz. Adibidez, Bergararen berri ematen den lehen dokumentuan herriaren izena *B* hizkiarekin agertzen da, *V* hizkiarekin izan beharrean.

Sinbolo kolonialeari arreta jarri, gogoeta eragiteko

Jardunek, OIaso Dorrea Fundazioak eta Udalak 'Bergarako sinboloez jabetzen' hitzaldia antolatu dute otsailaren 27rako, OIaso Dorrean (19:00); Dekolonizatu Bergara taldeko Luciana Alfarok eta Izar Odriozolak, Patxi Olabarriak eta Ibai Sanzek egingo dute berba



Unai Garmendia eta Julen Garmendia musikari bergararrak Iralaren monolito aurrean jotzen, urriaren 12ko ekintzan. GOIENA

Bestalde, Bergarako banderaren borboitarren gurutzeta dago, Vox alderdi ultraeskuindarrak sustatutako Sanchezen kontrako azken protestetan askotan agertu izan den sinboloa".

"Gogoeta" eragin nahi

Odriozolak gaineratu du "gogoeta" eragin nahi dutela: "Bergarako sinbolo kolonialak seinala-

tu eta horien inguruan hausnarketa kritikoa sustatu nahi dugu. Sinboloak eta tradizioak hor daude, eta zalantzan jarri ezean bere horretan jarraituko dute urte luzez. Sinboloak kalearen parte *naturalizat* jotzen dira; askotan, galdetu ere ez dugu egiten harri zati batean zizelkatutakoa zer den. Iralaren monolitoa da horren adibide. Epiko-

tasuna gehitzen zaio sinboloen kontakizunari, eta interesatzen den kontakizun bakarra agertzen da. Nahi edo ez, gure historiaren parte da iragan kolonoa, eta garrantzitsua da sinbolo horiekin zer egin galdetzea: identifikatzen gaituzte? Eraitsi egin behar dira ezer gertatu ez balitz bezala, edo zapalduaren kontakizuna erantsi behar diegu?".

San Martin eta Martinez de Irala
Odriozolak aurreratu duenez, batez ere San Martin Agirreren eta Domingo Martinez de Iralaren inguruan dagoen sinbologiaz eta tradizioaz jardungo dute: "Tradizioaren pisua zalantzan jarri nahi dugu; sinbologiak indartzean botere-harreman batzuk sortzen dira, eta kosta egiten zaigu horiez kontziente izatea". Otsailaren 27ko hitzaldia ez da Dekolonizatu Bergara taldearen lehen ekintza bi pertsonaia historiko horien gaineko hausnarketa eragiteko; 2023ko San Martin jaietako helduen danborradaren testuinguruan pankarta bat jarri zuten San Martin plazan, *Tanborrada bai. Estampa zertarako?* mezuarekin, eta 2023ko urriaren 12an Fraizkozi plazako Iralaren monolitoa estali eta "ekitaldi antikoloniala" egin zuten.

Odriozolak dio halako aldaketek "prozesu luzea" eskatu ohi dutela: "Gai horren inguruko interesa duen jendea aurkitu ahala pentsatuko dugu zer egin, baina gure helburua da sinbolo kolonial horien gaineko hausnarketa zabalitzen joatea, prozesu luzea baita aldaketak gertatzearena. Agian, ez dugu aldaketa guk ikusiko, jakin badakigulako sinbologiak eta tradizioak denbora behar dutela aldatzeko, baina aldaketen lurra eraiten joan behar da noizbait erreala izan daitezen". Hitzaldira joateko dei egin du Odriozolak: "Ea ideia interesgarriak irteten diren!".

HERRIKO BANDERA, SAN MARTIN ETA IRALA IZANGO DITUZTE BERBAGAI, BESTEAK BESTE

Dei egin dute Tolosarako

Herriko pentsiodunek asteleheneko ohiko elkarretaratzea baliatu zuten dei egiteko martxoaren 1ean Tolosan egingo den Bertsopentsiotan lehen bertso jarrien lehiaketara joateko. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak espero du 300 bat pentsiodun elkartzea Tolosan; 13:00etan Triangulo plazatik kalejiran irtengo dira, eta 14:00etan hasiko da bertso bazkaria.



BERGARAKO PENTSIODUNAK

Bedelkar: udazken eta neguko aukeren azoka asteburuan

Bedelkar merkatarik elkartearen udazkeneko eta neguko aukeren azoka izango da asteburuan. Atzokoa izan zen lehen eguna, eta gaur eta bihar ere, ekimenean parte hartuko duten komertzioek askotariko produktuak jarriko dituzte salgai prezio murriztuan saltoki aurrean, denda zabalik dagoen ordutegian. Herrian erostea da ekimenaren helburua.



Emakume artisten erakusketaren irekiera Aroztegi aretoan, iaz; gaurko irekiera 19:00etarako dago aurreikusita. GOIENA

Inspirazio gisa dituztenak omenduko dituzte aurten

Martxoaren 8aren bueltako egitarauko klasikoetako bat da Bergarako emakume artisten erakusketa. Aurten, herriko eta kanpoko emakume artistei egin nahi izan diete omenaldia; gaur irekiko dute erakusketa, Aroztegi aretoan, martxoaren 10era arte

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Martxoaren 8aren bueltan Bergaran antolatzen diren ekitaldien artean errotu denetako bat da herriko emakume artisten erakusketa. Aurtengoa zortzigarren edizioa izango da, gaur ireki eta martxoaren 10era arte Aroztegi aretoan ikusgai egongo dena. Antolakuntza taldeko Justina

Elexpuruk aurreratu duenez, aurten herriko zein kanpoko emakume artistak omenduko dituzte: "Askotariko arloetan aritu diren emakumeak dira, herrikoak eta kanpokoak, batzuk ezagunak eta beste batzuk ez hain ezagunak. Gaia anbizio handikoa, da eta ziur polita irtingo dela; zeresana ematea es-

pero dugu. Herritarrei erakusketara joateko dei egiten diegu".

Irekiera ekitaldia gaur izango da, 19:00etan. "Hasiara batean, ez dugu ezer berezirik antolatu irekiera ekitaldira begira, baina izan daiteke azken orduan zerbait inprobisatzea. Zerbait egitekotan, xumea izango da", aurreratu du Elexpuruk.

Nazioarteko artistei keinua

Honako artista hauen diziplina askotarikoko lanak egongo dira ikusgai Aroztegi aretoan: Alicia Garcia, Amaia Santamaria eta Nekane Barnel, Ana Abajo, Arantzazu Arregi, Cecilia Dulanto, Idoia Etxarri, Jone Albeniz, Justina Elexpuru, Lierni Narbaiza, Maialen Lopez, Maite Azkargorta, Mariñe Jauregi, Mireia Gonzalez, Nerea Kerejeta, Usoa Mendikute eta Mari San Vicente.

Adibidez, Ana Abajo bergararrak Ana Mendieta artista kubatarra izan du inspirazio iturri: "Ana Mendieta asko zuen esateko, eta denbora gutxi izan zuen hori kontatzeko. Errespetuz eta begirunez inspiratuko naiz haren lanetako batean nirea propioa sortzeko". Nazioarteko beste artista batzuetan oinarritu da Cecilia Dulanto bergararra: "Tracey Emin-en *Everyone I Have Ever Slept With 1963-1995* obra eta Caro Mantken-en hainbat obra inspirazio-iturri hartuta, emozioen eta sentimenduen mundua aztertu eta konpartitu nahi izan dut. Obraren helburua da emozioetatik sentimenduetarako bidaia aztertu eta, ikuslearekin bat, emozio zein sentimendu batzuen normalizazioa bilatzea". Nazioarteko artistengana jo izanaren beste hiru adibide dira, besteak beste, Maite Azkargortak Esperanza Spalding musikariari, Mariñe Jauregik Raluca Burca irudigileari eta

Usoa Mendikutek Alba Ceide komikigileari eskainitakoak.

Herriko sortzaileak ere gogoan

Bestalde, badira Bergarako artistengan inspiratu direnak ere. Arantzazu Arregik bere izaba Luisa Arregiri eskaini dio margolana: "Luisa Arregi nire izaba zen, musikari eta margolari bikaina. Harekin hasi nintzen margotzen eta haren omenez erretratu bat aurkeztuko dut: nire biloba Aritz *Aritz kapelarekin* obra. Justina Elexpuruk Asuntxi Gallastegi musika irakaslea izan du gogoan, gaur egun bizirik dagoena: "Luzaro bergarar askoren musika irakasle izan zen. Gaur arte San Pedro eta Santa Marina elizetan organo-jole; nire miwesmena zuri, artista bikaina zaren horri!". Era berean, Euskal Herriko sortzaileak ere badira protagonista; horren adibide da Mireia Gonzalez bergararrak Karme Jaio idazlearen *Amaren eskuak* liburuan oinarrituta sortu duen *collage*-a.

Esker on hitzak ere izan dituzte antolatzaileek: "Eskerrik asko beste urte batez proiektu polit hau aurrera ateratzea posible egin duzuen guztioi".

ZORTZIGARREN EDIZIOAN, HAMAZAZPI ARTISTAREN LANAK EGONGO DIRA AROZTEGI ARETOAN

Elektronika jaialdia aste bukaeran kartzela zaharrean

Gaur eta bihar, askotariko elektronika doinuak izango dira protagonista kartzela zaharrean, Germinal Anti-Festibala ekimenaren barruan. Gaur, Shizzo proiektuaz gozatzeko aukera egongo da (22:30), bost musikariren parte hartzearekin: Fernando Carvalho, Garazi Navas, Ibon RG, Enrike Hurtado eta Jon Zearra. Bihar, zazpi proposamen egongo dira, zuzeneko taldeak eta DJak kontuan hartuta (18:30): Haira, Telmo Trenor, TTB, Passand, Paloma de Casso, Katza eta Balza B2B. Egubakoitzean eta zapatuan zortzi euro ordaindu beharko da sarrera; ez da sarreren alde aurretiko salmentarik egongo.

Txotxongiloen mundu berezian murgiltzeko aukera Seminarixoa

La Enana Naranja antzerki konpainiaren *Zimurren artean kontu kontari* antzezlanaz gozatzeko aukera egongo da bihar, otsailak 24, Seminarixoa (18:00). Iker Garciaren zuzendaritzapean, Itziar Fragua, Marta Alvarez eta Jon Koldo Vazquez antzezleak eta txotxongiloak izango dira obrako protagonistak: "Belaunaldi zaharrei egiten diegun omenaldia da hau. Hamar abesti berri, jakinduriaz eta maitasunez beteak, ume, guraso eta aitona-amonek dantzatu eta abestu ditzaten".

Sarrerak lau eurotan daude salgai www.seminarixoa.eus webgunean. Ordu bete inguru iraungo du ikuskizunak.



KORRIKA BATZORDEA

Korrika batzordea, buru-belarri

Korrika batzordea martitzenean elkartu zen, hainbat gai lantzeko: Korrika-lagunen egoera, Korrika Kulturalaren egitaraua, Korrika Txikia, kilometroen banaketa... Ekintzak ere hasi dituzte, motorrak berotzen joateko: atzo, adibidez, saskigintza tailerra egin zuten Aspacekoek

udaletxeko arkupeetan; eta otsailaren 28an *Negu urdinak* filma ikusteko aukera egongo da Seminarixoa (20:00). Korrikarako kilometroa erosteko aukera dagoela gogoratu dute: 688 74 66 35 edo korrikadebagoiena@gmail.com. Batzordea martxoaren 5ean elkartuko da berriro.



Errekalde auzorako sarrera eta irteera moldatu egin dituzte, eta biribilgune erako bat –gorriz– egin dute. A.R.K.

Azken ukituen faltan, prest da Errekalde auzoa

Lazaretoa etxea eraitsi dute, eta aparkalekua egin; hala, auzoguneko aparkalekuekin batuz gero, 55 leku daude ibilgailuentzako; lehen baino hamasei gehiago. Argiteriari dagokionez, instalatzen dabilta asteon; parkea, berriz, gerora egingo dute

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ANTZUOLA

Irailaren 15ean hasi ziren Errekalde auzoa berrurbanizatzeko lanak, eta, bost hilabeteren ostean, Antzuolako Udalak jakinarazi du "obra zibilari" dagokionez "dena" dagoela bukatuta: "Epe barruan egin da lan guztia, baina argiteria gelditzen da. Materiala obraren

hasieran eskatu genuen, eta farolak iritsi dira dagoeneko. Aste honetan zehar ziren instalatzeak", adierazi du Aritz Igeltz Hirigintza zinegotziak. Horrez gain, nabarmendu du beste lau farol jarriko dituztela aparkalekua argiztatzeko, handiagoak, baina lau aste barru iristea espero dute; alegia, martxo erdialderako.

Hain justu, aparkalekuari dagokionez, Lazaretoa etxea eraitsi dute, eta, orain, 26 aparkaleku daude han. Horrez gain, eremu berean aparkaleku irisgarri bat dago, beste bat motorrentzat eta beste bi karga elektrikoarentzat. Hala ere, auzoguneko aparkalekuen kopurua gehituz gero –30 aparkaleku, eta horietako bat irisga-



Errekalde auzoko aparkaleku berria, Lazaretoa zegoen lekuan. A.R.K.

Lazaretoaren ordeaz, aparkalekua

Izurrite eta gaixotasun kutsakorrek zuzen eriak zaintzeko asmoz, 1908an eraiki zuten Lazaretoa etxea. Ez du erabilera handirik izan, ordea, azken urteetan, eta, azkenean, iaz bota zuten eraikina, eraiki berri duten aparkalekua egiteko.

ria-, 55 leku daude, guztira, ibilgailuentzako. Obraren aurretik, zehazki, 39 ziren, eta horietako bat irisgarria zen.

Parkea, gerora

Igeltzek azpimarratu duenez, 710.000 euro zehaztu zituzten hasieran obra egiteko, eta 90.000 euro aurreikusi zituzten ezusteko lanak eta hobekuntzak egiteko. Hala, nabarmendu du 800.000 euroko aurrekontua izan dutela, eta, dena gastatuta, ez dutela izan, esate baterako, jolas parke berria egiteko aski diru. Dena den, martxan dira dagoeneko, aurrekontuak eskatuta baitituzte.

Horrez gain, lan xumeagoak egitea ere falta da, hala nola zakarrentziak eta kaleko bankuak jartzea, eta auzoguneko baranda zahar batzuk berriengatik ordezkatzeko. Are gehiago, azpima-

rratu du etxeetako fatxadak garbitzeko eta margotzeko dardela, obraren ondorioz zikindu egin direlako.

Errepidea kezka gairi

Kezkatuta ere badago, ordea, Udala, GI-632 errepidetik igarotzen diren ibilgailuak "oso azkar" igarotzen direlako Errekaldetik. "Asmoa biribilgune bat jartzea zen, baina, azkenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zuen obra hori baimendu; abiaduraren arazoa, beraz, ez da konpondu". Nolanahi ere, Diputazioarekin batu zen atzo Igeltz.

UDALA KEZKATUTA DAGO GI-632 ERREPIDEAN DABILTZAN AUTOEN ABIADURAREKIN

Haize-errota bat irudikatuko dute etzi, giza katea eginda

Meaka-Irimo herri plataformak antolatuta, Cilda Energy SLU enpresak Meakan eta Irimon ezarri nahi dituen aerosorgailuak irudikatuko dituzte domekan, otsailaren 25ean, giza katea eginda; haize-errotetako bat, zehazki. Plataformako kideek azaldu dutenez, aerosorgailuaren zutabea ez ezik –115 metro–, instalazioaren hiru orratzak irudi-

katzeko asmoa ere badute. 85 metro luze da orratz bakoitza, eta, beraz, zutabearen luzerarekin batuz gero, hirurehun metroko giza katea egin behar lukete. "Kalkuluen arabera, berrehun pertsona beharoko genituzke, gutxienez, baina hirurehunera ailegatzeko bagara, askoz ere hobeto".

Berriztagarriak bai, horrela ez izenpean, Kalebarrenen egin dute hitzordua etziko, 12:30ean. Herritarrei bertaratzeko dei egin diete plataformako kideek.

Abasolo eta Alzola garaile

Iñigo Alzola arrasatearra (1.04.29) eta Garazi Abasolo (1.18.32) aretxabaletarra izan ziren irabazleak A8M lasterketan hilaren 17an. Alzolak hurrenez hurren izan zituen Aitor Zunzunegi legorretarra (1.04.50) eta Aimar Larrea antzuolarra (1.05.02); Abasolok, berriz, Mayi Mujika legazpiarra (1.20.01) eta Irati Larrañaga usurbildarra (1.22.28).



IMANOL SORIANO

'Azalerako ipuinak' ditu proposamen Bikandik

0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren inguruko helduei zuzendutako proposamena da, gorputza eta ipuinak zein jolasak uztartzen dituen. Hiru saio izango dira: martxoaren 20, apirilaren 10ean eta 24an, ordu erdikoak. Izena eman behar da aurrez

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Gorputzean arreta jarrita, eta ipuinak eta jolasak hizpide izanda, *Azalerako ipuinak* izenpean hiru eguneko tailerra eskainiko du Saroa Bikandi ipuin kontalari durangarrak Antzuolako udal liburutegian, 0 eta 3 urte arteko haurrei zuzenduta; otsailaren 26an irekiko da izen-ematea, astelehenean, martxoaren 8ra arte. "Masajeak eskaintzen duen hitzik gabeko komunikazioa baliatuz, eta ipuinek, poemek, hitz-jokoek, kantuek, jolasek eta liburuek eskaintzen dizkiguten beste komunikazio mota batzuk erabiliz, giro lasai eta samurra sortzea da xedea", azpimarratu du Ane Leturiak, Antzuolako liburuzainak.

Helburuak, ordea, giro harmoniatu bat sortzeaz harago, gehiago dira: "Azalerako ipuinak ezagutzea, haurrak hazten doazen heinean jolasteko aukeratzat hartuta; baita azalerako ipuinak asmatu eta moldatzeko erremintak ematea ere". Horrez gain, Leturiak erantsi du euren asmoa dela liburutegian dagoen materiala ezagutaraztea taillerretan, eta parte-hartzaileak ipuinaren garrantziaz jabetzea irakurzaletasuna bultzatzearekin batera. "Are gehiago, entzute pertsonala garatzea ere bada xedea, eta gure espresio, sorkuntza eta komunikazio gaitasunak aurkitzea". Amaitzeko, helburutzat dute talde bat sortu eta familiak elkar ezagutzea, haur eta familia horiei guztiei "kalitatezko espazio bat eta denbora" eskainita.

0 eta 3 urte artekoentzat

0 eta 3 urte arteko haurrei zuzenduta dago tailerra, eta, beraz, Leturiak nabarmendu du heldu batekin joan beharko dutela. Hain justu, hiru saio egingo dituzte, guztira, ordu erdikoa bakoitza, adin tarte horretara



Sarola Bikandik gidatuko ditu *Azalerako ipuinak* taillerreko hiru saioak. GOIENA

egokitu baitute denbora: martxoaren 20an, apirilaren 10ean eta apirilaren 24an, 17:30etik 18:00etara, liburutegian. Hala ere, gehienez ere hamabi familiarentzat lekua izango da, haur eta heldu bana aintzat hartuta. Izen emateari dagokionez, berriz,

bi bide daude: 673 90 53 28 eta liburutegia@antzuola.eus.

Bikandiren esperientzia

Hamar urte baino gehiago daramatza Bikandik umeen literatura lantzen, esparru horretan sakontzen hasi baitzen ama izan zenean, eta orduko hartan ohar-tu zen hizkuntzaren lehen ikasketak prozesua gorputz adierazpenarekin "zeharo lotuta" zegoela. Eta hori aintzat hartuta ondu zituen *Azalerako ipuinak* taillerrek, umei eta gurasoei "tarte goxoa" eskaintzeko.

LIBURUTEGIAN ZEIN MATERIAL DAGOEN ERAKUSTEA ERE BADU HELBURU EGITASMO HORREK



NIRE USTEZ

PILAR ETXANIZ

'In memoriam'

Antzuolako Alardeak Hondarribia Berdintasunaren Hiria saria jaso zuen irailean, Jaizkibel Konpainiaren eskutik. Orduko hartan, emakume bat gogoratu nuen, eta martxoaren 8a laster den honetan, berriz etorri da nire memoriara Pikunieta baserriko Idoia Azkarate, bera lotzen baitut Alardearekin eta berdintasunarekin.

Ondo gogoratzen dut, beste emakume batzuei bezala, nola proposatu genion biziberritutako Alardean parte har zezan. Ez zuen arma usaina gogoko, baina berdintasunarena bai, ordea. Onartu egin zuen. "Bidasoaldeko konpainia mistoetako emakume eta gizonezkoak omendu nahi ditut. Normaltasun baten barruan, aldaketak onartzen dituen herri baten partaidea izateak poztzen nauen heinean", idatzi zuen *Goienkaria*-n 2009ko uztailan.

2012an hil zen Idoia, alboko esklerosi amiotrofikoa gaixotasunaren eraginez. Ezingo du sariaren ezta dastatu; horregatik, bere ekarpen xumea, baina sinbolismo handikoa, ekarri nahi izan dut orri honetara.



Aiherra-Antzuola eguna 2023ko urriaren 28an, Antzuolan. AITZIBER ARANBURUZABALA

Segura izango du lehen geltoki Aiherra-Antzuola egunak aurten

Martxoaren 10ean izango da ospakizuna, Iparra-Hegoa dela eta; izena eman daiteke autobusean eta bazkarian

A.R.K. ANTZUOLA

Berrogei urte bete ditu aurten Aiherra (Nafarroa Beherea) eta Antzuola herrien arteko senidetzeak, eta ospakizun urtea dute herritarrek. Antzuolan apirilaren 13an, zapatua, ospatuko dute urtemuga bi herriek, baina motorrak berotzeko aukera izango da aurrez, Seguran (Gipuzkoa) izango baitira martxoaren 10ean, domekan, Iparra-Hegoa jaialdia dela eta.

11:00etan elkartuko dira aihertarrak eta antzuolarrak Seguran, eta *Mugak zubi* ibilbideko etapa bateko kilometro bat egingo dute

elkarrekin; handik igarotzen dena, hain justu. Ondoren, Iparra-Hegoa jaialdiko ekitaldiekin egingo dute bat; esaterako, herri bazkaria izango da, Kuxkuxtuk alaituta; ondoren, Imuntzo eta Belokiren erromeria.

Hala, autobusa antolatuko du Antzuolako Udalak: 10:30ean izango da irteera Sagasti auzotik eta 18:30ean itzulera. Martxoaren 1a da izena emateko azken eguna, eta bi modu daude horretarako: udaletxean edo udala@antzuola.eus helbidean. Bazkarirako ere eman daiteke izena; 20 euroko prezioa du.



Elgeta Herri Hezitzailea taldeak eguaztenezan egindako batzarra. L.Z.L.

Elgeta Herri Hezitzailea taldea sendotzeko deia

Bada urtebete talde sustatzailea martxan dela. Eskolako, Udaleko, guraso elkarteko, liburutegiko, ludotekako eta eskola kiroleko ordezkariak hileroko elkartzen dira. Egitasmoa zabaltzeko eta indartzeko, herriko gainerako eragileei dei egin diete orain

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Hogei bat lagun elkartu ziren Elgeta Herri Hezitzailea lantaldeak deituta eguaztenezan udal txeko areto nagusian egindako batzar irekian. Hezkuntzako udal arduradun Kepa De Vegak eta Oinherri ekimeneko hezitzaile Arrate Gazteluk egin zuten aurkezpena. "2023an sortu zen Elgeta Herri Hezitzailea lantaldea. Abiapuntua izan zen Udalak Oinherri herri hezitzaileen sarearekin sinatutako hitzarmena. Ordutik, talde sustatzailean gauden sei eragileak hileroko elkartu gara. Taldea indartzea eta sendotzea da helburua aurten", azaldu zuen De Vegak.

Herri hezitzaileen sarea filosofia batean oinarritzen dela azaldu zuen, berriaz, Oinherriko Arrate Gazteluk: "Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzean datza. Hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitze ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzailearen eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdinean eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta ingurumen kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea".

Elkarlanerako deia

Proposamen zehatza egin zieten batzarrera joandako eragileei Elgeta Herri Hezitzailea taldeak.

"Lan dinamika bat sortu nahi dugu administrazio publikoaren eskutik herriko eragileak gai horretan elkarlanean jartzeko", zehaztu zuen Gazteluk. "Ikasurte honetarako taldean ezarri ditugun helburuak dira umeen parte hartzea sustatzen jarraitzea [aurreko udalekuetan egindako dinamikari egin zion erreferentzia De Vegak] eta taldea indartzea eta sendotzea. Eragileak saretu egin nahi ditugu".

Parte hartzeko hiru modu

Kepa De Vegak azaldu zuen talde sustatzaileak jarraituko duela hilean behin elkartzen. "Inork talde horretan sartu nahi badu, eskaera egin dezake; baina hileroko batzar horietan parte hartzeko konpromisoa eskatzen da", esan zuen.

Parte hartzeko beste bi moduak hauek dira: alde batetik, sortuko diren lau taldeetako batean sartzea. "Kirol taldea, heziketa taldea, ingurumen taldea eta herrigintza taldea aurreikusten ditugu. Bizpahiru hilean behin elkartuko dira, saretu, elkar lagundu eta herrian egin daitezkeen ekimenen inguruan berba egiteko". Adibide bat eman

TALDEEN DINAMIKA MARTXAN JARTZEA ETA MAIATZEAN ERAGILEEN AZOKA EGITEA DA ASMOA

zuen: "Mendi Mendia Racing jaian mendi lasterketa bat jokatuko da, eta Intxortako Ahuntzek antolatuta dute. Halako dinamikak bultzatzea da helburuetako bat".

Elgeta Herri Hezitzailea egitasmoan parte hartzeko hirugarren modua da sortzeko asmoa duten eragileen foroan izena ematea. "Urtean bizpahiru bilerak izango dira, elkarren berri jaso eta ekimenak zertan diren partekatuz", azaldu zuten.

Proposamena ezagutu ostean, informazio osagarriarekin jasoko duten posta elektronikoa erantzuna emateko eskatu zieten eguaztenezko batzarrera joan ziren eragileei eta norbanakoei. "Talde sustatzailea martxoaren 6an eta apirilaren 17an elkartuko da hurrengo. Jakin nahi dugu zenbat garen, gainerako taldeak apiril ingururako martxan jartzeko", esan zuen De Vegak.

Eragileen azoka maiatzean

Elgetako Herri Hezitzailea foroan parte hartuko duten eragileekin herri mailako azoka egitea da lehen egitasmoetako bat. Maiatzaren 31n izango da. "Duen tamainarako, eragile asko ditu Elgetak, eta batzuetan ez dugu elkarren berri. Zenbat eta zeintzuk garen ikustea garrantzitsua da elkarri ekarpenak egiteko", gaineratu zuen Ibon Unzetabarretxea alkateak.



IMANOL SORIANO

Alazne Lozano txapeldun

Bi elgetar igo ziren podiumera zapatuan Antzuolan jokatutako 8 Miliak trail lasterketan, biak gazteen lasterketan. Alazne Lozano Etxaniz izan zen neska azkarrena (32'33) eta txapela jantzi zuen. Unax Agirre Osa hirugarren sailkatu zen mutiletan (24'43). Zalantza barik forma onean daude martxoaren 16an herrian jokatuko den Antxumeen lasterketarako.

GORA ETA BEHERA



Apurtuta dago seinalea Asentzion

Intxortako Ate parean dago, eta bizikletendako 6. ibilbidea seinalezatzen du Bide Azpiegiturako Departamentuaren ekimenez. Bi xafla lurrean daude aspalditxo dela.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

OHARRAK

Baserriko plastiko biltzea martitzenean

Arratsaldean utzi behar da plastikoa, aurrez telefonoz adostutako lekuan. Telefonoa da: 943-76 25 47.

Emakume astronomoei buruzko astrotopaketa

Ilatargi elkarteko lagunaren eskutik saio berri bat, eguaztenez, 18:30ean, liburutegian. Emakume astronomoak izango dituzte aztergai. Parte hartzea irekia da.

Mugikorrek argazkiak ateratzeko ikastaroa

Martxoaren 4an, 5ean, 6an eta 7an egingo dute ikastaroa, 18:00etatik 20:00tara. Interesatuak liburutegian eman behar dute izena. Azken eguna: otsailak 29.



Iazko jaialdian egin zuten ibilgailuen erakusketa. GOIENA

Bihar izango da Mendi Mendia Racing jaialdia

Seigarren edizioa izango da eta egun osoko egitaraua prestatu dute antolatzaileek; auto erakusketa, mendi lasterketa, bazkaria eta kontzertuak. 200 bat lagun espero dituzte. Ekainean egitekoa den Intxortako rallysprintaren berri ere eman dute

Gontzal Belategi Zubia ELGETA

Bihar, otsailak 24, ospatuko dute Mendi Mendia Racing jaialdiaren seigarren edizioa, egun osoko egitarau zabalarekin. Auto lasterketen denboraldi berria hastear da, eta lehen hitzordua martxoaren 3an jokatzeko den Gabiria-Legazpi rallysprinta izango da. Lehiaketa horiek dartzatzen gastuei aurre egiteko

antolatzen dute jaialdia Mendi Mendia Racingeko kideek. Aurtan bi elgetar daude auto lasterketetan parte hartzeko asmoz: Mikel Beretxinaga pilotu lanetan eta Adrian Gorostiza kopilotu. Denboraldirako finantzaketa lortzeaz gain, motor-kirolak ezaugaraztea eta mundu hori herritarrengana hurbiltzea dira jaialdiaren helburuak.

Egun osoko egitaraua

Beste urte batzuetan bezala, egun osoko egitaraua antolatu dute. Goizean hasiko da, 11:00etan plazan egingo den ibilgailu erakusketarekin eta pintxo-potearekin. 25 urtetik gorako auto klasikoak izango dira nagusi erakusketan, baina ez bakarrik, lasterketa-autoak ere izango dira eta. Aurtan, gainera, Lambretta

taldeari esker gisa horretako motorrak ere ikusteko aukera egongo da.

Erakusketaren ostean, 11:30etan, Egoarbitzako igoera egingo dute. Joan den urtean egin zuten lehenengoz lasterketa, eta, izandako arrakasta ikusita, aurtan berriro egitea erabaki dute. Plazan emango diote hasiera, eta izen ematea egunean bertan egin beharko da. Ahuntzak elkartearen laguntza izan dute Mendi Mendia Racingeko kideek lasterketa antolatzeko orduan. Horren ostean, 12:30 aldera, sari banaketa egingo dute herriko plazan.

Egitarauarekin jarraitzeko, 13:30ean talde argazkia aterako dute bertaratutako guztiek batera. Jarraian, 14:00etan, bazkarirako ordua izango da. 200 bat pertsona aurreikusten dituzte antolakuntza taldeko kideek. Bertan, patatak errioxar erara eta oilaskoa brasan jateko aukera izango dute aurrez txartela erosi dutenek.

Eguna amaitzeko, kontzertuak egongo dira, Espaloia Kafe Antzokian, 21:30ean. 10 euroko prezioa dute sarrerek, eta Debagoieneko taldeek osatzen dute kartel osoa. Bertan izango dira Bergarako Laino Beltzak, Aretxabaletako Neallta Fola eta Arrasateko Sindy Berbenas eta Iskanbila taldeak. Ostean, goizaldera arteko jaiaz gozatzeko aukera izango dute bertaratutakoek, DJ Txas elgetarraren emanaldiarekin.

Intxortako rallysprinta

Aurtengo jaialdia berezia izango da antolakuntza taldearentzat, lehenengoz auto lasterketa bat egingo da-eta Elgetan: Intxortako rallysprinta. Beste urte batzuetan saiakerak egin ziren

rallysprinta antolatzeko, baina askotariko arazoak izan zirenez, ez zuten lortu proiektua aurrera ateratzea. Dena ondo bidean, badirudi aurtan bai egingo dela Intxortako rallysprinta. Euskadiko Automobilismo Federazioak argitaratutako egutegiaren arabera, ekain hasieran jokatu da lasterketa. Mendi Mendia Racingeko kideak eta Arrasateko A+Gas motor taldea lehiaketaren antolakuntzan parte hartzen dabilta.

Gizarteari ekarpena

Jaiaren helburuak motor-kirolekin eta horien finantzaketarekin lotuta dauden arren, gizarteari ekarpena egitea ere badute xede antolatzaileek. Urtero, irabazien zati bat bestelako ekimen batera bideratzen dute, eta edizio guztietan adatzen da. Aurtan, korrikak Euskal Herria zeharkatuko duela aprobeztatuta, irabazien zati hori AEKra bideratuko dute.

Motor mundua, osasuntsu

Antolakuntzako kideek adierazi dutenez, motor-kirolen mundua osasuntsu dago herrian. Horren froga da horrenbeste urtez Mendi Mendia Racing jaialdia antolatzen ibili izana. Hala ere, hortik harago ikusten dira egoera on horren sintomak: Hurrengo belaunaldiak indartsu datoz, asko dira lasterketak ikustera animatzen diren gazteak, eta bada autoarekin lehen saia-kerak egiten dabilenik.

EGOARBITZAKO IGOERAREN BIGARREN EDIZIOA 11:30ETAN ABIATUKO DA PLAZATIK

Potx eta Lotxen 'Aireportuan' ikuskizuna martxoaren 10ean

Udalak antolatuta, martxoaren 10ean Espaloian izango dira pailazo oñatiarrak 'Aireportuan' ikuskizunarekin

G.B.Z. ELGETA

Martxoaren 10ean Espaloia Kafe Antzokian izango dira Potx eta Lotx pailazoak eta haien lagunak: Aireportuan ikuskizuna eskainiko dute. 18:00etan hasiko da Udalak antolatu duen emanaldia.

Sarrerak salgai daude jada, 6 eurotan, eta sarean zein liburutegian eskuratzeko aukera egongo da. Sarrera liburutegian bertan erosi ahal izateko, diru kopuru zehatza eraman beharko da hara.

Hegan egin nahia

Urte luzez aurreztu ostean, Potx eta Lotx amets bat betetzear dira; azkenean, hegazkinez bidaiatuko dute. Aireportuan pozez gainezka sartu diren arren, euren hegaldia atzeratu beharra egon dela jakinarazi die megafoniako ahotsak. Aireportuan luzaro egon beharko dute zain. Modu horretan, abentura berri batean murgilduko dira bi pailazoak, beste zenbait pertsoniarekin hartu-emanen. Lortuko ote dute hegan egitea?



Potx eta Lotx, Aireportuan ikuskizunaren emanaldi batean. GOIENA

Prest dago Oñatiko Korrika Kulturala

Herriko hainbat eragileren artean osatu dute egitaraua, eta 'Oihaletxe' dokumentala, Gauargi, Ibil Bedi eta Malko musika taldeak, sorgin dantza, kantu-afaria eta Korrika Txikia egingo dituzte, besteak beste. Baita Xabier Ugarte gogoratzeko ekitaldi bat ere

Goiena komunitatea

Korrika batzordea / OÑATI

Aurreko edizioan Oñati zapaldu gabe geratu ostean, aurten itzuliko da lekukoa herrira. Martxoaren 23ko goizaldean izango da: Elorregin barrena sartu eta Udاناتik aterako da euskararen aldeko ekimena. Goizeko bostak aurretixoan iritsiko da herrigunera. Hari ongiatorria egiteko prest du egitaraua herriko Korrika batzordeak.

Tartekiaxxxx

Hasteko, Korrikaren 23. edizioa dokumentala izango da kultur etxean, Lander Garrok zuzendutakoa. Ipar Euskal Herriko Azterketak Euskaraz kolektiboaren eta haren borrokaren gainean dihardu *Oihaletxea*-k, eta zuzendariarekin solasaldia izango da ikus-entzunezkoaren ostean. Publiko orokorrarentzako emanaldia izango da arratsaldekoa. Horrez gain, baina, herriko ikastetxeek beste ema-

naldi bat ere izango dute euren ikasleentzat: gaia landuko dute ikastetxean, eta, dokumentala ikustearekin batera, Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioko (Seaska) kide batekin solas egiteko aukera edukiko dute.

Burrunda Faktoriaren ekimenez Antixena gaztetxean egingo den Ibil Bedi talde nafarraren kontzertuaren eta Udalaren eta Uemaren eskutik kultur etxean izango den Iñaki Iurrebasoren hitzaldiaren ostean, berriki hildako Xabier Ugarte gogoratzeko ekitaldia izango da martxoaren 20an zinema-aretoan. Musika arloan lan handia egin zuen Ugartek hainbat zentzutan –Artixa taldeko kide ere bazen–, eta, horrez gain, euskaltzaletasuna ere bazuen ezaugarri; gau-eskoletan irakasle ibilitakoa zen, besteak beste. 2017ko Korrikaren aitzakian, Ikustenda egitasmoaren barruan egindako ikus-entzunezkoetako bateko protagonista izan zen Ugarte.

Haren bizitzako askotariko jardunak eta pasarteak errepasatu zituen *Entzuteko lan isila* lanak, eta haren emanaldia izango da martxoaren 20ko ekitaldiko osagaietako bat. Baina izango da besterik ere oñatiar maitatuari aitortza egiteko. Ekitaldirako gonbidapenak kultur etxeko harreraren eskuratu ahal izango dira martxoaren 11tik 18ra.

Herriko eragileekin batera

Korrika herrira heldu bezperako egitaraua bete-betea etorriko da, herriko hainbat eragilerekin batera antolatutako ekitaldiekin. Herriko 770 ikasle inguruk emango diote hasiera arratsaldeari, herrigunean Korrika Txikia eginez. Egunaren amaieran, berriz, kantu-afaria izango da gaztelekuan; martxoaren 11 eta 19 artean erosi ahal izango dira txartelak, Txokolateixan, 22 eurotan. 23an, berriz, Malko izango da, besteak beste.



Azterketak Euskaraz taldeko kideak, AEK-ko ordezkariak eta Lander Garro. KORRIKA

Egitaraua

OTSAILA

- **Astekoeguna 28** *Oihaletxe* dokumentala. Zinema-aretoa. 19:00.

MARTXOA

- **Astekoeguna 10** Ibil Bedi. Gaztetxea. 19:00.
- **Astekoeguna 16** Irteera gaztetxetik Iruñera.
- **Astekoeguna 19** *Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek* hitzaldia. Kultura etxea. 18:00.
- **Astekoeguna 20** *Entzuteko lan isila*. Kultura etxea. 19:00.
- **Astekoeguna 22** Korrika Eguna. Korrika Txikia, Gauargi taldea, Oñatzen sorgin dantza plazan, elektrotzaranga Arranotik hasita, kantu-afaria gaztelekuan eta DJak gaztetxean.
- **Astekoeguna 23** Malko. Gaztelekua. 22:00.
- **Astekoeguna 24** Baionara autobusa. Enpresagintza. 08:00.

Ezintasun iraunkorra aitortu diote Autland Emb-eko langile bati

Ezintasun iraunkor osoa aitortu diote Autland Emd enpresako langile bati, LABek jakinarazi duenez, Eibarko lan-arloko epaitegiaren epaiak frogatutzat jo baititu langilearen osasunean eragindako kalte larriak. "Oso arriskutsuak diren produktu kimikoekin lan egin arren, enpresak ez zuen 2018. urtera arte ezarri arnasketa ekipo espezifikoa erabiltzea, eta ordura arte zeuden babes neurriak ez ziren nahikoak, epaiak argi uzten duenez". Beste salaketa bat ere onartu duela dio: "Enpresak ez duela babes ekipamenduen doikuntza probarik egin kutsatzailen kontzentrazioa zehazteko, eta nahitazkoa dela erabiltzeko".

Manifestazioa egingo dute Natrako langileek zapatuan

Natrako langileek hitzarmen berria lortzeko borrokan jarraitzen dute, eta 2024ko otsailaren 15ean egindako asanbladan, enpresa batzordeak mobilizazioekin jarraitzeko planteamendurekin bat egin zuten langileek. Horrela, eguneroko lanuzteekin jarraituko dute, martxoaren 24ra arte, enpresarekin adostasunik lortu ezean. Horiez gain, manifestazioa ere egingo dute herriko kaleetan barrena. Bihar izango da, zapatuan, 12:00etan plazatik abiatuta. Besteak beste, "flexibilitatea kentzea eta errelebo kontratuak ezartzea" eskatzen dute, orain dauden baldintzetan "langileen ongizatea" kaltetzen dela iritzita.

Emakumion Etxia definitzeko beste saio bat izango da bihar

Emakumion Etxia nolakoa izango den erabakitze prozesuan, beste parte-hartze saio bat egongo da zapatuan, hilak 24.

Espazioaren erabileraz eta erabiltzaileez eztabaidatu zuten urtarrileko saioan, eta kudeaketaz eta gobernantzaz hausnartuko dute biharko eta martxoaren 16ko saioetan. Bihar, zerbitzu hori nola eta zeinek kudeatu, alde bakarreko gobernantza edo kogobernantza ereduak izango duen eztabaidatzen hasiko dira. Gosari-tailer formatuan egingo dute saioa, 10:00etatik 13:00etara, Eltziako hirugarren solairuan. Aldibereko itzulpena egongo da eta zaintza zerbitzua ere eskatu daiteke.

GORA ETA BEHERA



Belarra herriko kale bazter askotan

Herriko kaleetako izkina askotan –eta eskaileretan, adibidez– kendu bako belarra ikusten dela dio irakurle batek, eta ingurua zakartzen duela: "Penagarria da horien itxura. Oñati herri turistikoa omen da, eta herria apurtxo bat zaintzeko" eskatzen dio Udalari.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



"Gaitasunak mantentzea da tailerren helburua"

SARA ALAVA GIZARTE-HEZITZAILEA

Taldekako zein bakarkako ariketak eginez, memoria lantzeko tailerrak dinamizatzen ditu Alavak Pake Leku eta Lagun Leku erretiratuen elkarteetan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Duela hiru bat urtetik hona lantzen dute memoria Pake Leku erretiratuen elkarteetan, eta hilabete honetan sortu dute tailer berria Lagun Lekun. Sara Alava arrasatearrak gidatzen ditu bata zein bestea.

Zer dira memoria tailerrak?

Esango nuke gimnasio bat dela, garuna lantzen den gimnasioa. Gorputza landu beharrean, geurre burua, garuna, memoria, lantzen dugu.

Ze helburu ditu?

Helburua da ditugun trebetasunak, gaitasunak, mantentzea. Adinarekin aldaketak egoten dira, bai arlo fisikoan, bai arlo kognitiboan. Denok dakigu oso garrantzitsua dela arlo fisiko zaintzea eta kirola eginez edo eguneroko paseoarekin lortu ahal dugula asmo hori. Gauza bera gertatzen da arlo kognitiboarekin: lantzen badugu, ondo egongo gara.

Zein izaten da tailerren dinamika?

Normalean, beti proposatzen ditugu askotariko dinamikak, jolasak zein ariketak. Batzuk taldean egiten dituzte eta beste batzuk bakarka, nahiz eta gero dena taldean partekatuta. Ariketa horiek ditugun gaitasunak martxan jartzen laguntzen digute: arreta, oroimena, kal-



Sara Alava gizarte-hezitzailea. S.A.

kulua, berbak azkartasunez esan ahal izatea...

Ze onura ekartzen dituzte saioek?

Lantzen dena mantendu egiten da. Hori fisikoarekin ere gertatzen da. Memoria tailer horietan buruari eragiten diogu, eta egunerokotasunean nabaritu egiten da hori; nolabaiteko bizitasun bat lortzen da. Bestalde, jendeak oroimenarekin dituen kezka ekartzen ditu eta horiei buruz hitz egiten dugu saioetan, partekatuta egiten dituzte euren esperientziak eta estrategiak lantzen ditugu hu-

rrengoetan zer egin, egoera hori nola gaingitu, jakiteko.

Nolako kezka izaten dituzte erabiltzaileek?

Berbak burura ez etortzea eta izenak ahaztea, adibidez. Saioetan ikusten dute beste batzuei ere gertatzen zaizkiela horrelakoak, eta zer egin dezaketen berriz gertatzean. Interesgarria izaten da egoera eta kezka horiek partekatzea.

Bailarako beste herrietan ere emakumezkoak dira gehiengoak?

Bai. Gizonak ere joaten dira, baina hamarretik bat.



GOIENA

'Galdegazte' estreinatuko dute

Hamargarren denboraldia hasiko du datorren astean Goiena telebistako *Galdegazte* programak, dekoratu berriarekin, eta oñatiarrak izango dira estreinatuko saioan Imanol Beloki kazetariarekin batera: Oñati Institutuko ikasleek Daniel Teran aktorea elkarriketatuko dute. Oñatiarren saioa martitzenean, hilak 27, emitituko dute, 20:00etan.

Xake txapelketa, ginkana eta talentu lehiaketa kuboan

Gaztelekuko kuboan xake txapelketa egongo da hango erabiltzaileendako bihar, zapatua, 17:00etan hasita. Izena aurrez emana dute parte-hartzaileek, eta saria zein den ez dute jakinago txapelketa amaitu arte.

Halaber, martxoan egingo diren beste bi ekintzetarako izen emateak ere zabaldu dituzte dagoeneko. Martxoaren 3an, esaterako, ginkana egingo dute. Sei eta bederatzi lagun arteko taldeek hartuko dute parte eta otsailaren 29a aurretik eman beharko dute izena. Martxoaren 17an, berriz, talentu lehiaketa egingo dute, bakarka edo taldeka; izena emateko azken eguna martxoaren 13a da.

OHARRAK

Kobetara irteera

Dordoka eta Iritegi kobetara joango dira zapatuan, han bizi diren zomorroak, troglobioak, ikustera. 10:00etan, MUko aparkalekuan.

Ehiza txapelketa

Herriko ehiztarien txapelketa egingo dute zapatuan Zanbranan (Araba), Pago Usok antolatuta.

Trantsizio energetikoa

Debagoieneko trantsizio energetikoa: diagnostikoa eta ahalmena izeneko hitzaldia egingo du Aritz Ameztegik, Goienagusi egitasmoaren barruan, eguaztenean, Santa Anan, 10:00etan.

Astean behin izaten dira saioak

Eguaztenean egiten dituzte memoria tailerrak Pake Lekun, astean behin; ordu eta erdiko saioak. Otsailean Lagun Leku elkarteetan ere sortu da taldea, Eltzian, eta han ere hasi dira memoria tailerra eskaintzen, egubakoitz arratsaldeetan. Horretan tokia dago oraindik eta interesa duenak elkartera bertara joanda eska dezake informazioa.



Pake Leku elkarteetan joan den astean egindako saioa. AMAIA TXINTXURRETA

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

"Ziklo-krosean gehiago disfrutatu nuen"

MARIANO ALTUBE GURIDI TXIRRINDULARI OHIA

Aloña Mendiko lehen elastikoa jantzi zuen duela 50 urte, oraindik talderik ere ez zegoenean. Luis Mari Etxeberrria zen orduan presidentea, eta biak omendu dituzte

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Denboraldiko txirrindularien aurkezpen ekitaldiaren barruan, 1966an elkarte sortu zenean lehen presidente izan zen Luis Mari Etxeberrria eta duela 50 urte Aloña Mendiko lehen mailota jantzi zuen Mariano Altube omendu zituzten. Espainiako ziklo-kros txapelketa irabazi zuen Altubek, gazte mailan, Ordizian, 1975ean.

Duela 50 urte, 1974an, egin zenuen lehen lasterketa Aloña Mendiko elastikoa jantzita; ze oroitzen dituzu?

Ni 14 urterekin hasi nintzen Ulman lanean eta lagun batek neskaren bizikleta uzten zidan Araotzera joateko. Lanean ezagutu nuen Luis Mari Etxeberrria eta askotan aipatzen zidan hori, Araotzera bizikletan joateren kontua, eta errepideko bizikleta bat lortu eta ekarri zidan. Astebetean entrenatu eta Eibarko lasterketan hartu nuen parte, udaberriko lehenengoan. Lehenengoekin batera nindoan eta jendeak begiratu egiten zidan, ezezaguna nintzelako. Beheranzkoan jausi egin nintzen, baina ondo amaitu nuen.

Nolakoa zen Aloña Mendiko lehen elastikoa hura?

Etxeberrriaren emazteak eskuz bordatutako letrak zituen. Etxeberrria aita modukoa izan da niretako. Bizikleta erosi, Araotzera etorri, ni hartu, bueltan berriz eraman... Ordu asko egin genituen elkarrekin. Oso pertsona ona da, oroitzen oso onak ditut.

Errepidean eta ziklo-krosean, bietan ibili zinen; nola moldatzen zinen batean zein bestean?

Bi denboraldi egin nituen gazte mailan, bi errepidean eta bat ziklo-krosean. Gero, afizionatu mailara pasa nintzen, Uriarterekin. Maila horretako lasterketa gehienetan lehen hamarren barruan helmugaratu nintzen. Eta lokatz artean ere ondo mol-



Mariano Altube, domekan oparitutako txapelarekin. INIGO BARRENA

"TAILERREKO LAGUNAK ETA ARAOZTARRAK, DENAK ZEUDEN ORDIZIAKO TXAPELKETAN"

datzen nintzen. Ohituta nengoen mendi aldean ibiltzen, lokatzetan, eta uste dut gehiago disfrutatu nuela hor.

Espainiako ziklo-kros txapelketa irabazi zenuen 1975ean, Ordizian; nolakoa izan zen garaipen hura?

Gogoan dut Oñati osoa joan zela ikustera: tailerreko lankideak, araoztarrak... Han zeuden denak. Akordatzen naiz erori egin nintzela eta zulaketa bat ere izan nuela. Baina irabazi egin nuen, hala eta guztiz ere. **Orain gregarioak ere badaude laguntzeko; orduan, baina, zu zinen Aloña Mendiko txirrindulari bakarra. Ez zegoen talderik.**

Ez. Afizionatu mailan ibili eta gero, soldaduskara joan nintzen; hemezortzi hilabete, marinara. Galdetu nuen, baina ez zegoela entrenatzeko aukerarik esan zidaten han, Ferrolen (Galizia), eta haren ostetik ez zen jarrai-

penik egon. Saiatu nintzen ziklokrosera bueltatzen. Gasteizen, Duranan, izan genuen lasterketa bat Karmelo Maiztegiarekin, baina hasi aurretik jausi eta kolpe handia hartu zuen Maiztegi. Ez genuen lasterketarik egin eta hantxe bukatu zen dena. **Domekako ekitaldian txapela ere oparitu zizuten.**

Hunkitu egin nintzen, bai. Luis Mari Etxeberrriari berak egin dako lana eskertzeko zerbait egin behar zutelako joan nintzen, hura omentzera, eta sorpresa izan zen nire izena ere entzutea. Ez nuen espero.

Duela 50 urte txirrindulari bakarra zuen Aloña Mendik; egun, ordea, 50 bat.

Oso pozgarria da hori. Ni bakarrik hasi nintzen eta orain kategoria guztietan neska-mutilak ikustea zoragarria da.

Ze jarraipen egiten diozu txirrindularitzari egun?

Seme biekin asko ibili naiz ziklo-krosean eta errepidean. Ezin denetara heldu, baina 33 urte daramatzat, esaterako, Tourra ikustera joaten. Espainiako Itzulia ikustera ere joaten naiz. Azkenengoan, adibidez, Anglirun (Asturias) izan nintzen ikusten.



Sukena taldeko bost kideak. GOIENA

Sorpresa pare bat prestatu ditu Sukenak gaurko kontzerturako

Gaztelekuan izango da, 22:00etan, eta Bengok joko du euren ostean; sarrerak salgai daude, zortzi eurotan

O.E.G. OÑATI

Urriaz gaztetxean jo zuen Sukenak, Burrunda Faktoriaren eskutik. Harrezkero ez du emandirik egin herrian, eta urdu eta gogotsu daude kideak gaur, egubakoitza, gaztelekuan jotzeko. "Aretoa eta oholtza, biak dira handiagoak, eta horrek beldur apur bat ematen digu, baina sekulako ilusioa dugu gaueko emanaldirako", dio taldeko Eider Herraizek. Sorpresa pare bat prestatu dituztela ere aurreratu du.

Danbaka musika lehiaketan hartu zuen parte taldeak lehe-

nengo aldiz egungo formatuarekin, eta esperientzia hark jarraitzeko indarra eman ziela aitortu du Herraizek. "Gainera, gure ostean Bengok joko du, eta hori sekulakoa da guretako. Oso pozik gaude".

Gaztelekuko kideek azaldu dutenez, *Guztia gordetza ezinezkoa da* diskoko kantuak ekarriko dituzte oñatiarrek, eta Oizartundik datorren Aitor Bengoetxea, Bengo, da bigarren gonbidatua. Musika urbanoaren baitan kokatzen da, eta, abesteaz gain, break dantzaria ere bada. Zortzi euro da sarrera.

Aloña Mendiko 51 txirrindularik hasiko dute denboraldi berria

Martxotik irailera bitartean, sei txirrindulari lasterketa antolatuko ditu Aloña Mendik Oñatiko errepideetan


O.E.G. OÑATI

Aloña Mendik 51 txirrindulari izango ditu denboraldi honetan errepideetan, sei kategoriatan banatuta. Herriko beste hiru txirrindulari afizionatu mailan lehiatuko dira: Aimar Madina (Caja Rural), Aimar Erostarbe (Caja Rural) eta Danel Casais (Laboral Kutxa).

Herrian bertan ere sei lasterketa, behintzat, antolatu ditu Aloña Mendi elkarteak: kadete nesken Ulma Challenge Oñati saria, afizionatu mailazko Oñati saria, mutil kadete mailako Olakua

saria eta gazte mailan, Arantzazuko Igoera eta Gari Bañosen omenezkoa. Lehenengo, dena dela, datorren martxoaren 9an izango da, eskolartekoa.

Babesleei dagokienez, ez da aldaketarik egongo eta joan den denboraldiko berdinak izango dira: Bizi Poz Kafe benjamin, alebin eta infantil mailatan eta Ulma mutilen kadete kategorian eta gazte mailan. Kadete mailako neskek, berriz, Lokatzako elastikoa izango dute. Txirrindulari elkarteak presidentea Aitor Atorrasagasti da.



Ba bai, neska...
Azkenien, separetie
erabaki dogu.
Oin, aholkularitza
edo laguntza
topau biher...



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoiengan baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okmgidaren
eskaintza osoa.

Aire zabalera ezin hobeto doaz

ATLETISMOA Espainiako Txapelketatik domina bana irabazita itzuli dira Malen Ruiz de Azua –urrea–, Eneko Carrascal –zilarra– eta Andoni Calbano –brontzea–. Tarte txikia hartuko dute atsedenerako, aurki dituzte-eta erronka zorrotzenak

Xabier Urtzelai Atxa Arrasate

Ourense jokatu duten Espainiako Txapelketan dominak lortzeko faboritoen multzoan zeuden Malen Ruiz de Azua –pertika-saltoa– Eneko Carrascal –salto hirukoitza– eta Andoni Calbano –200 metroko lasterketa–, eta ez zuten hutsik egin. Orain, egun gutxi batzuetako atsedena izango dute, baina abuztuan Parisen egingo dituzten Olinpiar Jokoek aire zabaleko egutegia baldintzatuko dute, eta txapelketa handiak ohi baino lehenago izango dira. Hala, asteburuko balorazioa egiteko eta aurrera begira jartzeko asmoz egon da GOIENA hiru protagonistekin.

Ruiz de Azuak, urrea

Malen Ruiz de Azuak (Arrasate, 1995) ez zuen bere marka pertsonaletik gertu egoteko aukerarik izan, baina 4,35eko saltoa nahikoa izan zuen urrea irabazteko. "Beti diogun moduan, txapelketetan dominak dira lehenetasuna, eta ondoren dator marka on bat egitearena. Bai, Antequeran 4,40 egin ostean salto hobe egin nezakeela uste nuen, baina halako hitzordueta inoiz ez dago jakiterik zelan erantzunoz duzun. Hori horrela, marka onak egiteko aurrerago ere izango ditugu bestelako txapelketa eta topaketak. Espainiako Txapelketara urre bila joaten gara". Hala, arrasatearrak laugarren urtez lortu du txapelketa irabaztea –2017, 2018, 2021 eta 2024–. "Espainiako Txapelketa irabaztea beti da berezia, baina urre honi balio handiagoa ematen diot, iazko urtea oso frustragarria izan zelako. Azkenekoz 2021ean jantzi nuen urrea, eta, aurreko urteotan urrea lortzeko borrokatu banaiz ere, bigarren sailkatu naiz".

Hala, Ourenseko pistan Valentzia taldeko atleta izan zen atleta egonkorrena. 4,05, 4,15, 4,25 eta 4,30 lehenengo saiakeran gainditu zituen. "Kontrarioek arriskatu egin zuten eta zuzen joan ziren 4,35era. Niri poliki joatea gustatzen zait; oso indartsu ikusi behar dut neure burua listoa tokatzen dena baino gorago jartzeko. Pausoz pauso joaten naiz, eta Ourense estrategia hori baliagarria izan zen, 4,30 egin nuen bakarra izan nintzen eta. Tira, ez da oso marka ona, baina urrea balio du, eta aire zabalera konfiantzarekin joateko aukera ematen dit. Gainera, iazko urtea muskulu iskiotibialean izandako lesio batek baldintzatu zidan, eta orain ondo lehiatu ahal izan naiz".

Arrasateko pertika-jauzilariak ez du atsedean handirik hartzeko asmorik. "Aire zabalean sasoi puntu onean hasi nahi dut; pista estalian egin ditugun markak hasieratik egiteko moduan egotea da asmoa. Aste Santuan beste lagun atleta batzuekin batera Tenerifera joango naiz, egonaldi moduko bat egitera, gogor entrenatzera. Eta ea handik bueltan lehenbailehen hasi gaitezkeen txapelketa onak egiten".

Carrascalek, zilarra

Salto hirukoitzean Eneko Carrascal (Arrasate, 1999) eta Pablo Torrijosen arteko lehiak jarri zion salta zapatu arrasaldeari. Jordan Diaz kubata-

ABUZTUAN JOKATUKO DITUZTEN OLINPIAR JOKOEK AIRE ZABALEKO EGUTEGIAN ERAGINA DUTE

rraren hutsuneak beste atleta batzuei atea zabaldu zien, eta aurrealdeko borrokan Arrasatekoa urrea irabazteko puntuan egon zen. Ramon Adaliak eman zuen lehenengo kolpea (15,80), baina bigarren txandan Torrijosek marka hori berdindu egin zuen. Arrasatekoak hirugarren txandan esan zuen "hemen nago", 15,82 eginda. Hala, arrasaldeko azken txandan Torrijosek eman zuen mahai gainean kolpea (16,02). Carrascal azken aukera geratzen zitzaion, eta Realeko atletak saltoa egin zuen unean garbi geratu zen Torrijosek besteko salto ona egin zuela. Marka ofiziala adierazteko behar izan zituzten segundotan Carrascal pozik zegoen, egindakoarekin konforme, eta pantailan 15,97koa erakutsi zutenean ez zitzaion irribarrea desagertu. "Oso pozik geratu naiz egindako txapelketarekin. Bereziki, min gabe lehiatu ahal izan nintzelako eta neure burua lehiakor ikusi dudalako. Pentsa, bi urte egin ditut txapelketatik urrunduta. Lehenengo, lunbaldia gogor bat izan nuen, eta urtebete izan ninduen horrek geldi. Eta iaz, pubalgia bat izan nuen. Bazirudien arazo horiek atzean utzita nituela, baina abenduan txapelketetan hasi nintzenean koadrizepsa hautsi nuen. Eta bai, seguruenik, ia bi urtez lehiatu gabe egoteak eragina izango zuen azken lesio horretan. Hori horrela, urtarri igaro dut jakin gabe ea txapelketa horietara joateko moduan egongo ote nintzen edo ez, baina, zorionez, azken asteotan ondo ikusi dut neure burua, bai Antequeran eta bai Ourense, eta aire zabalera begira asko motibatzen nau horrek".



Malen Ruiz de Azua, saiakera batean. SERGIO MATEO

Arrasatekoak dio bi urte haue-tan ez duela atletismoa uzteko asmorik izan, ideia hori erabat baztertua zeukala. "Esango nuke atletok tarteka izaten dugun tentazioa dela hori. Gaztea zarenean akaso ez, baina urteak aurrera doazen neurrian... Azken batean, guk ez ditugu bestelako kirolariek dituzten baldintzak, eta atletismoan jarraitzen badugu gustuko dugulako da, ez ekonomikoki merezi duelako. Hala ere, duela bi urte atletismoaren bueltan proiektu hau abian jartzeko erabakia hartu nuen: Donostiara bizi

ATSEDEAN HARTZEKO TARTE TXIKIA IZANGO DUTE HIRUREK; SASOIAN HASI NAHI DUTE AIRE ZABALEAN

izatera joan, entrenatzailearekin lan egin... Eta garbi izan dut lesioak gainditu eta proiektu hau burutu nahi nuela, ez nuen nahi hau erdizka utzi, nahiz eta momentu txarrak izan ditudan, noski. Hala, txapelketan zilarra eskuratu badut ere, ez zen hasierako asmoa. Entrenatzailearekin berba eginda neukan emaitza gutxienekoa zela, helburua minik gabe lehiatzea zela. Alegia, salto harekin laugarren izan banintz ere, ni konforme. Pistan gozatzea zen helburua, eta lortu dut".

Carrascalek ez daki aire zabalak zer ekarriko dion. Onartzen du fisikoki oraindik asko hobetu behar duela: "Duela bi urte orain baino askoz indartsuago nengoen, baina geldi egon izanak hori dakar. Hala, denbora tarte hau erabili dut teknika lantzeko, eta marka



Eneko Carrascal, salto hirukoitzean. SERGIO MATEO



Andoni Calbano, 200 metroko lasterketan. SERGIO MATEO

horiek teknika horri esker lortu ditut. Ea fisikoki poliki-poliki aurrera egiten dudana neurrian markak hobetzen ditudan, baina inoiz ez dago jakiterik".

Carrascal ere segituan hasiko da aire zabala prestatzen,

jakinda Olinpiar Jokoak, gaur-gaurkoz, oso urrun daudela. "16,12ko marka daukat, eta Espainiako Federazioa 16,95 dabil eskatzen. Espainian marka hori pare bat atletak egin dute historian".

Calbanok, brontzea

Andoni Calbanok (Bergara, 2000) ere txapelketa borobila egin zuen Ourense, besteak beste, zapatuko kanporaketa saioan marka pertsonala egin zuen eta (21.20). Hala, domekako bi finalerako

batean Realeko atleta azkarrena izan zen (21.21). Beste finalean Adria Alfonso izan zen onena (20.94) eta zilarra Daniel Rodriguezek jantzi zuen (21.03): "Bi finalerdi eta beste bi final egiten dituzte, pista estaliko kale guztiak

ez dira-eta erabilgarriak. Barruko kaleetan ez dugu korrikarik egiten, desabantaila handia egongo litzatekeelako. Eta korrika egiteko 5. eta 6. kaleak dira onenak; horrenbestez, kale horietan egoteko ostiraleko kanporaketatik egin behar dira denbora onak. Kontuan izan ehunen gutxi batzuetako aldea egoten dela. Hala, oso pozik geratu nintzen nire finalean indarrak oso parean egon zirelako baina azken metroetan ondoan neukan atletari aurre hartu ahal izan niolako; estrategia egokia izan nuen eta indarrez nengoen. Pentsa, bost ehuneneko aldearekin irabazi nion laugarren sailkatu zenari; oso final parekatua izan zen".

Datozen hilabeteotan Calbanok erronka politak ditu; besteak beste, maiatz hasieran Nassaun (Bahamak) egingo duten Munduko Txapelketan egon nahi du. "Aurten Espainiako erreleboetako taldean sartu naute, eta hiru aste barru Malagara joango gara egonaldia egitera. Hain zuzen, hautatzaileek han erabakiko dute zeintzuk izango diren selekzioarekin Munduko Txapelketara joango direnak, eta hasierako helburua talde horretan egotea da. Ourense egindako lana kontuan hartu dute hautatzaileek, baina, azken batean, Munduko Txapelketan 4x100eko lasterketa egingo dugu, eta Ourense 200 metrokoan hartu dut esku. Hau da, Malagan azkarrenak direnak aukeratu dituzte, eta bertarako gogor entrenatzea da asmoa".

Calbanok ere urrun ikusten du Paris, baina aukera txiki bat egon daiteke: "Munduko Txapelketan eskuratu beharko du Espainiak Olinpiar Jokoetarako txartela, eta atletak sasoi onean ikusten ditut. Talde horretan egotea lortuz gero, batek daki...".

Goienakideentzako zozketa

Gorka Urbizuren aurkezpen musikatua ikusteko hiru sarrera bikoitz

Otsailaren 27an, martitzena, 19:00etan, Gorka Urbizuk *Kaier bat* liburuxka berria eta *Hasiera Bat* diskoa aurkeztuko ditu Gasteizko Liburutopia kafe-liburudendan.

50 sarrera daude eta Goienakideen artean sei zozketatuko ditugu.

PARTE HARTZEKO: 📱 'goiena app'-a / zozketa atalean

Azken eguna: otsailaren 25a.



goiena[™]
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



"Finalean hiru aramaioar, gutxienez, izango dira"

ZIGOR ENBEITA BERTSOLARIA

Arabako Bertsolari Txapelketako lehen finalerdia jokatuko dute bihar Aramaion; abian den txapelketari buruz jardun du Arabako txapeldun birritan izan den Zigor Enbeitak



Zigor Enbeita bertsolaria. GOIENA

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARAMAIO

2003ko eta 2006ko Arabako Bertsolaritza Txapelketak irabazita, dagoeneko lehiaketetatik erretiratu dago Arrasaten bizi den Zigor Enbeita (Abornikano, Urkabustaiz, Araba, 1971) bertsolaria; hala ere, gertutik ari da aurtengo txapelketaren nondik norakoak jarraitzen.

Gordeta dituzu orain dela urte batzuk irabazi zenituen txapelak?

Bada, ez daukat ez bata ez bestea; oparitu egin nituen biak. Taberna bat zuen anaiak, eta han jarri genuen lehenengoa, hark hala gura zuelako, eta bestea Izarrako zaleek eskatu zidaten, beste taberna batean jartzeko; hortaz, hor zehar ibiliko dira nire bi txapelak.

Txapel gehiagoren bila joateko etapa bertan behera utzi zenuen; zergatik?

Denak dauka hasiera bat eta amaiera bat, eta jakin egin behar da amaierak egiten. Txapelketek eman baino gehiago kendu egiten zidatela konturatu nintzenezan erretiratu egin nintzen, orain dela zortzi urte; beraz, azkeneko bietan ez dut parte hartu.

Aramaion izango da bihar, zapatua, lehenengo finalerdia; zer diozu taularen gainean izango diren bertsolariei buruz?

Ekaitz Samaniego sorpresa da beti, umore beltz puntua dauka; saio duina egiteko gai dela uste dut. Eli Zalduak ondo egiten du bertsotan, eta uste dut bide onetik doala. Iñaki Viñaspre Arabako Lizaso da, ezta? Askotan esaten diot segundo bat gehiago hartzeko, azkartasunak akatserrako bidea ematen du-eta asko-

tan; haren maila ematen badu, aurrean ibiliko da.


Eta gertuko dituzun Manex Agirrek eta Peru Abarrategik osatuko dute biharko seikotea.

Biak txapeldunak, biak lagunak eta bertsolari oso onak biak. Peruk berea ematen badu, aurrean egongo da, eta Manexi buruz zer esan... plaza-gizona



MANEX AGIRRE
BERTSOLARIA

"Biharko saioa potentzia izango dela aurreikusten dut. Iñaki Viñaspre, Unai Anda eta gure Peru indartsu ikusten ditut, gerra handia emateko moduan. Final-laurdenak sendoak izan dira, gorabeherak izan diren arren saiotik saiora; ez nuen ondo hasi nirea, baina ondo bukatzea lortu nuen. Publikoak, orokorrean, oso ondo erantzun du, aretoak bete egin dira finalurrekoetan".



PERU ABARRATEGI
BERTSOLARIA

"Urduri samar nago, baina gogotsu, aldi berean, finalerdia delako eta Aramaion jokatu delako. Finalerako txartela lortzen saiatuko gara denak; polita izango da. Finalurrekoan nahiko txukun ibili nintzen, nahiko konstante ikusi nuen neure burua, eta gustura geratu nintzen, bakarkako lanean, azkeneko bertsoan, pota batek ihes egin zidan arren".

da eta asko lantzen du. Uste dut bi horiek direla, Viñasprekin batera, txapelerako kandidatuak. **Martxoaren 2an Dulantzian jokatu den bigarren finalerdian beste hiru aramaioar izango dira.**

Hiru horiek ere lagunak ditut. Paula Amilburuk ea zer ematen duen; onena eta txarrena eman dezake. Oso ondo egiten du bertsotan eta asko gustatzen zait duen umore puntua; nerbioak kontrolatzen baditu, saio txukuna egin dezake. Xabi Igoa beti hor dago; oso ondo egiten du bertsotan, baina puntutxo bat falta izaten zaio batzuetan. Aitor Ugartek gaztetatik oso ondo egiten du bertsotan, azkeneko urteetan haren bilakaera apur bat geratu bada ere, baina langilea da eta aurrera egingo du.

Aholkurik eskatuz gero, zer gomen-dio emango zenieke?

Zaila da, baina gozatzeraz ateratzeko eta dakiten moduan egiteko, esperimenterik egin barik; esperimenterik bertso eskoletarako utzi behar dira.

Azkeneko urteetan gogor dabil Aramaio Bertsolari Eskola; zer du?

Lana, ez dago beste sekreturik. Aramaio 1.000 biztanle inguru ditu eta plazan ibiltzeko goi mailako bertsolari asko ditu; bertso eskolak lan asko eta ondo egin duelako da hori.

Eskola bat baino harago, lagunartea ere izateak badu, zure ustez, emaitzetan eragina?

Askotan elkartzen naiz eurekin afari baten bueltan bertsotan egiteko. Oso giro polita dago, nagusiak eta gazteak denak elkartuta egoten dira eta asko erakusten diete elkarri. Zabalik dagoen kuadrilla da, gainera, atzetik datozen gazteak erakarrezko joera dute eta.

Aramaio eskola erreferente da Araban?

Gaur egun esango nuke baietz. Lehen, Gasteizkoa zen Arabako bertso eskolen sortzailea; Amurriokoa ere hor egongo zen, baina gaur egun Aramaio indar handia du.

Zertan eragiten du bertsolaritzak, orokorrean, Arabako euskalgintzan?

Haurra nintzela herriz herri bertsotan hasi nintzenezan, jende askok ez zigun ulertzen, euskaraz ez zekitelako askok; hala ere, errespetuz eta isilik entzuten ziguten. Ikastolek ere eragin dute euskalgintzan, baina uste dut Arabako elkarte potentzenak izan direla bertso eskolak; gazte asko erakarri dituzte.

Bertsolari moduan erretiroa hartuta duzu?

Ez guztiz; saio baterako deitzen didatenean gustura joaten naiz beti bertsotan egitera.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

JOAKIN JAUREGI

'KONTU KONTARI' SAIOAN
OTSAILAREN 29AN, 19:30EAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN

JULEN ZUAZABEITIAK EGINDAKO ELKARRIZKETA
*BIGARRREN DENBORALDIAREN ESTREINALDIA

DESCARGA TU
GOIENA
APLIKAZIONA

goiena

Zu hemen zaude.

Piano-joleek hitzordua dute domekan Bergaran

Iaz Oñatin egin ostean, aurten Bergarako Seminarixoan egingo dute Debagoieneko musika eskoletako piano-joleen topaketa; tartean, Soraluzeakoak ere izango dira. Guztira, 71 gazte izango dira euren talentua taula gainera eramango dutenak

Iñigo Barrena Kortabarria BERGARA
Urte askoan Andoain izan zen piano-joleen erdigune urtean behin, han egiten zelako Euskal Herriko piano-joleen topaketa nagusia, eta, nola ez, hantxe izaten ziren Debagoienekoak ere. Pandemia tarteko, Andoaingo topaketa bertan behera gelditu zen eta gaur egun eskualdeka egiten da, etorkizunean piano-jole izango direnei euren talentua eta musika eskoletan egindako lana erakusteko aukera emateko. "Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartek premia ikusi zuen Andoaingo topaketa ordezkatzeko, eta eskualdeka egiteko aukera zabaldu zuen. Asteburu berean hainbat piano-jole topaketa egingo dira Euskal Herriko eskualde batzuetan", dio Marije Ugaldek, Bergarako Musika Eskolako zuzendariak.

Iaz lehenengoz Oñatin egin zuten topaketa eta aurten, berriz, Bergarako Seminarixoak hartuko dio lekukoa. Domekan, goiz osoan, bailarako eta Soraluzeako musika eskoletatik etorritako 71 piano-jole elkartzeko dira Bergaran. Topaketa hiru zatitan banatuko dute: 09:30ean lehenengoa, 11:00etan bigarrena eta 12:30ean hirugarrena. Topaketa horrek eskualdeko piano-joleek "elkar ezagutu" eta gainontzeko musika eskolek zer egiten duten "ikusteko" aukera ematen duela dio Ugaldek.

Denetariko piezak

Emanaldietan adin askotariko jendea nahastuko dute eta bi eskutara zein lau eskutara joko

DEBAGOIENKO ETA SORALUZEKO MUSIKA ESKOLETAKO 71 PIANO-JOLE IZANGO DIRA SEMINARIXOAN



Iaz Oñatin egin zen topaketaren irudi bat. GOIENA

dituzte piezak piano-joleek. Errepertorioari buruz galdetuta, "denetarik" entzuteko aukera egongo dela dio Bergarako Musika Eskolako zuzendariak: "Lehen, pieza klasikoen aldeko apustua handiagoa zen, baina gaur egun denetariko musika lantzen dugu. Horregatik, uste dut aniztasun musikal handia izango dutela emanaldiek". Era berean, azpimarratu du joaten den orok ez duela "aspertzeko betarik" izango.

Guztientzako aukera

Topaketa da, eta ez du inolako kutsu lehiakorrik domekakoak, eta, hain zuzen ere, Ugaldek azpimarratu du guztiei "pianoa jotzeko aukera" ematea dutela helburu topaketa horiek, duten maila dutela. "Gaur egun irakasleok egokitzen gara ikasle bakoitzak duen mailara, eta bakoitzak bere prozesua du. Horregatik, domekan maila handiagoko eta baxuagoko piano-joleak izango dira Seminarixoko taula gainean, baina guztiek jotzeko aukera izatea da nahi dugu topaketa horietan", dio Ugaldek.

Tronpa-joleen topaketa Leioan

Tronpa-joleen topaketa egingo dute lehen aldiz asteburu honetan Leioan, eta bertan parte hartuko dute Aretxabaletako (Ekhi Arrese, Etxahun Iturriotz), Bergarako Musika Eskolako (Izaro Loyola, Ibai Fernandez) eta Bergarako Orkestrako (Anaitz Loyola, Hiart Bilbao, Andoni Etxezarreta, Etxahun Iturriotz eta Susana Plumed) tronpa-joleek. Topaketa hori musika eskolek elkar ezagutzeko eta komunitatea sortzeko jarduna da, Euskadi Brass taldeak antolatuta; azaroan tronboi-jotzaileena egin zuten. Topaketan tailerrak eta emanaldiak emango dituzte, eta profesionalekin hitz egin ahalko dute.

Goienakideen txokoa

OTSAILEKO SARIAK

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Errigora

ERRIGORA



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATISKO DAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harnemendenda.org
Bidezko Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzelekin artean egingo da zozketa. Inbentarioa 09/15/2024 lehenengoa, jeneratzen dugu sare digitalaren bidez Goiena Komunitate. Lehenengoa bertan bertan ematen da. Batek biletak haren bileran bakarrik da inbentarioa dagoen orduan gaitzen. Eskualdekoak dute arteko, bakoitzentzako edo zozketarako helbide honetan dituzte: goienakide@goiena.eus

Realaren eta Cadizen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean!



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Cadiz norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuki eta zuki aukeratuaz beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.

Partida martxoaren 15ean, 21:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: martxoaren 10a.



Irabazi tarta goxo bat

GOXO-GOXUA GOZOTEGIARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: otsailak 27



GOIENAKIDE Jotetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Etxebizitza erosiko nuke

Bergaran. Etxea erosiko nuke Bergaran. 3 logela eta igogailua izatea gus-tatuko litzaidake. Matxiategi, Cristobrero eta Emai kale inguruetan. 673 35 95 98

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan Arrasaten. Deitu 631 59 81 22 zenbakira

Arrasaten etxebizitza errentan hartu. Arrasaten etxebizitza errentan hartuko genuke. Umerik gabeko bikotea gara. Lan fin-koa daukagu. Deitu 800 87 38 66 zenbakira.

Oñati etxea hartuko nuke errentan. Bi pertsonarendako bi logeladun etxea hartuko genuke errentan. Euskaldunak gara, oso arduratsuak, langileak eta lan kontratuarekin. 630 63 18 39

4. LANA

402. ESKAERA

Arrasate eta Oñati.

Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Nagusiak zaintzeko gertu. Soziosanitario titulu-ua dut. 632 86 23 69

Arrasate. Astean zehar, asteburuetan eta gauetan orduka lan egingo nuke. Garbiketa lanak egingo nituzke, baita nagusiak zaindu eta konpainia egin ere. Soziosanitario titulua dut. 634 94 30 78

Arrasate. Esperientzia handiko emakumea garbiketa lanak egiteko gertu. Astean behin lan egiteko aukera. Telefonoa: 612 51 42 99

Arrasate. Pertsona nagusiak zaintzeko eta pasiatzera ateratzeko eta garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Orduka lan egingo nuke. Nire herrialdean erizaintzako laguntzaile ikasketak egin nituen. 634 15 82 25

Arrasate. Pertsona nagusiak zaindu eta pasiatzera atera eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo nuke. 631 79 87 75

Bergara eta Arrasate.

Orduka lan egiteko prest dagoen emakumea. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Malgutasuna. 631 90 15 92

Bergara. Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko. Prestutasun osoa eta esperientziaduna. 666 07 42 98

Debagoiena. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut. 613 72 59 43

Debagoiena. Astelehene- tik ostiralera bitartean, goizez zein arratsalde, etxeetan zaintza lanak egingo nituzke. Soziosanitario titulua dut eta behar izanez gero, gomendio gutunak aurkeztu ditzazket. 647 31 48 17

Debagoiena. Astelehene- tik ostiralera garbiketa lanetarako, edo etxeetan pertsonak zaintzeko gertu nago. Lanaldi osoa edo orduka lan egin dezaket astelehene- tik ostiralera bitartean. Soziosanitario titulua dut. Erreferentzia ezin- hobeak ditut. Deitu 641 10 95 67 telefonora.

Debagoiena. Emakume pertsona nagusiak zain- tzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu telefono honetara: 643 50 56 62

Debagoiena. Emakume proaktiboa, langilea eta arduratsua lan egiteko prest. Astean zehar zein asteburuetan orduka lan egingo nuke nagusien zain- tzan edo garbiketa lanetan. 612 59 36 74

Debagoiena. Emakumea gertu etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egiteko. Pertsona nagusiak zaindu eta paseatze- ra ateratzeko, baita etxe zein atarietako garbiketa lanak egiteko prest. Deitu 677 14 64 29 zenbakira

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaindu eta paseatze- ra ateratzeko, baita etxe zein atarietako garbiketa lanak

egiteko ere. Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egingo nuke. Esperientzia dut. 642 97 71 61

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Malgutasun osoa. Soziosanitario titulu-ua dut. 627 21 08 93

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izate edo bestela lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 625 25 57 78

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zain- tzeko prest. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Nire herrialdean erizaintza ikasketak egin nituen eta soziosanitario titulua dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 50 56 62

Debagoiena. Emakumea prest goizetan pertsona nagusiak edo/eta garbi- keta lanak egiteko. Deitu 642 37 01 92 zenbakira

Debagoiena. Emaku- mezkua nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua daukat. Deitu te- lefono zenbaki honetara: 643 95 55 27

Debagoiena. Emaku- mezkua prest nagusiak zaindu eta garbiketa lan- ak egiteko. Orduka lan egiteko aukera. Soziosanitario titulua dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 685 22 54 01

Debagoiena. Etxeak, lantegiak, elkarteak eta bestelakoak garbitzeko prest dagoen gizon- ezkoa. Esperientzia dut ospitalen eta enpresa industrialen garbiketetan. Ordu- teki aldetik malgutasuna daukat. Deitu telefono honetara: 645 72 92 87

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 82 99 55

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo beste- la, orduka. lan egiteko gertu dagoen emakumea. Pertsona nagusiak edo mendeko pertsonak zain- duko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. Soziosanitario titulua dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 624 09 66 51

Debagoiena. Neska ar- duratsua pertsona nagusiak zaindu, pasiatzera atera edo goizetan jaiki eta gauetan ohera sartzen laguntzeko prest. Baita umeak zaindu eta garbi- keta lanak egiteko ere. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke, orduka. Deitu 631 76 12 42 telefono zenbaki honetara.

Debagoiena. Neska eus- kalduna umeak eta nagusiak zaintzeko prest, as- tean zehar zein asteburuetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 656 79 28 37

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiket lanak egiteko prest dagoen emakumea. 697 29 76 11

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egin, igeltsero laguntzaile gisa edo bestela lan egiteko prest. Malgutasun osoa dut. Deitu telefono honetara: 613 45 80 75

Debagoiena. Nagusiak zaindu, garbiketak egin edo beste edozein lan egiteko prest nago. Deitu 672 96 46 49 zenbakira

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu telefono honetara: 624 09 66 51

Debagoiena. Neska ar- duratsua pertsona nagusiak zaindu, pasiatzera atera edo goizetan jaiki eta gauetan ohera sartzen laguntzeko prest. Baita umeak zaindu eta garbi- keta lanak egiteko ere. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke, orduka. Deitu 631 76 12 42 telefono zenbaki honetara.

Debagoiena. Neska eus- kalduna umeak eta nagusiak zaintzeko prest, as- tean zehar zein asteburuetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 656 79 28 37

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiket lanak egiteko prest dagoen emakumea. 697 29 76 11

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, baita asteburuetan ere. Deitu zenbaki honetara: 641 44 16 30

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo asteburuetan lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 747 45 08 06.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo asteburuetan lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 627 28 06 82.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago etxe, baserri eta egoiztan. Autoa daukat. Soziosanitario eta eskor- gak maneiatzeko titulua- k ditut. Malgutasun osoa dut. 631 98 15 50

ZORION AGURRAK



BERGARA

Izan Ruiz

Otsailaren 25an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasa eguna, merezi duzu eta! Zure etxekoan partetik muxu handi bat!



OÑATI

Alba Vaz Olabe

Otsailaren 25an, 7 urte. Zorionak, polittori! Edarto ospatu dezazula eguna! Muxu potolo bat familia guztian partetik.



BERGARA

Xabat Arando Arbelaitz

Otsailaren 21an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Osintxuko Xabatek 10 urte! Ondo ondo pasa eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



ANTZUOLA

Aiala Zabalo Garcia

Otsailaren 21an, 12 urte. Zorionak, prexioxa! Patxo handi bana etxekoan partetik. Gozatu eguna zuk dakizun bezela!



BERGARA

Nora Perez

Otsailaren 19an, 11 urte. Zorionak, urte askotarako Nora! Egun polit- polita pasau eta patxo potolo bat familia danan partetik.



BERGARA

Haizea Sanchez

Otsailaren 19an, 13 urte. Zorionak! Oso oso ondo pasa zure egunean! Muxu asko etxeko guztion partetik!



BERGARA

Ander Hardua Arteaga

Otsailaren 20an, 12 urte. Zorionak, polittori! Merezki bezela ospatuko ditxugu 12 urtiak. Patxo goxo pila bat etxeko danon partetik!



ARRASATE

Julen Anasagasti Vitoria

Otsailaren 16an, 4 urte. Zorionak, Julentxo! 4 urte gaur! Primerako eguna pasau eta asko asko disfrutatu!

ZORIONTEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzaileak sortu eta *Goiena.eus/zorionagurak* helbidean sartu.
- Mezua bidali *zorionagurak@goiena.eus* helbidera, eta idatziz: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



OÑATI

Oihana eta Oxel Uribarren

Otsailaren 16an, 13 urte. Zorionak, Oihana eta Oxel. Ondo ondo pasa egun! Muxu bat etxekoan partetik.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Bergara:
Bidekurutzeta, 55m²
erabilgarri, logela 1,
igogailua eta garaje itxia
aukeran. Guztiz berritua.
187.000€

Bergara: Artzamendi,
88m² erabilgarri, 2
logela eta balkoia.
Eguzkitsua eta bista
ikusgarriekin.
250.000€

Bergara: Lizaria,
95m² erabilgarri,
3 logela eta terraza
bat patiora. Oso
egoera onean.
210.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokokorosti.com

Informazio gehiago:

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

ARETXABALETAKO ALKATEARI ELKARRIZKETA

Gari Iturbe elkarrizketatuko du Goiatz Aranak, kargua hartu eta zortzi hilabetera.

'*Harira*' Egubakoitza, 18:30, 20:30 eta 22:30



KOOLTUR OSTEGUNAK: EZEZETZ TALDEA

Bilboko laukoteak Kooltur Ostegunetan egindako kontzertua osorik entzuteko aukera.

'*Kooltur Ostegunak*' Egubakoitza, 19:30, 21:30 eta 23:30



DANEL TERAN AKTOREARI ELKARRIZKETA

Oñatiko Institutuko ikasleek elkarrizketatuko dute, Imanol Beloki kazetariak lagunduta.

'*Galdegazte*' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30



EDU MURUAMENDIARAZI ELKARRIZKETA

Joni Ubeda kazetariak elkarrizketatuko du Bergarako dantzaria. Azken proiektuez galdetuko dio.

'*Elkarrizkettap*' Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30



KONTU ZAHARRAK JOAKIN JAUREGIREKIN

Julen Zuazabeitiarekin egingo du berba, *Kontu Kontari*-ren bigarren denboraldia hasteko.

'*Kontu kontari*' Eguena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

HILDAKOAK

- Puri Garaigordobil Arteta.** Aramaion, hilaren 12an. 85 urte.
- Luis Pildain Altzelai.** Antzuolan, hilaren 13an. 85 urte.
- Sixto Cebrino Badillo.** Aretxabaletan, hilaren 14ean. 59 urte.
- Lourdes Etxeberria Azkarretazabal.** Aretxabaletan, hilaren 13an. 65 urte.
- Justina Bengoa Leibar.** Aretxabaletan, hilaren 13an. 91 urte.
- Mª Nikolasa Garaigordonil Esturo.** Arrasaten, hilaren 8an. 90 urte.
- Rosa Maria Trejo Lorenzo.** Arrasaten, hilaren 9an. 58 urte.
- Maria Luisa Dias de Mendivil Saez de Cortazar.** Arrasaten, hilaren 9an. 92 urte.
- Mariajose Fernandez Ignacio.** Arrasaten, hilaren 11n. 69 urte.
- Begoña Ortiz de Landaluze Beloki.** Arrasaten, hilaren 11n. 83 urte.
- Kontxi Ibabe Orueta.** Arrasaten, hilaren 10ean. 93 urte.
- Mariano Ruiz de Azua Bengoa.** Arrasaten, hilaren 10ean. 80 urte.
- Iñaki Arsuaga Mendiartz.** Arrasaten, hilaren 13an. 57 urte.
- Antonio Astondoa Errasti.** Arrasaten, hilaren 14an. 93 urte.
- Valeriano Mateos Garcia.** Arrasaten, hilaren 14ean. 82 urte.
- Jose Manuel Guzman Guzman.** Arrasaten, hilaren 19an. 78 urte.
- Eugenio Urrutia Valdes.** Arrasaten, hilaren 20an. 88 urte.
- Petra Valea De La Cruz.** Bergaran, hilaren 10ean. 89 urte.
- Sebastian Alday Aranzabal.** Bergaran, hilaren 10ean. 75 urte.
- Gloria Echarri Suberbiola.** Bergaran, hilaren 12an. 96 urte.
- Ana Morales Barrancos.** Bergaran, hilaren 9an. 102 urte.
- Balbina Cuevas Gomez.** Bergaran, hilaren 14ean. 92 urte.
- Felisa Laskurain Askasibar.** Bergaran, hilaren 16an. 86 urte.
- Juan Barrutia Olañeta.** Elgetan, hilaren 13an. 82 urte.
- Ernesto Urzelau Guridi.** Oñatin, hilaren 13an. 67 urte.
- Sabina Odriozola Igartua.** Oñatin, hilaren 16an. 90 urte.

BERRI-ZAKUA

Leitzararen
47 mendizalek parte hartu zuten Besaidek antolatutako ibilaldian. Leitzararen ubidean zehar ibili ziren. Ostein, bapo bazkaldu zuten Oianume sagardotegian.



Bizkaian
Pol-Pol taldeko beteteranoak Bizkai aldera joan ziren hilaren 18an. Aulesti eta Markina inguruetan ibili ziren 47 lagun, "giro ederrean". Martxokoan Burgos aldera egingo dute.

ESKER ONA

Ernesto Urzelai Guridi



2024ko otsailaren 13an hil zen, Gasteizen, 67 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko otsailaren 23an

BABESLEA

Oroilore

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiak eseren bidez osoritzen lagunduko diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak guzen izan dituzten konfiantzagarriak eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Mariñi eta Cristian

617 44 21 55

BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 23

ARETXABALETA Ixadebalde azoka

Almila Shop, Tak, Belar Meta, Hankabeltz, Kiloka, Asensio eta Kilima komertzioak.
Saltokien aurrealdean, 10:00etan.

ARAMAIO Jubilatuen mus txapelketa eta afaria

16:15era arte eman ahalko da izena: bikoteak, 20 euro.
Erretiratuen elkartearen, 16:30etan.

ARRASATE 'Txotxongiloen ametsak' erakusketa bisita gidatua

Corrado Masaccik emango ditu azalpenak. Izena emateko: kultura@arrasate.eus.
Kulturaten, 17:30etan.

LEINTZ GATZAGA Eugenio Otsoaren omenezko ekitaldia

18:30ean, *Leintz Gatzaga, bere historian* hitzaldia Jose Mari Velez de Mendizabalen eskutik, eta argazki erakusketa; 19:30ean, luntxa, eta ostean, triki-poteoa.
San Migel plazan.

ARRASATE Dantzaldia

Portaloi elkartearen eskutik.
Kulturolan, 18:30etan.

ESKORIATZA Mendi Tour

Gaurko emanaldian: *The silent escape, Oinez, Light beams for Helena, Let it Bärn, Café americano* eta *Zerbait aldatu da*. Sarrerak: egun batekoak hiru euro eta bi egunekoak bost.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARRASATE Dirty Durum Brass taldea

Arrasateko Musika Bandaren zuzendari Mikel Markiegi da taldeko tronboi-jolea. Merkemerkauren baitan.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Gora Euskal (H)errientsak' liburuaren aurkezpena

Kulturaren transmisioan aitzindari izan diren emakumeak ekarriko dituzte gogora Asisko Urmenetak.
Arkupen, 19:00etan.

ARAMAIO Ahoz Aho egitasmoa: Aldo Mendez

Kubako ipuinak kontatuko ditu Aldo Mendezek.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE 'Foto Laso' dokumentala

Arrasate Zientzia elkarteak Pedro Sologaitza Lasori buruz egindako lana.
Amaia antzokian, 19:30etan.

ARRASATE Korda Rota taldearen disko aurkezpena

Panem et circenses diskoaren aurkezpen kontzertua egingo du Arrasateko taldeak. Santa Barbara taldea ere egongo da oholitza gainean. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

OÑATI Sukena eta Bengo taldeak

Sarrerak, zortzi euro.
Gaztelekuan, 22:00etan.

ZAPATUA 24

ARETXABALETA Txoko feministaren diseinatze prozesua

Elhuyarrek gidatuta egingo da lau fase izango dituen TRIL prozesua, eta lehenengo faseak lau lan-saio ditu.
Arkupen, 09:00etan.

OÑATI Oñatiko Ur Jauzietara bisita

Energieren sorkuntzarako instalazioak ikusi ostean, Onaro proiektua ezagutzeko aukera izango dute, EH Bilduren bilgunean.
Olaten, 10:00etan.

OÑATI Dordoka eta Iritegi kobetara irteera

Zoologian doktore Carlos Prietok gidatuta, Ingurumen Jardunaldien baitan.
Enpresagintzan, 10:00etan.

OÑATI Emakumion Etxiaren gaineko saioa

Gosari formatuan. Antolaketaz, kudeaketaz eta gobernantzaz hitz egingo dute. Eltziako hirugarren solairuan.
Eltzian, 10:00etan.

ELGETA Mendi Mendia Racing: VI. jaia

11:00etan, ibilgailuen erakusketa eta pintxo-potea; 11:30ean, Egoarbitzara mendi lasterketa; 12:30ean, sari banaketa; 13:30ean, talde argazkia; 14:00etan, bazkaria; eta 21:30ean, Iskanbila, Neallta Fola, Sindy Berbenas eta Laino Beltzak taldeak.
Elgetan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenerabeendako. Orduategia: 11:30-13:30.
Musokolako gazte txokoan.

ARRASATE Elen's River Dixieland taldea

Arrasate Musikaleko Big Band taldeko zuzendari Zigor Martinez taldeko kide. Merkemerkauren baitan.
Herriko Plazan, 13:00etan.

ARRASATE 'Mr. Bro' antzezlan umeendako

Marie De Jongh taldearen lana. Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 17:00etan.

OÑATI Kuboko xake txapelketa

Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARAMAIO Arabako Bertsolari Txapelketa: finalerdia

Peru Abarrategi, Manex Agirre, Ekaitz Samaniego, Eli Zaldua, Iñaki Viñaspre eta Unai Anda bertsotan.
Kultura etxean, 17:30etan.

BERGARA 'Zimurren artean kontu kontari' antzezlan

La Enana Naranja taldearen eskutik. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoan, 18:00etan.

BERGARA Emakume artisten erakusketa

Herriko hainbat egileren lanak ikusgai egongo dira martxoaren 10era arte.
Aroztegin, 18:00etan.

ARRASATE Crazy Jazzers taldea
20ko hamarkadako jazz tradizionalen oinarritutako taldea. Merkemerkauren baitan.
Arbolapetan, 19:00etan.



CRAZY JAZZERS

ARRASATE Crazy Jazzers taldea

20ko hamarkadako New Orleansko jazz tradizionalen eta kaleko bandetan oinarritutako taldeak emanaldia egingo du, Merkemerkauren baitan.
2015ean sortutako banda da.
Bihar, zapatua, Arbolapetan, 19:00etan.

DOMEKA 25

ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Izena emateko: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

BERGARA Debagoieneko Piano Jaialdia

Oñati, Eskoriatza, Arrasate, Aretxabaleta eta Soroluzeko musika eskoletako ikasleen eskutik. Guztira, 71 pianista.
Seminarixoan, 10:30etan.

ARRASATE Familia-meza

Katekesian parte hartzen dutenendako.
Parrokian, 11:00etan.

ANTZUOLA Aerosorgailuaren irudikatzea

Meakan eta Irimon jarri nahi dituzten moduko aerosorgailu bat irudikatuko dute, giza katea eginda, tamaina errealean.
Zurrategi plazan, 12:30etan.

OÑATI Ekain Txouren ikuskizuna

Sarrerak, bost euro. Burrunda Faktoriak antolatuta.
Gaztetxean, 17:00etan.

ARRASATE Familian Jolasean ekimena

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako.
Santa Marinako ludotekan, 17:30etan.

ARETXABALETA Nafarroako Torturatu Sareko kideen hitzaldia

Torturaren Aurkako Jardunaldien baitan.
Urbaltz elkartearen, 18:00etan.

ARRASATE Bidaieen kronika: Islandia

Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA Mendi Tour

Gaurko emanaldian: *Rope, La gara, Elevated* eta *212 Mountains*. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 26

ARRASATE 'El ayer que nos habita' errezitaldia

Klandestin@s taldeko kide Marisol Barquillak eta *Como te lo cuento* liburuaren egile Kontxi Martinez de Madinak parte hartuko dute, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatuko dituzte Oñatin, Bergaran, Arrasaten eta Antzuolan.
Herri horietan, 12:00etan.

ARRASATE 'Osasun mentala eta nerabeak' hitzaldia

Estibaliz Ansotegik egingo du berba.
Kulturaten, 18:00etan.



LA ENANA NARANJA

MARTITZENA 27

ESKORIATZA 'La memoria y los olvidos' hitzaldia

Buruz Gimnasio Cerebral taldeko kide Emma Ocamicak egingo du berba.

Kultura etxean, 18:00etan.

ELGETA Korrika batzordea

Aurrera begirakoak zehazten jarraitzeko.

Udaletxean, 18:30ean.

OÑATI Komikia solasaldia

David Rubinen *El fuego* komikiaren gaineko saioa, Kike Infamek gidatuta.

Kultura etxean, 18:30ean.

ELGETA Hitzez Pitz irakurketa taldea

Saio irekiak. Izen-ematea, liburutegian.

Liburutegian, 19:00etan.

BERGARA 'Bergarako sinboloek jabetzen' hitzaldia

Patxi Olabarria Irizarrek, Ibai Sanz Zubizarretak eta Dekolonizatu Bergara taldeko kide batek egingo dute berba.

Olaso dorrean, 19:00etan.

ARRASATE 'Arnasa betean' pelikula

Martitzenetako zinema-emanaldia. Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 28

OÑATI 'Debagoieneko trantsizio energetikoa: diagnostikoa eta ahalmena' hitzaldia

Aritz Ametztegi egingo du berba, Esperientziaren Gelak gonbidatuta. Santa Ana antzokian, 10:00etan.

ARRASATE Ahoz Aho jaialdia

Nelson Calderonek eta Ane Gebarak Kolonbiako eta Euskal Herriko ipuinak kontatuko dizkiete 5 urtetik gorako umei.

Kulturaten, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Garaiko produktuak erosteko aukera.

Oxirondon, 18:00etan.

BERGARA 'Zimurren artean kontu kontari' antzezlan

La Enana Naranja taldeak belaunaldi zaharrei egiten dien omenaldia, jakinduriaraz eta maitasunez betetako hamar kanturekin. Umeendako.

Sarrerak, lau euro.

Bihar, zapatua, Seminarixoan, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Axtrokiko ontziak' liburuaren aurkezpena

Egilea: Arantzadi zientzia elkartearen liburu da. Osteen, Arkeologian doktore eta Aranzadiko ikerlari Xabier Peñalverrek egingo du berba urrezko ontzien gainean. Ibarraundi museoa, 18:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia

Dulce Chaconen *La voz dormida* liburuaren gaineko saioa, Ana Rodriguez Callealtak gidatuta. Bibliotekan, 18:00etan.

BERGARA 'Negu hurbilak' pelikula

Zineklubeko emanaldia. Ondoren, solasaldia Ekain Albiterekin. Sarrerak, hiru euro.

Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 29

ARRASATE Sasoibide

Lilatoirako entrenamendua egingo dute, Elorregirainoko joan-etorria eginez.

Biteri plazan, 10:00etan.

ARETXABALETA Korrika batzordearen bilera

Aurrera begirakoak zehazten joateko.

Udaletxe zaharrea, 18:00etan.

ARRASATE Komiki Kluba

Joseba Gomezek gidatutako saioa. Gaur, lehenengo saioa. Izena: bibliotekan edo udal webgunean.

Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI Ostegun Kontalariak

Karabi karaba ipuin kontaketa egingo die Ines Bengoak 4 eta 5 urteko umei. Izenak, aurrez. Haur liburutegian, 18:00etan.

ARETXABALETA Lagun arteko harreman osasuntsuen gaineko solasaldia

Nerea Mendizabalek egingo du berba, Treba Gurasoak ekimenaren baitan. Izenak: *gazteria@aretxabaleta.eus*.

Arkupen, 18:00etan.

ARRASATE Autodefentsa bulegoa irekita

Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak eta Laneko Autodefentsa Sareak zabaldu dute bulegoa, Amerika elkartearen.

Jose Luis Iñarra Abade pasealekua, 18:30ean.

ARETXABALETA 'Ispiluak' ipuin kontaketa, helduendako

Dorleta Kortazar eskoriatzarraren eskutik, Loramendiren 30. urteurrenaren harira.

Udaletxe zaharrea, 19:00etan.

OÑATI 'El chico y la garza' filma

Jatorrizko bertsoian eta azpitituluekin. Sarrerak, bost euro. Zinema aretoa, Oñati 19:30etan

ARRASATE Sexpeares taldea

Jatorriz Barakaldoko den euskal-argentinarraren sustraia rock alternatiboko power hirukotea. Sarrerak, zazpi euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Perfect days
Domeka eta astelehena: 19:30.

Migrazioa

Domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOIA

El rapto
Domeka eta astelehena: 19:30.

El arca de Noe
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Negu hurbilak

Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

ARETXABALETA

ARKUPE

El correo
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Thabo y el caso del rinoceronte

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Robot dreams

Egubakoitza: 16:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.
Astelehenerik eguenera: 17:00.

Wonka

Zapatua eta domeka: 12:00.

Bob Marley

Egubakoitza: 18:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 18:15, 22:30.
Astelehenerik eguenera: 17:15.

La zona de interes

Egubakoitzetik domeka: 22:00.
Astelehenerik eguenera: 17:15.

Perfect days

Egubakoitzetik domeka: 21:30.
Astelehenerik eguenera: 19:00.

Desconocidos

Egubakoitzetik domeka: 17:00, 19:15, 21:30.
Astelehenerik eguenera: 17:00, 19:15.

La estrella azul

Egubakoitzetik domeka: 18:45, 21:30.
Astelehenerik eguenera: 19:30.

Sala de profesores

Egubakoitzetik domeka: 16:30, 18:30.
Astelehenerik eguenera: 16:45, 19:00.

Madame Web

Egubakoitza: 18:45, 21:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 18:45, 21:00.
Astelehenerik eguenera: 19:15.

Negu hurbilak

Egubakoitzetik domeka: 20:30.

Pobres criaturas

Egubakoitzetik domeka: 16:30, 18:45.
Astelehenerik eguenera: 17:00.

Secretos de un escandalo

Egubakoitzetik domeka: 16:45, 19:00, 21:15.
Astelehena eta eguaztena: 17:00, 19:30.
Martitzena: 17:00.
Eguena: 16:30.

Corre, tigre corre

Zapatua eta domeka: 12:00.

Migrazioa (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 12:00.

Priscilla

Egubakoitzetik domeka: 16:30, 18:45.
Astelehenerik eguenera: 17:00.

La estrella azul

Egubakoitzetik domeka: 18:45, 21:30.
Astelehenerik eguenera: 19:30.

Guardianes del museo (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

Priscilla

★★★★★

Zuz.: Sofia Coppola. **Herr.:** AEB (2023). **Aktoreak:** Cailee Spaneyx, Jacob Elordi. **Iraupena:** 112 minutu.

Urrezko kaiolan

ANTONIO ZABALA

Priscilla filmak Elvis eta Priscilla Presleyren arteko harreman bitxia kontatzen digu. Bikotea Alemanian elkar ezagutu zenetik –Priscilla nerabea besterik ez zela–, Elvis rock abeslari famatu egin eta bikotea banatzen den arte. Hasieratik abeslariak gustuko zuen Priscillarekin berba egitea. Momentu haietan, ospetik eta musika mundutik ihes egiten zuten lasaitasun momentuak izateko. Harreman horretan fetitxismoaren kutsua dago. Elvisek jakin nahi du baduela etxean, Gaceland urrezko kaiolan, hura noiz helduko den zain dagoen norbait. Bien arteko eszena asko ohe gainean dira, baina rock-izarra ez doa sexu-harremanen bila, harreman afektibo bila baizik. Arazoa da

Priscillarentzat ez direla nahiko elkarrekin dauden momentu horiek: Elvisek bizitza osoaren parte izan nahi du, eta Elvis ez dago horretarako prest.

Priscilla dotoreziaz filmatuta dago. Sofia Coppolak gustu ona du planifikatzeko orduan, eta eszenekin eta irudiekin batera garai hartako abesti ugari daude, eszena bakoitzaren esanahiarekin lotuta. Baina, tamalez, istorioaren progresio dramatikoak nahiko laua da. Ez daude intentsitate igoerak, denak tonu berean jarraitzen du. Gainera, elipsi ugari daude, eta ez dira askorik ulertzen edo sineskorrak egiten pertsonaietan gertatzen diren aldaketak edo hartzen dituzten erabakiak.



AZKEN BERBA

IZAR ODRIOZOLA

Idazle operazioa

Operación triunfo-k sekulako arrakasta eta zenbakiak lortu ditu azken edizioan. *Talent-show* horretan musikarekin lotutako hainbat alor jorratzen dituzte asteroko galan emanaldi dotorea egiteko: ahots-teknika, kantu korala, *fitness*-a, interpretazioa...


Reality-ak baditu plataforma, dirua eta azpiegitura ospea lortzeko. Horretaz gain, musikak ikuslea harrapatzen duela ere agerikoa da. Baina eman diezaigun buelta honi: ikusiko al zenuke idazleen *talent-show*-rik?

Dagoeneko imajina ditzaket 16 sasi-idazle akademia barruan. Ahots-teknika beharrez, idazketa-teknika landuko lukete; kantu koralararen orde, idazketa kolektiboa, kaligrafia eta sormena; *fitness*-a, batez ere, hatzen entrenamenduan zentratuko litzateke, eta idazteko postura egokien inguruan hitz egingo litzateke.

Asteroko galarako, berriz, idazle bakoitzari erronka bat jarriko litzaioko: hileta baterako gutuna, pazientearen txostena, lehenakariaren mitina, argiaren faktura edo eleberri hasiera bat *E* hizkia erabili gabe. Euskal kulturako hiru kidek osatuko lukete epaimahaia, eta astero idazle gonbidatu bat etorriko litzateke. Irabazlearen saria? Durangoko Azokaz libratzeko aukera.

Nik, behintzat, ikusiko nuke.

BUKATZEKO



Maria Balzategi, Joane Korta eta Aratz Losada, *Matx*-eko lantaldeko arduradunak, aplikazioarekin. XABIER URZELAI

Kirolariak, kirolzaleak eta klubak, 'Matx' eginda

Gertuko kirol edukiak kontsumitzeko eta sortzeko aukera eskaintzen du 'Matx' aplikazioak; hain zuzen ere, erabiltzaileekin komunikatzea, albistea berrienak irakurtzea eta emaitzak eta sailkapenak ikustea ahalbidetuko du kirol-aplikazioak

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA
Gertuko kirolariak, kirolzaleak eta klubak batzen dituen kirol-aplikazioa aurkeztu zuten eguaztenez Donostian, Tabakalera: *Matx*. Tokikom sareak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Laboral Kutxaren eta kirol federazioen laguntza-

rekin pentsatu eta landu duen proiektua da *Matx*; arduradunen esanetan, "gertuko kirol komunitate berri bat" garatzeko helburuarekin sortua.

Zer da 'Matx'?

Proiektuaren erdigunean kirol-aplikazio bat egongo bada ere, *Matx* "hori baino gehiago" dela diote arduradunek; izan

ere, hiru zutabe nagusi izango ditu: klubak, kirol-edukiak eta komunitatea. Klubekin elkarlana "oso garrantzitsua" izan dela dio Joane Kortak, Tokikomeko proiektu-kudeatzaileak, "aplikazioa sortu eta berau garatzeko fasean ezinbestekoak" izan direla iritzita. Era berean, *Matx* garrantzitsua izango da klubaren digitalizazioan, Kortaren hitze-

tan, "taldeetako datu baseak osatu, antolatu eta elkarren artean mezuak modu seguruan trukatzeko aukera" eskainiko dielako.

Kirolari lotutako edukiak izango dute tokia *Matx* proiektuan, eta, horretarako Aratz Losadak, *Matx*-eko edukien arduradunak, adierazi du "erredakzio propio bat" sortu dutela Tokikomeko Gipuzkoako hedabideekin. Losadak gaineratu du mugikorrean eta formatu bertikalean kontsumitzeko ikus-entzunezkoen alde egin dutela proiektuan: "Garbi izan dugu eduki bertikal eta dinamikoaren aldeko apustua egin behar genuela". *Matx* aplikazioak izango dituen edukien artean nabarmentzen dira elkarrizketak, erronkak, albistek, agenda, emaitzak eta sailkapenak.

Matx "aplikazio hutsa baino gehiago" izatea nahi dute arduradunek; komunitate bat sortu nahi dute. Horren harira, Maria Balzategi, *Matx* proiektuaren marketin eta komunikazio arduradunak, azaldu du "gazteekin eta gazteentzat" eraiki den espazio bat dela. Non erabiltzaileek "elkarren artean komunikatzeko, edukiak partekatzeko edo albistek sortzeko" aukera izango duten. Gainera, "sare sozialaren erabilera ere estrategikoa" izango dela eta "amu moduan" erabiliko dutela dio Balzategik.

Aplikazioa doan da

Aplikazioa iOS eta Android plataformetan eskuratu daiteke eta, edukiak jasotzeaz gain, "norberak igo ditzake albistek eta *story*-ak", proiektuaren arduradunek diotenez. Gainera, kudeaketa-tresna ere doan izango dute interesa adierazten duten klubek.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

DANEL TERAN

AKTOREA

'GALDEGAZTE' SAIOAN

OTSAILAREN 27AN, MARTITZENA,
19:30EAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

OÑATIKO ZUAZOLA LARRAÑA INSTITUTUKO
IKASLEEK EGINDAKO ELKARRIZKETA
*HAMARGARREN DENBORALDIAREN ESTREINALDIA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.

